



*1995 eta 1996ko
azterketak*

.361(079.1)

A

EGA

1995 eta 1996ko AZTERKETAK



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA
IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1996

Argitaraldia: 1.a, 1996ko abendua

Ale kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukearen kalea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala: Jesus Iturriza

Koordinatzailea: Nick Gardner

Ardura akademikoa: EGAKo Azterketa Batzorde Ofizialaren Zuzendaritza:
Koldo Biguri, Lurdes Auzmendi, Joseba Butron, Imanol Zurutuza (partez) eta Ander Lakarra (partez).
Azterketa Batzorde Ofizialeko kide desberdinek prestatu dute aztermaterial hauen lehen forma.

Zinta: Liburu hau Atariko Proba desberdinen entzutezko ulermeneko zatiak jasotzen dituen zinta batekin batera saltzen da.

Argazki/Irudiak: Kiloak: goikoa - *HABE*, 227 zkia. (X. Elgezabal)/behekoa - *HABE*, Mintzarena Lantzen, ikaslearen liburua; Ezkontza: ezkerrekoa - *HABE*, 225 zkia. (X. Elgezabal)/eskuinekoa - *HABE*, 217 zkia.; Oporrak: goikoa- Gpo. Mundo bidai-agentziaren liburuxkaren azala/behekoa - *El País Semanal*, 218 zkia., *Roca* iragarkia; Eliza gaur: goikoa - *Argia*, 1482 zkia. (L. Arzuaga)/behekoa - *Quina Sta. Catalina*-ren iragarkia; Banaketa eta Dibortzioa: goikoa - *HABE*/behekoa - J. Gaston Majarenas; Frantziaren saio nuklearrak: mapa - *Año Cero* aldizkaria/besteak - *Dinero* aldizkaria, 617 zkia.; Mendia: marrazkia - *Egunkaria*, 94/11/14 (M. Lopez de Ipiña)/mendia - *Pyrenaica*, 178 zkia. (J. Bereziartua)/mapa - *Pyrenaica*; Haurtxoa Norekin?: goikoa - *Goierriarra* aldizkaria, 95/11/22/erdikoa - *HABE*, 169 zkia. (G.M. Arrugaeta)/behekoa - *HABE*, 204 zkia. (X. Elgezabal); Tabakoa: eskuineko argazkia - *Argia*, 1458 zkia./ezkerrekoa - *HABE*/txistea - *HABE*, 246 zkia. (M. Cendrero Iraola eta J.L. Alvarez del Río); Aisialdia edo Denbora Librea - *Club Aire Libre* aldizkaria (Club Aire Libre); Errepide-istripuak: goikoa - *EROSKI*, kontsumitzaileen aldizkaria, 208 zkia./erdikoa - Eusko Jaurlaritza/eskuinekoa - *HABE*, 215 zkia.; Atlanta 1996: *El Semanal*, 96/7/14.

Fotokonposaketa: Didot, S.A.
Nerbioi, 3-6. - 48001 Bilbo

Inprimatzailea: Boan, S.A.
Aita Larramendi, 2 - 48012 Bilbo

ISBN: 84-457-1112-1

L.G: BI-2402-96

AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
HITZAURREA	7
SARRERA	9
1. ATARIKO PROBAK	15
1.1. Oharrak	17
1.2. 1995/5/6	19
1.3. 1995/9/16	35
1.4. 1996/4/20	51
1.5. 1996/9/14	67
2. IDATZIZKO AZTERKETAK	83
2.1. Oharrak	85
2.2. 1995/5/20	87
2.3. 1995/5/27	99
2.4. 1995/9/30	111
2.5. 1996/5/4	123
2.6. 1996/5/11	135
2.7. 1996/9/28	145
3. ERANTZUNAK & ENTZUTEZKO ULERMENENKO TESTUAK	157
3.1. Atariko probak	159
3.1.1. 1995/5/6	159
3.1.2. 1995/9/16	160

3.1.3. 1996/4/20	161
3.1.4. 1996/9/14	162
3.2. Idatzizko azterketak	163
3.2.1. 1995/5/20	163
3.2.2. 1995/5/27	167
3.2.3. 1995/9/30	171
3.2.4. 1996/5/4	175
3.2.5. 1996/5/11	179
3.2.6. 1996/9/28	183

HITZAURREA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bere gain hartua duen EGAREN arduraren barruan, agiri-emankizun horretarako prestatzen dituen azterketa-materialak argitaratzeari ekin zion hasieratik beretik. Material horiek plazaratzean, emandako pausoen testigantza zuzena eskaintzeaz gainera, EGARA aurkezteko ikasten ari direnentzat tresna egokia bihur zitezene ere lortu nahi izan da. Asmo horri jarraituz, oraingo honetan zazpigarren alea ematen da argitara. Urte biko bilketa-formulari eutsiz, 1995. eta 1996. urteetako azterketak bildu dira hemen. Aurrekoetan bezala, Azterketa Batzorde Ofizialaren Zuzendaritzak EGA azterketak hobetzen jarraitu du. Ahalegin horien emaitzak aurkitu ahal izango ditu irakurleak, neurri batean behintzat, orain aurkezten dugun liburu honetan. Bertan islatzen dira, izan ere, 1995ean zehar Azterketa Batzorde Ofizialaren Zuzendaritzak hartutako erabakiak, berak sortutako batzorde bereziak Atariko Probaren funtzionamenduaz burututako azterlanen ondorioz. Erabakiok galdera-mota desberdinen arteko orekarekin dute zer ikusia, batez ere. Gainerakoan, aurreko liburuaren egiturari jarraitu zaio: azterketa-atal bakoitzaren barnean zati diferenteak azterketa-egun desberdinen arabera antolaturik daude. Lanari osotasuna emateko, Atariko Probaren entzutezko ulermenaren zatian erabilitako ahozko testuak biltzen dituen kasetea erantsi da azkenik.

Atariko Proba EGAREN atal finkotzat jo daiteke jadanik: 100 galderako aukera anitzeko proba hori hainbat aldiz erabili eta egiaztatzeko aukera izan da dagoeneko. Horren ondorioz, bai irakasleek eta bai aztertzaileek ongi hartu dute orohar aztermolde berri hau. Horri buruzko kritikak, halakoak egin izan direnean, bi punturen inguruan izan dira batez ere: alde batetik, Atariko Probak azterketa zaildu egin duela uste du zenbaitek. Beste batzuek, berriz, euskaldunberrien kaltetan euskaldunzaharrei azterpidea erraztu egin zaiela uste dute. Bi kezka horiek arretaz aztertzen jarraitzen du Zuzendaritzak, Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin. Benetako emaitzen estatistiketan, ezin da iritzi-molde bata ez bestea bermatzen duen daturik aurkitu.

Arazo akademiko horiek alde batera utzirik, beste arlo batean ere (antolamenduarenean hain zuzen) lagungarri izan da Atariko Proba ezartzea. Izan ere, azken bi urteotan goi-puntan jarraitu baitu EGAko azterketarien kopuruak, ondoko taulan ikus daitekeenez:

IZENA EMANDAKOEN KOPURUA

	Kopurua	Aurreko urtearen gaineko igoera
1995	13.251	+%4
1996	12.854	-%3

1996an matrikula-jaitsiera txiki bat izan bada ere, EGA sortu zenetik honainokoa bigarren matrikula-kopururik handiena izan da aurtengoa.

Jakina, Atariko Probak erraztu egiten du azterpidea: bai aztertzaileentzat eta bai, bereziki, oraindik EGA mailatik urrunsko dauden azterketarientzat.

Ziur gaude hemen eskaintzen ditugun azterlan eta ikastresna hauek lagungarri izango direla EGA prestatzen ari diren bai gero eta ikasle eta azterketari ugariagoentzat, eta bai irakasleentzat ere.

Gasteizen, 1996ko urriaren 10ean.

Edurne GUMUZIO AÑIBARRO
Pedagogi Berrikuntzako zuzendaria

SARRERA

Euskararen Gaitasun Agiria 1982an sortu zuen Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ordurarte autonomi erkidego honetan erakunde batzuek antolatutako euskara-agirieterako azterketen tradizioa jasoz, bereziki Euskaltzaindiaren **D** tituluarena. **EGAk** egiaztagiri-balioa du eta haren bidez honako hau adierazten da: kasuan kasuko agiridun horrek euskara behar adinbateko trebetasunez erabiltzen dakiela, ahoz eta idatziz.

Euskaltzaindiaren **D** tituluarekin, Nafarroako **EGA** eta bere baliokideekin, Hizkuntza Eskola Ofizialetako 5. urteko gaitasun-mailarekin eta Labayru Ikastegiak 1983 baino lehen luzatutako gaitasun-agiriekin parekaturik dago **EGA**. Baita administrazioko hainbat lanpostutarako (irakaskuntza publikokoak barne) eskatzen diren hizkuntz eskakizun batzuekin ere, zenbait kasutan. Euskal Filologiako lizentziatura edo diplomatura lortu duenari eta maisu-maistra izateko diplomatura-ikasketak osorik edo nagusiki euskaraz burutu dituenari ere **EGA** aitortzen zaie, normalean. Beharrezko titulazio akademikoa edukiz gero, eskola pribatuan ere neurri batean edo bestean baliagarria da **EGA**. Arlo pribatuko beste zenbait lanpostutan ere eskatzen da.

AZTERKETEI BURUZKO AZALPENA

Agiria lortzeko hiru azterketa gainditu behar dira:

- 1) Atariko proba
- 2) Idatzizko azterketa
- 3) Ahozko azterketa

Ondoko pasarteetan egindako deskribapena 1996ko azterketei dagokie: ez da funtsezko aldaketarik aurrikusi 1997rako.

1) **Atariko proba**. Ehun galderaz osatutako test bat da: hasierako galderak (hamabost bat) azterketa-aretoan bertan behin entzuten den grabazio batean

oinarritzen dira. Aukeran jarritako hiru erantzunen artean egokiena hautatu behar da. Beste galderak, ehunera arte, hizkuntzaren hainbat alderdi neurtzen dituzte: lau erantzun dituzte aukeran. Honako arlo hauetan banatzen dira galderak:

- ahozko hizkuntzan oinarritutakoak;
- testuinguru jakinetarako esaldien egokitasuna neurtzen dutenak;
- esaerak eta esamoldeak;
- lexikoa;
- morfosintaxia [lau azpi-multzotan banaturik: deklinabidea eta posposizioak; aditz morfologia; perpausak (koordinatuak, txertatuak, galdegaia); partikulak (*ere, elkar...*), atzizkiak eta juntagailuak];
- batuaren ezagupena;
- idatzizko hizkuntzaren ulermena;
- beste batzuk (Datak eta orduak, matematika-formulen eta eragiketen irakurketa, puntuazio-ikurrak).

Galdera hauek azterketan bertan nahasian aurkezten zaizkio azterketariari. Hirurogeita hamabost asmatuz gero (azterketarien erdiak, gutxienez, gainditu ez badu, asmatu beharreko kopurua txikiagoa izaten da) hurrengo azterketara pasatzen da azterketaria. Azterketariak erreklamazioa eginez gero, eskuz zuzentzen da azterketa eta irakurgailu optikoak emandako notarekin konparatzen.

2) **Idatzizko azterketa.** Honek entzutezko ulermena neurtzeko ariketa bat du hasieran: *entzutezko ulermena* ahozko notaren osagai bat izan arren, entzutezko ulermenerako ariketa azterketa idatziaren hasieran burutu ohi da. Testu bat birritan irakurtzen da eta horri buruzko hamar galderari erantzun behar zaie. Erantzun zuzen bakoitzagatik puntu erdi ematen zaio azterketariari.

Hasierako ariketa horrezaz gain, lau dira idatzizko azterketa osatzen dutenak:

- a) idazlana
- b) esaldiak berridatzi
- c) sinonimoak
- d) irakurriaren ulermena

Maila-bateratasuna ziurtatzeko asmoz, hainbat idatzizko azterketa bi azter-tzailek zuzentzen dute.

- a) *Idazlana* ariketan *dossier* eran bi gai eskaintzen dira, bat aukera dezan azterketariak: gaiari eustea, zuzentasuna, hizkuntz aberastasuna eta ko-hesioa neurtzen dira; Idazlanaren nota bi zatitan banatzen da: orokorra eta ortografiari dagokiona. Edozein modutan ere, azterketariak hirurehun hitz gutxienez idatzi behar ditu. Hona hemen nota orokorra jartzeko erabiltzen den puntuazioa:

- **Edukina.** (0-7 puntu). Honetan adierazia kalifikatzen da, hots, garatzeko eskaintako gaia zein neurritan osatu den:
 - Gaiarekin lotura duten / ez duten alderdien garapena.
 - Argudio eta adibide ugari / gutxi.
 - Gutxienezko hitz-kopurua.
- **Moldea.** (0-8 puntu). Adierazpena kalifikatzen du, hots, edukina azaltzeko moldearen kalitatea:
 - Egitura aberatsak / sinpleak.
 - Lexiko zehatza eta adierazkorra / desegokia edo urria.
 - Ideien eta egituren arteko kohesioa, lotura.
 - Idazlanaren egituraketa orokorra, paragrafoen antola- mendua.
- **Zuzentasuna.** (0-10 puntu). Hizkuntz akats nabarmenen araberako kalifikazioa, hots, joskerazko zuzentasunarena:
 - Deklinabidean: kasu atzizkien erabilera zuzena / okerra.
 - Aditz mailakoa.
 - Perpausen egituraketa.

- Hiru alderdi hauetakoren batean nabarmenki hutseginez gero edota, oro har, hiruretan maila kaxkarra erakutsiz gero, *Idazlana* ez da gaindituzat ematen eta, hortaz, 15 puntutik beherako kalifikazioa jartzen da; zenbat eta okerrago hainbat eta puntu gutxiago.

Ortografiari dagokionez, hona hemen idaztaraueti dagokien nota jartzeko irizpideak.

Iharduerazko errakuntzak (adib. *efantea* idaztea, *elefantea*-ren ordez) ez dira erabakiorrak. Huts bakoitza behin bakarrik kontatzen da. *Soratu*, *soratuta*, *zoratu* eta *zoraututa*-ren ordez: huts bat. *Soratu* eta *asken*, *Zoratu* eta *azken* hitzen ordez: bi huts. *Joan nahiz*, *zaia* (zaila), *kantatzen hari zen*, *heman* edo *tsoria* modukoak huts larritzat hartzen dira.

Puntuazio-ikurrak eta maiuskulak: hauen erabilera ere oso kontutan izaten da ortografiaren kalifikaziorako.

- Puntuazioa:

Atal hau gainditzeko gutxienez puntu bat lortu behar du azterketariak.

Puntuak

5	Hutsik gabe.
4	Akastxoren bat.
3	Akats gutxi batzuk, ez oso larriak.
1-2	Huts nahikoa.
0,01-0,99	Huts ugari edota onartezinak; gainditu-gabea.
0	Ez agertua.

- b) *Esaldiak berridatzi* ariketan emandako esaldiak beste era batera idatzi behar dira jarritako hitzak edo hitz-zatiak erabiliz; *Esaldiak berridatzi* ari-

keta honetan hamar galderatik bost ongi egitea eskatzen da. Baina zer esan nahi du «erabat ongi» horrek? Honako baldintzok bete behar dira ontzat emana izateko:

- Lehenbizi, eredutzat ematen den esaldiaren zentzua osorik jasotzea. Erantzunak jarritako perpausaren zentzuaz gainera beste era batera ere interpretatzeko bidea ematen badu, azterketariaren erantzuna anbigua delako adibidez, ontzat ematen da alde horretatik, haren zentzua gorde baitu. Baina zentzua gordetzen ez badu, besterik gabe txartzat ematen da erantzuna.
- Eskaintzen den «moldea»ri jarraituz osatua izatea bigarren perpausa eta ez beste bide batetik eratua.
- Gramatikaren aldetik zuzena izatea. Esaldi bakoitzak gramatikazko egitura baten ezagutza neurtzea du helburutzat. Baina neurtu nahi den gramatika-egitura jakin hori ongi egon arren beste nonbait huts egin badeza, ergatiboaren marka «ahantziz» esaterako, txartzat ematen da erantzun hori, besterik gabe.
- Ortografia batua ere errespetatzea. Hala ere, huts txikiren bat barka daiteke.

Horrenbestez, erabat ongi dagoen erantzunari 0,5 puntu emango zaio. Gainerakoei, 0,00 puntu.

- c) *Sinonimoak* ariketari gagozkiolarik, hamar esalditan seinalatutako hamar hitzen baliokide bana idatzi behar da; hitz bakoitzeko sinonimo bakarra nahikoa da, beti ere testuinguruari egokitua. Azterketariak bat baino gehiago eskainiz gero, **denek** izan behar dute zuzenak.
- d) *Irakurmena* ariketan azterketariak irakurtzen duen testu bati buruzko aukera anitzeko hamar galderari erantzun behar dio azterketariak. Erantzun zuzen bakoitzagatik puntu bat ematen zaio azterketariari. Idatzizko azterketa gainditzen badu azterketariak —eta horretarako ariketa bakoitzean gutxienezkoa lortu behar du— ahozkoa pasatzen da. Azterketariak bere azterketako notak jakiteko eskubidea du. Horretarako, idatzizko eskabidea egin behar du Hezkuntzako Ordezkaritzan; notak jakin ondoren azterketariak azterketa ikusi nahi badu, bigarren eskabidea egin behar du eskainitako epean.

3) **Ahozko azterketa**. Honek bi atal ditu: batetik aztertzaileek ematen duten testu baten laburpena egin behar da eta, bestetik, beraiek emandako gai-zerrendatik bat aukeratu eta horretaz mintzatu. Honako alderdi hauek neurtzen dira:

- a) Idatzizko hizkuntz eredu zuzenetik hurbil dagoen mintzaira moldea erabiltzeko gaitasuna.

- b) Azalpenak hizkera landuan, erregistro landuan emateko gaitasuna. Etxeko edo lagunarteko hizkerak ez dira nahikoa.
- c) Azalpenen egokitasuna eta zehaztasuna. Berba egitea ez da nahikoa. Azterketariak mintzamolde egoki eta zehatza erabiltzeko gai ote diren neurtu nahi dute aztertzaileek.
- d) Zuzentasuna, egituren eta ahoskeraren aldetik. Egitura traketsak, gramatikalak ez direnak, edo ahoskera traketsak penalizatu egiten dira.

Hona hemen aztertzaileek kontuan hartzen dituzten alderdiak:

- Azterketaren zati hau gainditzeko, azterketariak euskal giro batean normaltasun osoz, komunikazioari trabarik egin gabe, parte hartzeko gauza dela frogatu behar du.
- Beti ere kontutan izaten da hiztun guztiek ez dutela hitz-jario eta etorri bera: batzuek beste batzuek baino motelxeago hitz egiten dute. Honek ez du, berez, nota jaisten. Euskaldunberriek abiadura gutxiagoz hitz egitea harritzekoa ez bada ere, entzuteak eta haria jarraitzeak ez lukete aztertzailea ernagarazi behar. Beraz, abiadura minimo bat ere bada, zein den esatea oso zaila gertatzen bada ere. Ezin dugu ahaztu batzuetan EGA lanpostu baterako giltza dela: ahozko azterketa hau erraztea baino gehiago sendotzea da helburu, euskaraz gai ez direnak EGAdun bihur ez daitezten. Bestalde, hitz egitearen zuzentasuna oso kontutan hartzen da. Aberastasunari ere begiratzen zaio (hiztegia, egiturak, lotura logikoa);
- Ahozko azalpenaren ariketan, ikasleek nahitanahiez eskaintzen zaizkien gaietariko bati buruz hitz egin behar dute: ezin dute beste gai bat aukeratu. Hitz egitean, gaiari ongi dagokion zerbait esatea eskatzen zaie: ez da nahikoa edozein gaiz berba egitea;
- Laburpena egitean, azterketariak bete behar duen lehenbiziko baldintza irakurtzeko eman zaion testuaren mamia funtsean ongi jasotzea da;
- Ariketen helburua azterketariaren ahozko mintzamina neurtzea da: beraz, aztertzaileak ahalik eta gutxien hitz egiten du, azterketaria moztu gabe.

Bereziki kontutan hartzen diren zenbait hutsegite:

- Ergatiboa gaizki erabiltzea. Okerren bat barkatzen da, baina behin eta berriro huts eginez gero, aski da, besterik gabe gutxiegi emateko;
- Aditzaren komunztadura: behin eta berriro **liburu batzuk erosi nuen* eta antzekoak erabiltzen dituenak gutxiegi eramaten du. Noizbehinkako akatsa bada, barkagarri izan daiteke;
- Aditzak gaizki erabiltzea: **kalean ikusi dit (Ikusi nauren orde)* edo **amak eman nau (eman ditzen orde)*, edo **edozein momentuan etorri lezake* eta antzekoak, behin baino gehiagotan erabiliz gero, gutxiegi emateko arra-

zoi dira. Hutsegite hauek bakanak badira, puntuak gutxitzeko indarra izaten dute;

**Esango banioke (banioren orde) edo *pozik joango nintzen (joango nintzatekeren orde) eta abar ere oso kontutan hartu behar dira, aurreko hutsegiteek adinako pisua izaten ez badute ere. Dena den, nolako aditz-aberastasuna duen ere kontutan hartzen da: iraganeko formak, adibidez, edo forma sintetikoak, ahalezkoak eta abar erabiltzen diren ala ez neurtuko da;*

- **Ezagutzen dut neska bat han bizi dela (denaren orde) eta antzekoak behin baino gehiagotan esanez gero, gutxiegi jasoko du azterketariak;*
- -ELA eta -EN: batez ere zehargalderak hartuko dira kontutan. Momentuko hutsegitea bada, barka bedi, baina behin baino gehiagotan gertatuz gero, besterik gabe gutxiegi;
- BA- eta -EN nahastea: **Ez dakit etorriko bada*;
- Elkar, ere, bere burua eta abar nola erabiltzen diren ere kontutan hartzen da;
- Lexikoa: irakurtzeko eman zaion testuan ohizkoak ez diren hitzak agertzen badira, hitzok nola esaten dituen ere begiratzen da, hiztegiaren aberastasuna neurtzeko bidea izan baitaiteke hau.

Baina azterketaria behin huts bat eta gero beste bat, desberdina, eta gero beste bat eta horrela badabil, huts bakoitza sistematikoa izan ez arren, aski izango da gutxiegi jartzeko.

Grabazioa egin denetan hura ere erabiltzen da, huts-orriarekin batean, erreklamazioak ebazteko. Sailak ez du zinta inoiz itzultzen.

1. ATARIKO PROBAK *

* Lehen atal honetan jasotzen dira 1995ean eta 1996an azterketa irekietan (eta, zenbaitetan, bide batez hainbat ikastetxe onetsi eta homologatutan) burutu diren atariko probak.

1.1. OHARRAK

Ondoan jasotzen dira atariko probetako galdekizunen lehen orrian agertzen diren oharrak, azterketariek aldeztu aurretik ezagut dezaten ariketaren moldea.

IRAKUR ITZAZU OHARRAK

1. Galdera-orri hauen liburuskatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu azterketa honek 15 orrialde dituela eta orriak ordenatuzuzenean daudela.
3. Idatzi hemen zure izen-deiturak eta NAN zenbakia.

NAN zenbakia	Izena
1. deitura	2. deitura

4. Gogoan izan azterketa honek ordubete iraungo duela, entzutezko ulermeneko galderei erantzun ondoren.
5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko erantzun-orriko B atala.
6. Galdera bakoitzean erantzun egokiena aukeratu eta erantzun-orrian dagokion koadrotxo arkatzez markatu: erantzun bakarra onartuko da.
7. Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.

Bestetik, komeni da entzutezko ulermeneko zatiaren (lehenengo 12-18 galderak) mekanika azaltzea: zati hori atal bat baino gehiagotan (normalean hiritan) banatu ohi da. Lehen atalaren galderak irakurtzeko minutu bat dute azterketariek; gero, galdera horiei dagokien zinta-zatia entzuten dute; minutu bat

dute jarraian lehen galdera-multzoari erantzuteko eta bigarrena irakurtzeko. Hurrengo atalen artean eta bukaeran tarte berbera ematen zaie. Ondoren, ordu-bete dute azterketariak geratzen zaizkien galderari erantzuteko.

Azterketaren bukaeran, azkenik, honako ohar hau dute azterketariak beharrezko konprobazioak-eta egin ditzaten.

Azterketa bukatzen duzunean, konproba itzazu hurrengoak: (1) erantzunak; (2) NAN zenbakia eta eguna ongi markatu dituzula. Ez mugitu zure aulkitik, arduradun batek horretarako baimena eman arte.

1.2. 1995/5/6

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. Nolakoa da txantxikua?
 - a) Luzea eta polita da.
 - b) Gaina iluna du eta azpia zuri antzekoa.
 - c) Azal leunekoa da.

2. Nolako begiak ditu?
 - a) Txikiak eta beginini bertikala.
 - b) Handiak eta beginini bertikala, Euskal Herriko anfibio guztiek bezala.
 - c) Handiak eta beginini bertikala, Euskal Herriko beste anfibioek ez bezala.

3. Noiz ekiten dio lanari?
 - a) Iluntzean.
 - b) Arratsaldean.
 - c) Gauean.

4. Zer joera du txantxikuak?
 - a) Uretarako joera du.
 - b) Gauez ibiltzeko joera du.
 - c) Igelek bezala, lehorrerako joera du.

BIGARREN ATALA

5. Zer jaten dute txantxikuek?
 - a) Narrasti eta zomorro txikiak nagusiki.
 - b) Arratoiak eta zizareak.
 - c) Intsektuak eta marraskiloak, besteak beste.

6. Zein defentsa sistema erabiltzen du?
 - a) Baratxuri izeneko pozoina soilik.
 - b) Pozoina eta kamuflajea.
 - c) Pozoinik ez duenez, kamuflatu egiten da.

7. Zer dio txantxikuaren kantuari buruz?
 - a) Arraldian, arrak ez ezik emeak ere kantatzen duela.
 - b) Lurralde mugatzeko bakarrik kantatzen duela.
 - c) Euskal Herriko hontza handiaren kantuaren oso antzekoa dela.

8. Zer dio ugalketari buruz?
 - a) Normalean, udaberria igaro ondoren izaten dela.
 - b) Txantxikua uretan ugaltzen dela.
 - c) Ez dela beste anfibioen ugalketaren parekoa.

HIRUGARREN ATALA

9. Ernalketari buruz zer dio?
 - a) Arrak sabela zapaltzen diola atzeko hankekin emeari.
 - b) Emeak hogeitarratzatik gora erruten dituela.
 - c) Arin batean burutzen dela ernalketa.

10. Arrak zer egiten du arrautzekin?
 - a) Errun ahala ernaldutik egiten ditu.
 - b) Emearen laguntzaz, arrautzak pakete batean biltzen ditu.
 - c) Arrautzak lurrean arrastaka eramaten ditu.

11. Arrautzak zergatik ez dira usteltzen?
 - a) Arrak ganbara kapsularra urez betetzea lortzen duelako.
 - b) Arrautzek berezko ura gordetzen dutelako.
 - c) Arrak berotu egiten dituelako.

12. Zer dio zapaburuen jaiotzaz?
- a) Uretatik kanpo jaiotzen direla.
 - b) Uretan jaiotzen direla.
 - c) Ernalketatik bi hilabete baino gehiagora jaiotzen direla.

LAUGARREN ATALA

13. Zenbat irauten du txantxiku-zapaburuen metamorfosiak?
- a) Tenperaturaren arabera gehiago edo gutxiago.
 - b) Hiru edo lau hilabete, beti.
 - c) Normalean urtebete.
14. Non ibiltzen da txantxikua?
- a) Egun argiz, goroldio artean eta harri gainetan.
 - b) Ilunpetan, non-nahi.
 - c) Oso leku lehorretan.
15. Non bizi dira txantxikuak?
- a) Hainbat leku hezetan.
 - b) Lurralde lehorretan.
 - c) 2.500 metrotik gorako mendietan.
16. Esaldi hauetako bat **faltsua** da. Zein?
- a) Bilbon plaza eliptikoko lorategian ikus daitezke txantxikuak.
 - b) Deustuko burdinbideetan ikus daitezke txantxikuak.
 - c) Donostian «Topo»aren inguruetan ikus daitezke txantxikuak.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

17. *Ehiztariak ari ziren.*
- a) danba-danba
 - b) pum-pum
 - c) pim-pam-pum
 - d) bang-bang
18. 'Balio txikiko zerbait, garrantzirik edo funtsik gabea':
- a) Hautsa.
 - b) Hutsa.
 - c) Hutsala.
 - d) Hatsa.
19. Ondokoetako batean bi puntuak **gaizki** erabili dira. Zeinetan?
- a) Hona hemen lehenago eskaturiko liburuak: *Itzal gorria, Elorri eta Askatasunaren Trilogia*.
 - b) Euskal Herriko leku guztietatik etorri ziren: Zuberoatik, Nafarroatik, Lapurditik eta Euskal Autonomi Erkidegotik ere bai.
 - c) Ez gara orain errudunaren bila abiatuko: Urliak abisatu behar zigula, Sandia ez zuela loak hartu beharko, Berendiak gehiegi edan zuela eta abar.
 - d) Ez dizut gezurrik esan, ez: egia osorik ere ez, ordea.
20. *Barru-barrutik mintzatu gintzaizkion,...*
- a) erraietatik.
 - b) bihotz-bihotzez.
 - c) bihotzarekin eta guzti.
 - d) malko batean.
21. *Ez gara luzatuko, ez,...*
- a) presaka bukatuko dugu.
 - b) lasterka bukatuko dugu.
 - c) ordu erdi egingo dugu.
 - d) laster batean amaituko dugu.
22. Zein da esaldi honen esanahia? *Urrun zarelarik ere, oroituko naiz zutaz.*
- a) Oroituko naiz zutaz, urruti zaudelako.
 - b) Gogoratuko naiz zutaz, nigandik bereiz zaudenean ere.
 - c) Urrun beharko duzu izan ni oroitzekotan.
 - d) Urrun zaudenean bereziki oroitzen naiz zutaz.

23. Zein bikote dago txarto?
- a) Izeko-osabak.
 - b) Lehengusu-lehengusinak.
 - c) Aita-aitaginarrebak.
 - d) Neba-arrebak.
24. Ondoko zerrendetatik, zein da tokiz kanpoko hitz bat duena?
- a) Iragan, igaro, iragarri.
 - b) Ildoa, haria, bidea.
 - c) Txima, adatsa, biloa.
 - d) Iseka, trufa, irria.
25. *Gauza jakina da hori, logikoa...*
- a) nahi eta ezinezkoa.
 - b) behar-beharrezkoa.
 - c) begibistakoa.
 - d) behin-behinekoa.
26. *Hipermerkatuan eta erosi genituen.*
- a) hiru patata kilo bost litro esne
 - b) hiru kilo patataz bost litro esnez
 - c) hiru kilo patata bost litro esne
 - d) hiru patata kilo bost esne litro
27. *Berehala konturatu ginen ekaitza laster...*
- a) zetorrelaz.
 - b) zetorrenaz.
 - c) bazetorrela.
 - d) zetorrela.
28. Bilera batean zaude eta zigarro bat eskaini dizu aldamenekoak. Ondoko erantzunetarik zein ez da egokia?
- a) Ez, eskerrik asko.
 - b) Ez, estimatzen dizut.
 - c) Ez, eskertzen dizut.
 - d) Ez horixe!
29. *Guk,, ez dugu atzoko dantzaldia bezalakorik inoiz ikusi.*
- a) gutxienez
 - b) behintzat
 - c) behin edo behin
 - d) berehala

30. Zer adierazten du albiste honek?
Hogeita hamasei trikiti pieza berri lehian.
- a) Oraintsu lehiatu direla hogeita hamasei pieza trikitirako.
 - b) Laster berriztatuko direla hogeita hamasei trikiti.
 - c) Hogeita hamasei trikitirako soinu izotzaren gainean joko direla.
 - d) Norgehiagoka bat izango dela hogeita hamasei trikiti pieza berriren artean.
31. *Badu patxada Andonik! Aukeratu erantzun egokia.*
- a) Bai zera! Gibelak ere bai!
 - b) Bai, urduri hutsa da.
 - c) Ez daki, ez, geldi egoten.
 - d) Bai, horrelako gibel-handirik ez dut sekula ikusi!
32. 'Norbaiti zerbaiten erantzunkizuna eskatu':
- a) Itaunketa egin.
 - b) Kargu hartu.
 - c) Lepoa jokatu.
 - d) Kontu eman.
33. Hurrengo esaldietatik, zein dago **oker**?
- a) Leihotik barrena sartzen da argitasuna.
 - b) Etxera bitartean gogoratu nintzen.
 - c) Laguntza eske hurbildu zitzaaien ertzainei.
 - d) Basoaren zehar ibili ginen.
34. Zein dago egokien?
- a) Otto Pette, *Anjel Lertxundi*-ren azken nobela.
 - b) *Otto Pette*, Anjel Lertxundiren azken nobela.
 - c) *Otto Pette*, *Anjel LERTXUNDI*-ren azken nobela.
 - d) «Otto Pette» *Anjel Lertxundi*-ren azken nobela.
35. 'Aita nahiz ama eta bereziki biak hil zaizkion haurra':
- a) Umemokoa.
 - b) Haurñoa.
 - c) Umezurtza.
 - d) Gurasogabea.
36. *Asko kostatu ibilaldia...*
- a) digu bukatzeak.
 - b) zaigu bukatzeak.
 - c) du bukatzea.
 - d) zaigu bukatzea.

37. *'Renault' bana erosi dugu; hortaz, marka autoak erosi ditugu.*
- berdinetako
 - berdineko
 - antzeko
 - bereko
38. Aukeratu esaldi egokia.
- Espainiako Jaurlaritzak hainbat gudari bidali ditu Bosniara.
 - Frantziako ikurrina asko ikusi ziren azken partiduan.
 - Frantses hizkuntzak euskalki gehiago ditu gaztelerak baino.
 - Ikastoletako ordezkariak Errioxako eskoletakoekin bildu ziren.
39. *Galdera guzti-guztiek erantzuten zien.* Aukeratu baliokidea.
- Galderari beti erantzuna ematen zion.
 - Nolako galdera, halako erantzuna ematen zuen.
 - Zer galdetu, hari erantzuten zion.
 - Erantzuna beti erantzuten zuen.
40. *Jar ezazu interes handiagoa gauzak egitean,...*
- beti zaude gogoetan.
 - dena desgogara egiten duzu-eta.
 - dena hobe beharrean egiten duzu-eta.
 - ez ezazu burutik egin.
41. (Tren geltokian.) *Txartel bat, mesedez, Altsasura...*
- joaterako eta itzultzerako.
 - joan-etorrikoa.
 - joan eta etorri egitekoa.
 - joate-etortzeko.
42. Zein esaldi **ez** dago ondo?
- Iskanbila ederra sortu du Hezkuntzako Sailako Zuzendariaren erabakiak.
 - Dozenaka idazle aurkeztu dira Ignacio Aldecoa sarira.
 - Astebeteko oporraldia hartu behar dut Eguberrietan edo Aste Santuan.
 - Madrilen biltzeko dira Medikuntza Fakultateetako ikasleak.
43. Zein da esaldi honen esanahia?
Idazle horren ondotik orpoz orpo ibiltzea kaltegarria litzateke.
- Ez da komenigarria idazle horri zorrotzegi jarraitzea.
 - Idazle horrekin aurrez aurre topo egitea txarra litzateke.
 - Idazle horren alboan ez da itzulinguruka ibili behar.
 - Ez da gauza ona idazle horrengandik urruntzea.

44. *Egin Jainkoaren nahia!*
- a) dela
 - b) bitez
 - c) dadin
 - d) bedi
45. *..... gure proposamena: hamabost eguneko oporraldia.*
- a) Hona hemen
 - b) Hara han
 - c) Hemen
 - d) Izan bedi
46. Zein da oker idatzitako hitzen bat duen zerrenda?
- a) Ihardetsi, ihartu, saihets.
 - b) Sahats, oinutsik, ihintz.
 - c) Ihesi, ihardun, igeltsu.
 - d) Intxaur, intziri, haltzairu.
47. Zer adierazten du esaldi honek? *Aurrekontuaren araberako egitaraua.*
- a) Egin ahala burutuko dela kontua.
 - b) Nolako diru kopurua izan, halako egitaraua gauzatuko dela.
 - c) Irabazi ahala egingo direla arauak.
 - d) Arauak egiteko alde zuretik diru kopuru trinkoa dagoela.
48. *Aita, utziko al didazu lagunekin irteten? Aukeratu erantzun egokia.*
- a) Ezta pentsatu ere!
 - b) Baina ezetz!
 - c) Ezetz eta ezetz! Ezin da izan.
 - d) Ezezkoan nago.
49. Zerbaiten premia dugula esaten dugunean, zer adierazi nahi dugu?
- a) Atsegin dugula.
 - b) Beharra dugula.
 - c) Horren gogoia dugula.
 - d) Horretarako asmoa dugula.
50. *Lehen oso pertsona alaia zen, baina gizona hil zitzaionez gero...*
- a) hondoratuta dago.
 - b) lehertuta dago.
 - c) bereak egin du.
 - d) behe jo du.

51. , egin dezagun horrela!
- a) Noski bai
 - b) Tira ba
 - c) Behiala
 - d) Hara non
52. Proba hura ezin burutuko beldur ziren.
- a) zutenaren
 - b) zuten
 - c) zutela
 - d) zutelaren
53. Ondoko zerrendetatik, zein da tokiz kanpoko hitz bat duena?
- a) Gertakizuna, jazoera, gertakaria, jasangarria.
 - b) Euritea, eguraldia, txingorra, elurra.
 - c) Labandu, estropozu egin, irristatu, behaztopatu.
 - d) Gailurra, tontorra, erpina, gaina.
54. Arratsaldeko abiatu ginen...
- a) zazpitan Bartzelonaruntz.
 - b) zazpitan Bartzelonarantz.
 - c) zazpiretan Bartzelonarantza.
 - d) zazpiretan Bartzelonaruntza.
55. Horrek lehengo lepotik du burua. Zer esan nahi du?
- a) Ez duela bururik galdu.
 - b) Ez dela pentsakeraz aldatu.
 - c) Ez duela itxura aldatu.
 - d) Ez duela gauza berririk ikasi.
56. Norbaiten etorreragatik poza adierazteko, zein **ez** zenuke erabiliko?
- a) Hara nor etorri den!
 - b) Tira, azkenean etorri da!
 - c) Horrek ere etorri beharra zeukan!
 - d) Etorri da, alajaina!
57. Eskaileretatik behera erori eta ia-ia burua hautsi duzu. Hori gertatu eta gero, zer **ez** zenuke esango?
- a) Burua ez haustea ere!
 - b) Ene, burua hautsi ez dudanean!
 - c) Handia da, gero, ezer ez gertatzea!
 - d) Harrigarria burua ez haustea!

58. Arazo honetan ez dago...
- ezer eginik.
 - zer eginik.
 - zer egiterik.
 - ezer ez egiterik.
59. *Ordainketaren lehen epea dagoeneko pagatu dugu;...*
- ere bai ordainduko dugu bigarrena laster.
 - bigarrena ordainduko dugu ere laster.
 - laster ere bigarrena ordainduko dugu.
 - bigarrena ere laster ordainduko dugu.
60. *Urte asko eman dudanez ibili gabe, bizikletan...*
- ibiltzea ahaztu egin zait.
 - ibiltzea ahaztu egin dut.
 - ibiltzeaz ahaztu egin naiz.
 - ibiltzen ahaztu egin zait.
61. *Gautxori galanta duzu hori: sentitzen da ondoen.*
- gau t'erdian
 - gaubeilan
 - gaueko ordu altuetan
 - goizaldeko ordu txikietan
62. *..... da tematia eta egoskorra ez baitago berarekin hitz egiterik.*
- Zein non
 - Halakoa nolakoa
 - Hain non
 - Zenbat nola
63. *Istripu larria izan eta egon zen hilabete batez.*
- gaixorik
 - azkenetan
 - hiltzorian
 - hiltzekotan
64. Haritzaren, artearen eta kideko zuhaitzen fruitua:
- Ezkorra.
 - Uzkurra.
 - Muskerra.
 - Ezkurra.

65. *Hain pozik ikusi nuen, oihuka eta imintzioka, ezen nengoen.*
- zoratu bezala balitz
 - burutik egin zuelakoan
 - erotu balu bezala
 - erotu bailitzan
66. Zein da esaldi honen esanahia?
Zinea, musika, antzerkia..., horiek denak izango ditugu hizpide.
- Horien bidez hitz egingo dugu.
 - Horietaz mintzatuko gara.
 - Aitzaki horiek guztiak erabiliko ditugu.
 - Horiek guztiak praktikara eramango ditugu.
67. Ondoko zerrendetatik, zein da tokiz kanpoko hitz bat duena?
- Laster, aurki, berehala.
 - Hesia, ataka, langa.
 - Lasaia, patxadatsua, errukitsua.
 - Landa, zelaia, larrea.
68. izendatu zuten, baina hiru hilabete baizik ez iraun.
- Alkatetzat zituen
 - Alkate zuen
 - Alkatetzat zuen
 - Alkate zen
69. Zein da esaldi honen esanahia? *Ez zuten gure aholkua aintzakotzat hartu.*
- Ez ziguten guztiz ondo ulertu aholkatu geniena.
 - Ez ziguten aurpegira begiratu ere egin.
 - Ez zieten gure esanei jaramonik egin.
 - Gurekin zeharo haserretu ziren, aholkua zela-eta.
70. Ondoko zerrendetatik, zein da tokiz kanpoko hitz bat duena?
- Sudurra, usaindu, doministikua.
 - Urdaila, ase, bihotzerrea.
 - Hankak, arnastu, herrena.
 - Ipurdia, jazarri, uzkerria.
71. *Mesedez, non dagoen Askao kalea?*
- esaten didazu
 - esan zenidake
 - esango didazu
 - esango ahal didazu

72. Zein da zuzena?
- Sorua lore zimelez eta horbelez estalirik zegoen.
 - Zorua lore zimelez eta orbelez estalirik zegoen.
 - Zorua lore simelez eta horbelez ezalirik zegoen.
 - Zorua lore zimelez eta orbelez ezalirik zegoen.
73. *Oheratu aurretik kafea edan nuen, eta gero gau osoan...*
- lozorroan egon naiz.
 - ez dut begirik batu.
 - betazalak itsatsi ezinik egon naiz.
 - logale egon naiz.
74. *Praktikak asko ikasten da.*
- eginez
 - egiten
 - egiteagatik
 - egiteaz
75. *Datorren igandean ez dugu haragirik jango, arraina...*
- ere ez baino.
 - bestalde ez ezik.
 - baina ezik.
 - ere baizik.
76. *Hiru ariketa eman eta hau esan zidan: 'Bigarrena duzu errazena'.*
- hirutik
 - hirutan
 - hirutatik
 - hiruretan
77. Hizketan, zure iritzia edo ustea azaltzen hasteko modua:
- Hara,...
 - Hona hemen,...
 - Harira,...
 - Apropos,...
78. Irrati edo telebistako albistegian: *Patronalaren eta sindikatuen arteko ne-
goziazioa egin da azken momentuan.*
- izorratu
 - hondoratu
 - eten
 - porrot

79. Zein da zuzena?
- 1994eko abenduak 11an, 15,00-etan.
 - 1994ko abenduaren 11n, 15:00etan.
 - 1994ko abenduaren 11ean, 15,00n.
 - 1994aren abenduak 11, 15.00'etan.
80. *Baina, kontatu diozu ala? Zein erantzun ez da zuzen?*
- Horixe kontatu diodala!
 - Noski kontatu diodala!
 - Jakina kontatu diodala!
 - Baietz kontatu diodala!
81. *Ohartu zara zer adierazi nahi duen idazki horrek?*
- Noski, irakurri bestean jabetu naiz.
 - Bai, irakurri ez beste gabe ohartu naiz.
 - Bai, bakarrik irakurtzearekin.
 - Bai, irakurri eta berehala konturatu naiz.
82. Zein da esaldi honen esanahia?
Arrantzaleen arteko gatazka areagotu egin da.
- Arrantzaleenganaino heldu da sarraskia.
 - Elkartasuna sortu da arrantzaleen artean.
 - Gutxitu egin da arrantzaleen arteko arazoa.
 - Hazi egin da arrantzaleen arteko konponezina.
83. Zein dago ondo?
- Apirila osoan ez du horrenbeste euririk egin.
 - Salakuntz gogorra da, frogarik gabe egina izateko.
 - Gauz bat kontatu nahi dizut.
 - Lapurreta ordubietan gertatu zen, lekuko batzuek adierazi dutenez.
84. Zein da esaldi honen esanahia? *Gai~~x~~o larriaren ostean zuzpeltu egin zen.*
- Gai~~x~~otasuna, azkenik, gainditu egin zuen.
 - Gizagaixoak ez zuen sendatzerik lortu.
 - Gizajoa osatu zen azkenean.
 - Gai~~x~~oa larriagotu egin zen.
85. *Gure haurtxoa badabil...*
- oraindik plisti-plasta.
 - jadanik sor eta lor.
 - honez gero hitzetik hortzera.
 - dagoeneko ttaka-ttaka.

86. *Mundutik ibiltzeko komenigarria da hizkuntzak...*
- ezagutzea.
 - jakitea.
 - edukitzea.
 - menperatzea.
87. *Gaur irakasle berri bat etorri zaigu, lau hizkuntza...*
- dakienak.
 - dakizkiena.
 - dakizkienak.
 - dakizkiela.
88. *Ariketa horiek den-denak dituzu gaizki; , ekiozu hasiera-hasieratik.*
- hortaz egitera
 - hala ere noizbait
 - beraz ostera ere
 - ondorioz ere
89. *Begirune handiz burua eta zion eskuan.*
- kikildu musukatu
 - jaitsi musu eman
 - okertu musuz bete
 - makurtu muin eman
90. *Ez pentsa, etorri naiz honaino... Zein da zuzena euskara batuan?*
- zeugatik umeekin.
 - zugaitik umiekin.
 - zeugatik umeakaz.
 - zugatikan umeakin.
91. *Neskatila heldua dela diozu? Hamaika urte...*
- besterik ez daukala!
 - baina ez dauzka!
 - baditu!
 - baino ez ditu-eta!
92. *Ikuskizun horrek handia sortu du.*
- ikuslego
 - ikuspegi
 - ikusmira
 - ikusmin

93. Zein da zuzena?
- Gau bat Casablancan filmea ikusi dugu, ETBan.
 - Gau bat Casablancan filmea* ikusi dugu, ETB-n.
 - Gau bat Casablanca-n* filmea ikusi dugu, ETBen.
 - Gau bat Casablancan* filmea ikusi dugu, ETBn.
94. Animalia hauetatik, zein ez da Euskal Herrikoa?
- Basakatua.
 - Azkonarra.
 - Igaraba.
 - Ostruka.
95. *Inguruan horrelako bortizkeria basatia ikaratu egiten...*
- somatuagatik naiz.
 - somatzea nau.
 - somatzeak nau.
 - somatzen naiz.
96. Albistegi batean: *Guatemalan hiru pertsona zituzten atzo tiroz.*
- hil
 - akatu
 - garbitu
 - zendu
97. *Behin bakarrik esango dizuet, beraz...*
- kargu egin.
 - kontu eman.
 - adi egon.
 - esanak bete.
98. *..... higuigarria filme hori, gero!*
- Zein den
 - Zelako da
 - Zeinen dela
 - Nolako den
99. *Eta biek, Davitek Susanak, bete zuten Jaunaren esana.*
- nola nola
 - hala nola
 - bai baita
 - baita ere

100. *Gehiago ikasi behar duzu. Aukeratu erantzun egokia.*

- a) Gehiago ikas dezadan diozu?
- b) Gehiago ikasi nahi duzu!
- c) Gehiago ikastea nahi duzu!
- d) Gehiago ikasteko nahi duzu?

1.3. 1995/9/16

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. Zerk eraman du Pello Zabala meteorologi arlora?
 - a) Bere zaletasunak.
 - b) Premiak.
 - c) Bere estudioek.
2. Espainiako meteorologiak...
 - a) azken 8-10 urteotan apenas izan du zuzperraldirik.
 - b) 100 urtetik gorako historia du.
 - c) 8-10 urtetako zuzperraldiak izan ditu.
3. Datuen bilketak zer helburu du?
 - a) Eguraldiaren iragarpena besterik ez.
 - b) Batik bat, eguraldiaren iragarpena.
 - c) Besteak beste, eguraldiaren iragarpena.
4. Zer dio Pello Zabalak *Instituto Nacional de Meteorología*-ri buruz?
 - a) Konstituzioaren arabera, Estatuaren eskumena dela.
 - b) Transferentzia hori ere eskuratzea komeni zaigula.
 - c) Eusko Jaurlaritzako Garraio Saila dagoela horren buru.

BIGARREN ATALA

5. Igeldoko behategiak zer du bere barnean?
 - a) Obserbadore automatikoa besterik ez.
 - b) Tresna ugari.
 - c) Memoria handiko behatzaileak.

6. Igeldoko behategiko datuak zeinek erabil ditzake?
 - a) Meteorologian adituek.
 - b) Batik bat ikasleek.
 - c) Besteak beste, ikasleek.
7. Euri azidoa neurtu ahal izateko zer egin behar da?
 - a) Zaindariak neurgailua piztu behar du.
 - b) Euria bere horretan hartu.
 - c) Euli, eltxo eta abarren erreakzioa behatu.
8. Euri azidoaz zer dio Pello Zabalak?
 - a) Igeldon beste inon baino gehiago jasotzen dela.
 - b) Toledon biltzen dela gehien.
 - c) Ez dela behar adina ikertu oraindik.
9. Pello Zabalaren esanetan, nongo haizeak dakar euri azidoa?
 - a) Gijon aldetik datorrenak.
 - b) Frantzia aldetik datorrenak.
 - c) Oraindik ikertzeko dagoela dio.

HIRUGARREN ATALA

10. Prozesatutako datuek zer erabilera dute?
 - a) Ez dira inoiz berriro erabiltzen.
 - b) Nahi izanez gero berreskura daitezke.
 - c) Ez dira luzaroan gordetzen.
11. Zer datu bidaltzen dituzte Madrilera?
 - a) Aireportuetakoak batik bat.
 - b) Datu puntualak eta oso noizbehinka.
 - c) Hemengo hiru behategietan jasotakoak.
12. Orduerdiro prozesatzen diren datuak zein dira?
 - a) Aireportuetakoak.
 - b) Hegazkinen bidez jasotakoak.
 - c) Hegazkinen martxari dagozkionak.
13. Aireportuen arteko berri-trukaketa nola egiten da?
 - a) Aireportu batetik bestera zuzenean.
 - b) Gainerako meteorologi datuen bide beretik.
 - c) Bestelakoena baino bost minutu geroago.

14. Zer frogatzen du ekaineko galernaren ingurukoak?
- a) Avileseko behategiaren garrantzia.
 - b) Aireportuetan lan egiteak dituen alde onak.
 - c) Aireportuetako behategien lan eraginkorra.
15. A Coruñako behategian gertatutakoa zeri leporatzen dio Pello Zabalak?
- a) Aparatuaren egoerari.
 - b) Behatzailearen jokabideari.
 - c) Eguraldiaren ezaugarriei.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

16. *Non eta Madrilen topatu behar!* Beste era batera:
- Ez genekien zer egin eta Madrilen topatu genuen elkar.
 - Ez genuen Madrila joan behar, baina joan ginen.
 - Beti egiten dugu topo elkarrekin, eta Madrilen ere bai.
 - Madrilen topatzea ere!
17. *abiatu ziren bizikletan eta iritsi.*
- Bizkairuntza Durangoraino
 - Bizkairantz Durangoraino
 - Bizkairantza Durangora arte
 - Bizkaiaruntz Durango arte
18. Lur-azalaren higidura edo astinaldi nabaria:
- Luberria.
 - Luebakia.
 - Lurrikara.
 - Lubizia.
19. *Ez zenuke horrela egon behar, poltsikoetan.*
- eskuekin
 - eskuak
 - eskuez
 - eskuarekin
20. *Aurrelari trebea da, gero, Julen!*
- Bai, gol ederra sartu zuen atzokoan ere!
 - Bai, ba, txarragorik gero!
 - Izan ere, beti huts egin behar!
 - Bai zera, ona da-eta!
21. *Batzarra utziko dugu? Bai? Hortaz,...*
- noizkorako etzira arte.
 - noizerako etziraino.
 - noizko etzi arteraino.
 - noizko etzira arte.
22. *Hobe beharrez egin zuen. Bestela esanda:*
- Asmorik onenaz egin zuen.
 - Hobeto egin zuen.
 - Behartuta egin zuen.
 - Zerbait behar eta, egin egin zuen.

23. Merkatuan, salneurria galdetzeko:
- a) Zer eska zenezake porru horiengatik?
 - b) Zenbat ematea nahi porru horiek direla-eta?
 - c) Zenbatera daude porru horiek?
 - d) Zenbatean dituzu porru horiek?
24. Landare igokaria, zurtoinetan sortzen zaizkion sustraitxoek bidez horma eta zuhaitz-enborrei itsasten zaiena:
- a) Ihia.
 - b) Huntza.
 - c) Ihintza.
 - d) Antzua.
25. *Horrelako gogorapen ilunak sarri , oso gustura bizi ziren aitona-amonak.*
- a) izatearren
 - b) izateagatik
 - c) izanagatik
 - d) izateko
26. *Joxe zuenetik hurbil bizi al da?*
- a) Bai, ate batetik bestera gaude.
 - b) Bai horixe, lekutan gaude!
 - c) Bai zera, ondo-ondoan daukat!
 - d) Bai, atez ate bizi gara.
27. *Basamortuan zeudela, urik gabe gelditu eta hiltzear egon ziren.*
- a) egarririk ezagatik
 - b) egarriaren egarriaz
 - c) egarria gora-behera
 - d) egarri baziren ere
28. *Errukirik gabe egiten zuten lan. Bestela esan:*
- a) Oso langileak ziren.
 - b) Gogo handirik gabe egiten zuten lan.
 - c) Oso alferrak ziren.
 - d) Ez zioten inori barkatzen lanean.

29. *Egun horretan betetzen ziren urteak Txomin Agirre jaio zela. Egun sei-nalatua,...*
- a) aitzitik.
 - b) beraz.
 - c) alabaina.
 - d) horretaz.
30. *Berak egin badu, zaude lasai,...*
- a) larrutik pagatuko du.
 - b) gogotik eskatuko diot.
 - c) aurpegitik ordainduko du.
 - d) bere eskutik eman beharko du.
31. Zein da zuzena?
- a) 'Toribio Alzaga'-ren *Burruntzia* antzerki lana ikusi genuen.
 - b) Toribio Alzagaren *Burruntzia* antzerki lana ikusi genuen.
 - c) 'Toribio Alzagaren' *Burruntzia* antzerki lana ikusi genuen.
 - d) Toribio Alzaga'ren *Burruntzia* antzerki lana ikusi genuen.
32. *Gabonak izan ez arren, pozik jango gaztainak orain.*
- a) genituen
 - b) genitzan
 - c) genituzke
 - d) genitzake
33. *Hain belarrondoko gogorra eman zion, non ikaraz erori zen lurrera. Esaldi baliokide hauen artetik zein ez da zuzena?*
- a) Hain belarrondoko gogorra eman zion, ikaraz erori zela lurrera.
 - b) Ikaraz erori zen lurrera, hain belarrondoko gogorra eman zion.
 - c) Hain belarrondoko gogorra eman zion, ezen ikaraz erori baitzen lurrera.
 - d) Hain belarrondoko gogorra eman zion, ezen ikaraz erori zen lurrera.
34. *Etorri al da Kattalin?*
- a) Bai, etorri egin da.
 - b) Bai, etorri egin du.
 - c) Bai, etorri da.
 - d) Bai, etortzea egin du.

35. *Itziar bere etorri da, eta Julen bere...*
- a) anaiarekin ahizparekin.
 - b) nebarekin ahizparekin.
 - c) arrebarekin anaiarekin.
 - d) ahizparekin arrebarekin.
36. *Hori esan baduzu, bete egin beharko duzu, alegia...*
- a) hitzari dagokio.
 - b) hitzari eutsi.
 - c) hitza gorde.
 - d) esanak esan.
37. *Ez deritzozu denbora asko behar dela hori egiteko?*
- a) Bai, noski, zenbatnahi.
 - b) Noski baietz, gehiegi.
 - c) Baietz izan!
 - d) Bai zera! Aitaren batean egiten da!
38. *Larunbatean zer egingo galdetu behar diozu.*
- a) duenik
 - b) duela
 - c) duen
 - d) duenaz
39. *Irakur ezazu: $(7 + 13) \times 2 = 40$.*
- a) Zazpi gehi hamahiru bider bi berdin berrogei.
 - b) Zazpi eta hamahiru aldiz bi ematen berrogei.
 - c) Zazpiti gehituz hamahiru bi aldiz da berrogei.
 - d) Zazpi plus hamahiru biderkatuz bitan igual berrogei.
40. *Nola egingo zenuke Miguel Indurainen aldeko apustua?*
- a) Mila zazpiehuni Indurain aurrena izango dela!
 - b) Mila zazpiehuni Indurainek irabazi baietz!
 - c) Mila pezeta jokatzeko ditut zazpiehuneko kontra Indurain aurrena izateko.
 - d) Mila zazpiehuni Indurainek irabaziko duena!
41. *Zazpi urtez esan dute.*
- a) luzetu daitekela
 - b) luza daitekeela
 - c) luza leikela
 - d) luzatu ditekela

42. *Zertan zabiltza hor?* Aukeratu erantzuna.
- a) Hementxe, umeak noiz irtengo.
 - b) Hemen nago, umeak noiz irteteko zain.
 - c) Hementxe, umeen irteera zain.
 - d) Hemen nabil, umeak noiz irteten diren.
43. Irrati edo telebistako albistegian: *Patronalaren eta sindikatuen arteko negoziazioa egin da azken momentuan.*
- a) izorratu
 - b) hondoratu
 - c) eten
 - d) porrot
44. Osasun arrazoiengatik ongi ez dagoen pertsonaren egoerari nola esaten zaio?
- a) Ondoeza.
 - b) Onginahia.
 - c) Egonezina.
 - d) Ondamua.
45. *Lehertu beharrean nago!* Nola esan daiteke beste era batera?
- a) Lehertzeko gogoekin nago!
 - b) Lehertu beharra dut!
 - c) Lehertzeko zorian nago!
 - d) Lehertzeko irrikan nago!
46. *Seguru Alemanian gauza horiek hemen baino hobeto egiten direna.* Zein erantzun da egokia?
- a) Harrapa ezak!
 - b) Bai, zuk baitiozu!
 - c) Ez pentsa, han ere txakurrak ortozik ibiliko dira!
 - d) Alajaina, lehengo lepotik burua horiek!
47. *Horrek jakinaren gainean esaten ditu gauzak.* Bestela esanda:
- a) Jakintsu guztiek baino gehiago daki.
 - b) Jakin ez, baina esan esaten ditu gauzak.
 - c) Zer dioen ondo dakiela esaten ditu gauzak.
 - d) Goitik behera, harrokeriaz esaten ditu gauzak.

48. Arazo larriren batek berarekin dakarrena:
- a) Burutazioa.
 - b) Buruhaustea.
 - c) Burutapena.
 - d) Buruhandikeria.
49. *Onar itzazu batzuen besteen iritziak.*
- a) nahiz
 - b) ezein
 - c) bezala
 - d) hala
50. *Sentitzen dut, baina karnetik gabe ezin zara sartu, dokumentu hori...*
- a) nahita ezinezkoa da.
 - b) nahitaezkoa da.
 - c) nolana hiko da.
 - d) norana hiko da.
51. Zein da zuzena euskara batuaz?
- a) Lan gutxi eta alferkeri asko.
 - b) Gauza bat esan behar dizuet.
 - c) Hainbat eskoletan ikasi dut.
 - d) Zulo handia duzu patrikean.
52. *Eman Kermani oparia, bake santuan joan dadin.*
- a) ezazu
 - b) iezaiozu
 - c) diezaiozun
 - d) ezaiozu
53. *Begirada goxoa zuen; hitz egiterakoan, berriz, irribarre maltzurra erakusten zuen. Hori adierazteko, zein ez da egokia?*
- a) Begirada goxoa zuen; baina hitz egiterakoan irribarre maltzurra erakusten zuen.
 - b) Begirada goxoa zuen; hitz egiterakoan, ordea, irribarre maltzurra erakusten zuen.
 - c) Begirada goxoa zuen; hitz egiterakoan, aldiz, irribarre maltzurra erakusten zuen.
 - d) Begirada goxoa zuen; hitz egiterakoan, gainera, irribarre maltzurra erakusten zuen.

54. *Zenbat urte dituzu? Aukeratu erantzun egokia.*
- Zenbat botako dizkidazu?
 - Zenbat botatzen didazu?
 - Zenbat pentsatzen duzu?
 - Zenbat begiz jotzen didazu?
55. *Giro informalean zaudela, batere gustuko ez duzun zerbait gertatzen zai-zunean:*
- Amaitu da!
 - Kaka zaharra!
 - Auskalo!
 - Kokolo hori!
56. *Hurrengoetatik zein da egokiena?*
- Honako liburu hau gomendatzen dizut, *Joanak joan*.
 - Honako liburu hau, gomendatzen dizut: *Joanak joan*.
 - Honako liburu hau gomendatzen dizut: *Joanak joan*.
 - Honako liburu hau gomendatzen dizut; *Joanak joan*.
57. *Zein ez da zuzena?*
- Zeinen leloa zaren!
 - Zein leloa zaren!
 - Zu bai leloa!
 - Zein leloa zara!
58. *Zuzen okerreko bidetik esan zenutenean.*
- zabiltzate nihoala
 - zebiltzan goazela
 - genbiltzan nindoala
 - zeundeten gindoazela
59. *Horiek erantzun diote galderari...*
- eta leiho ondoan dagoen neskak ere bai.
 - eta leiho ondoan dagoen neskak ere.
 - eta leiho ondoan dagoen neska ere bai.
 - bai ere leiho ondoan dagoen neskak.
60. *Ez zuen etorri nahi, baina azkenean, bada ere, etorri da.*
- gogogabetuta
 - gogorik ezean
 - gogoz aurka
 - gogoz kontra

61. *Oraingo kantariak gutxitan jotzen dute poetengana, gutxiago idazle...*
- a) are klasikoengana.
 - b) are klasikoetara.
 - c) ere klasikoengana.
 - d) oraindik klasikoetara.
62. *Zer egin zenuten horrenbeste denboran?*
- a) Hantxe, jaten eta jaten.
 - b) Hantxe jezarri, jatea eta jatea.
 - c) Ba, hantxe jezarrita, jan eta jan.
 - d) Ba, hantxe jezarri eta jan eta jaten.
63. Zein hitz-bikote **ez** da egokia?
- a) Gizon meharra.
 - b) Ume zarpaila.
 - c) Bide zekena.
 - d) Lur emankorra.
64. Ilargi betetik ilargi berrira doan denboraldiari nola deitzen zaio?
- a) Ilbeltza.
 - b) Ilargibehera.
 - c) Ilgora.
 - d) Ilbehera.
65. *Zu konturatzerako hamaika lagun konturatuko dira.*
Nola esan daiteke beste era batera?
- a) Denok bateratsu konturatuko zarete.
 - b) Lehenago konturatuko zara zu.
 - c) Zu bezain laster konturatuko dira besteak ere.
 - d) Jende asko konturatuko da zu baino lehen.
66. *Konponketa hauek ez dira behin-betikoak,...*
- a) aldizkakoak baino.
 - b) inoizkoak baino.
 - c) behin-batekoak baino.
 - d) behin-behinekoak baino.
67. Pelota moduko joko batean huts egiten denean:
- a) Bazterra jo.
 - b) Porrot egin.
 - c) Zisko egin.
 - d) Kale egin.

68. Zerrenda hauetako batean tokiz kanpoko izen bat dago. Zeinetan?
- Garia, artoa, garagarra.
 - Urra, ezkurra, pagotxa.
 - Orria, hostoa, orbela.
 - Burdina, ezpela, beruna.
69. *Zin egin zuen, baina gezur galanta bota...*
- ere ere.
 - baita ere bai.
 - baita ere.
 - halaber orobat.
70. *Etxetik atera eta ahoa bete hortz gelditu zen. Izan ere, gutxien espero zuena gertatu baitzen:...*
- alaba norekin eta alkatearekin ikusi!
 - alaba alkatearekin berarekin ikusi!
 - alaba alkate berarekin ikusi!
 - alaba alkatea berarekin ikusi!
71. Zein da zuzena?
- Hondarribiako marinolak.
 - Azpeitiako baserritarrak.
 - Donostiako udaltzainak.
 - Bizkaiako parlamentariak.
72. *Amak itxura horrekin ikusiko zer esango ote...*
- bazintuen zizun?
 - balizu lizuke?
 - bazintuzke dizu?
 - bazintu luke?
73. *Dena berehala ikasten zuen, hain zen azkarra. Honen baliokide zuzena:*
- Dena berehala ikasten zuen, azkarra zen arren.
 - Dena berehala ikasten zuen, azkarra zela eta.
 - Hain azkarra zenez, dena berehala ikasten zuen.
 - Hain azkarra zen, dena berehala ikasten zuela.
74. *Zer egin behar dut, orduan? Besteak:*
- Zer egin behar duzu?
 - Zer egin behar duzula?
 - Zer egin behar duzulakoan?
 - Zer egin behar duzun?

75. *Gasteiz eta Iruñea Arabako eta Nafarroako hiriburuak dira...*

- a) hurrenez hurren.
- b) respektiboki.
- c) batean eta bestean.
- d) eskuarki.

76. *Gurekin haserretu , jo gintuzten.*

- a) ez ezik ere egin
- b) ezik ere
- c) ezean izan
- d) izan ezik ere egin

77. Norbaiti paseatzera joateko proposamena egiteko:

- a) Ematen badugu buelta bat?
- b) Buelta bat egingo dugu?
- c) Buelta bat ematen dugu?
- d) Buelta bat egiten dugu?

78. Hurrengoetatik zein da zuzena?

- a) Bai, etzi ikusten gara.
- b) Bai, etzi ikusiko gara elkar.
- c) Bai, etzi ikusiko dugu elkar.
- d) Bai, etzi ikusten dugu elkar.

79. *Ezagutzen dituzu Miren eta Aloña?*

- a) Ezagutzen ez ditut, ba!
- b) Ezagutuko ez ditut, ba!
- c) Ez ditut ezagutuko!
- d) Ea ezagutzen baditut?

80. *Hala ganbaran aurkitu genuen liburu zaharrak.*

- a) zion
- b) ziotson
- c) zioen
- d) zioten

81. Zein da zuzena?

- a) Garrantzitsua da oinezkoak ezkerretik joatea.
- b) Garrantzitsua da ohinezkoak eskerretik joatea.
- c) Garrantzitsua da oinezkoak ezkerretik joatea.
- d) Garrantzitsua da oineskoak eskerretik joatea.

82. *Zer moduz ordenadore berriarekin?*
- a) Gaizki, ahaztu egin zait erabiltzea.
 - b) Txarto, ahaztu egin zait erabiltzen.
 - c) Txarto, ahaztu zait erabili.
 - d) Ba, gaizki, ahaztu baitzait nola erabiltzea.
83. Gutun ofizial baten hasiera desegokia:
- a) Kaixo:
 - b) Agur t'erdi:
 - c) Jaun/Andere agurgarri hori:
 - d) Jaun/Andere hori:
84. Eskuetakoko hatz lodia eta luzea elkar joaz ateratzen den hotsak zein izen du?
- a) Kriskitina.
 - b) Kisketa.
 - c) Atzamarkada.
 - d) Atximurra.
85. *Begoña-eta larunbatean etorriko dira. Bestela esan:*
- a) Begoña izenekoak etorriko dira larunbatean.
 - b) Begoña eta beste batzuk etorriko dira larunbatean.
 - c) Begoñarekin batera etorriko dira larunbatean.
 - d) Begoña dela eta etorriko dira larunbatean.
86. *Hel diezaiogun gaiari. Beste era batera esanda:*
- a) Jo dezagun iltzea.
 - b) Goazen harira.
 - c) Goazen ildora.
 - d) Goazen alera.
87. *Zoria aldekoa izan duzu. Zein da esaldi honen baliokidea?*
- a) Kukuak jo dizu.
 - b) Asto beltzarenak ikusiko dituzu.
 - c) Ezikusiarena egin duzu.
 - d) Noraezean ibili zara.
88. *Gauzak oso erraz ahazten ditu; horregatik askotan behar izaten zaizkio.*
- a) oroitarazi
 - b) zuzendu
 - c) oroitu
 - d) bururatu

89. *Egunez egin zuten lapurreta; ... Zein ez da jarraipen zuzena?*
- a) baina inork ez zuen ezer ikusi.
 - b) halere, inork ez ei zuen ezer ikusi.
 - c) baino inork ez ohi zuen ezer ikusi.
 - d) ikusi, ordea, inork ez omen zuen ezer ikusi.
90. *Nik entzun ditut entzun beharrekoak! Jarraipen egokia:*
- a) Isilik egon banintz, hobe!
 - b) Isilik egon banintzen, hobe!
 - c) Isilik egongo banintzateke, hobe!
 - d) Hobeto isilik egongo banintzen!
91. *Lehenago egunean ezin izan barreari eutsi.*
- a) genion
 - b) geniezaiokeen
 - c) geniokeen
 - d) genuen
92. *Ez dago inon pelotaririk...*
- a) herrian ditugunak bezalakorik.
 - b) herrian ditugun bezalakorik.
 - c) herrian ditugunak bezala.
 - d) herrian ditugun bezalakoak.
93. *Oheratu orduko loak hartzen nau. Beste era batera:*
- a) Oheratu bezain laster loak hartzen nau.
 - b) Oheratzerakoan loak hartzen nau.
 - c) Oheratzeko orduan loak hartzen nau.
 - d) Oheratu eta gero loak hartzen nau.
94. *Utzi bakean, ez inori esango!*
- a) diodala
 - b) badiot
 - c) diot eta
 - d) diodan
95. *Maila arrunteko esaldiak dira denak, bat izan ezik. Zein?*
- a) Jainkoa, luzakor bada ere, ez da ahazkor.
 - b) Hura gizon alea!
 - c) Nik hartu nuen amorrazioa, ez zetorrela ikusi nuenean.
 - d) Atsoarekin noa afaritara.

96. *Noiz elkartuko gara?*
- a) Abuztuaren hamarrean, arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan.
 - b) Abuztuko hamarrean, arratsaldeko zortziak laurden gutxian.
 - c) Abuztuaren hamarran, arratsaldeko zortzirik laurden gutxitan.
 - d) Abuztuak hamarrean, arratsaldeko zortzirik laurden gutxi orduan.
97. *Han ibili gintzaizkion denok, ekin eta ekin, eta azkenean...*
- a) iritzia eman zuen.
 - b) gogotik eman zuen.
 - c) gogoak eman zion.
 - d) amore eman zuen.
98. *Sasi artean zebilela, gona zitzaion.*
- a) zimeldu
 - b) ziztatu
 - c) urratu
 - d) lastu
99. *Borroka-mota honetan, berriz, norbera eta aldekoak kontrakoak ere pot eginda gertatuko dira.*
- a) ez ezik
 - b) aitzitik
 - c) izan ezik
 - d) ezik
100. *Ikusi duzun neska edo mutil politak zure barnean piztu duena adierazteko, zein ez da egokia?*
- a) Ederra mutila!
 - b) Bai neska ederra!
 - c) Benetan ederra mutila!
 - d) Ze neska eder!

1.4. 1996/4/20

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. Nortzuk elkartzen dira maiatzaren 1ean?
 - a) Inguruko frantziskotar guztiak.
 - b) Misiolari lanetan ibilitakoak.
 - c) Hiru elizbarrutietako apaiz eta lekaimeak.
2. Aurten zer egingo dute?
 - a) Aurreko urteetan ez bezala, elkartu egingo dira.
 - b) Misioen mendeurrena ospatuko dute.
 - c) Beren misioen nondik-norakoa aztertuko dute.
3. Afrikako materialaren artean zer ez da aipatzen?
 - a) Ruandako jantziak.
 - b) Misiolarien Zaireko hizkuntzara itzulitako mezaliburu bat.
 - c) Angolari buruzko panela.
4. Amerikari dagokionez, zer material izango da ikusgai?
 - a) Kristo aurrekoa soilik.
 - b) Euskal misioen sorrera eta bilakaera ikusi ahal izango da.
 - c) Ekuadorrekoa bai, baina Brasil, Txile eta Venezuelakorik ez.

BIGARREN ATALA

5. Zein da Ruandako misiolarien egoera?
 - a) Misioa desagertzean dago.
 - b) Han dituzten bost misiolarien mehatxuak izan dituzte.
 - c) Euskal Herrian bildu eta hemendik bidalitako laguntza jaso dute.

6. Erakusketa aurretik, zertarako erabili izan da azkenaldi honetan areto hau?
 - a) Lanabesak gordetzeko.
 - b) Jendeak lo egiteko.
 - c) Bilerak egiteko.

7. Zergatik sortu zen Urkiolako misiolari talde hau?
 - a) Gipuzkoako elizbarrutiak eskatuta.
 - b) Bilboko apezpikuak eta bikario nagusiak nahi zutelako.
 - c) Frantziskotarrek Urkiolara joan nahi ez zutelako.

8. Zein da Urkiolaren garrantzia?
 - a) Euskal kulturaren gune bilakatu da.
 - b) Erlijio mugimendua indartzea da hango misiolarien helburu bakarra.
 - c) Antzinako usadioak zeuden-zeudenean gordetzen dira han.

9. Zer ez da egia San Antoniori dagokionez?
 - a) Caritas erakundearen sortzailea izan zen.
 - b) Familiarekin zerikusia du.
 - c) Andregai edo senargai aurkitzen laguntzen omen du.

HIRUGARREN ATALA

10. Zertarako egiten dira gaur errogatibak?
 - a) Bakea eta euria eskatzeko.
 - b) Arratia inguruan euria eskatzeko.
 - c) Elkartasuna dute helburu.

11. Gaur egun, zer da *Urrixena*?
 - a) Jainkoari eskerrak emateko eguna.
 - b) Urtaro aldaketa ospatzen den eguna.
 - c) Nekazariak ospatzen duten eguna.

12. Inguruaren garbitasuna nola bideratu dute?
 - a) Hasierako urteetan ez zuten zaindu beharrik izan.
 - b) Lehen, bi astean behin txukuntzen zuten.
 - c) Besteak beste misiolari talde hau ere arduratu da inguruak txukuntzeaz.

13. Azken erantzuneko hitzetan zer somatzen da?
- a) Alde batetik pozik dagoela, baina bestetik ez.
 - b) Damututa dagoela egindako lanaz.
 - c) Bisitariak orain jarrera hobea dutela.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

14. Zein da zuzena?
- Aita hil zaiola? Damu zait!
 - Antolatu nahi genuen festa pikutara joan zaigu. Gero gerokoak!
 - Ez dakizula norekin ezkondu? Bejondeizula!
 - Bideoa ez dakizula erabiltzen? Ba, hor konpon, Mari Anton!
15. *Horrek niri adarra jo?...*
- Nahita ezinezkoa!
 - Hobe ezetz!
 - Baita zera ere!
 - Ezta batere!
16. Ondoko zerrendetako batean hitz bat tokiz kanpo dago. Zeinetan?
- Oilo, oilar, txita.
 - Behor, zaldi, moxal.
 - Behi, zezen, txahal.
 - Ardi, ahuntz, arkume.
17. *Erraz harrapatzen al zaitu buruko minak? Aukeratu erantzun egokia:*
- Jakina! Osasun gordinekoa naiz.
 - Bai eta nola ere! Osasun gordinekoa naiz.
 - Bai zera! Osasun gordinekoa naiz.
 - Hortxe-hortxe! Osasun gordinekoa naiz.
18. *Eskerrak eman behar dizkizut, Izaskun ezagutu nuen-eta.*
- zeure kasa
 - zugan zehar
 - zeure bitartez
 - zeure kabuz
19. Zein dago oker?
- Kafe katilu txiki bat edan dut.
 - Katilu txiki bat kafe edan dut.
 - Katilukada bat kafe edan dut.
 - Katilu bete kafe edan dut.
20. *Istripu latz horretan hiru eta bederatzi izan omen dira.*
- hildak zaurituak
 - hilda zauritutak
 - hildako zauritutak
 - hildako zauritu

21. *Galtzak bete lan du. Zer esan nahi du?*
- Gizon baten moduan jokatzeko duela.
 - Poltsikoak bete arte aberasteko beste lan egiten duela.
 - Galtzak konpontzeak lana ematen diola.
 - Zeregin ugari duela.
22. *Horko koadroen artean, zeuk ez dago...*
- egindakoa bat ere ez.
 - eginikoak bat ez.
 - egina bat bera ez.
 - egindakorik bat ere.
23. *Zein da zuzena?*
- Hegaskin iztripuan zauritutakoak ospitalera bidean daude.
 - Egazkin istripuan zauritutakoak ospitalera bidean daude.
 - Hegazkin iztripuan zauritutakoak ospitalera bidean daude.
 - Hegazkin istripuan zauritutakoak ospitalera bidean daude.
24. *Apostu zentzua emanaz, zein da zuzena?*
- Apostatuko nuke horrek ez duela xentimorik ere.
 - Ziurtatuko nuke horrek ez duela txakurrandirik ere.
 - Burua moztuko nuke horrek ez duela xemeikorik ere.
 - Lepoa jarriko nuke horrek ez duela ezertxo ere.
25. *..... etorri dela? Bada, nik ez dut ikusi.*
- Bateren bat inor
 - Norbait inor ere
 - Inor inor ere ez
 - Norbait inor ez
26. *Zer esan nahi du ondoko esaldi honek?
Gobernua osatzeke dago oraindik.*
- Oraindik osatu gabe dagoela.
 - Osatu berri dela.
 - Oraindik ere dudazkoa dela.
 - Osatzeko zorian dagoela.
27. *Nik egindako kaltea ordaintzen ari dela? Aukeratu erantzun egokia.*
- Makina bat halakorik!
 - Zakurraren putza!
 - Ordaindu, gero!
 - Hor dago koska!

28. Barrura sartzeko, zer eskatu behar da?
- a) Irekitzen diguzu atea?
 - b) Zabaldu al diguzu atea?
 - c) Sartzea uzten diguzue?
 - d) Atea irekiko diguzu?
29. Hauetatik zein ez da, berez, nekazaritzako tresna edo lanabesa?
- a) Goldea.
 - b) Aitzurra.
 - c) Ingudea.
 - d) Eskuarea.
30. *Ez zen guztiekin batera sartu, jendetza hark lurrera botako beldur zen-eta.*
- a) zuenentz
 - b) zuen
 - c) zuenaz
 - d) zuenaren
31. Erosketak egindakoan, dendariak erosleari:
- a) Zerbait besterik?
 - b) Besterik ezer?
 - c) Bestelakoak?
 - d) Zer beste?
32. Lurraren eta landareen gainean, gauetan nahiz goizetan, biltzen diren ur-tantak:
- a) Lanbroa.
 - b) Huntza.
 - c) Ihintza.
 - d) Lurmendua.
33. *Legatz kuota %50 murriztu nahi du Bruselak. Hortaz:*
- a) Gero eta gutxiago harrapatzen da.
 - b) Lehengoaren erdia harrapatu ahalko da.
 - c) Gehitu egingo da harrapaketa kopurua.
 - d) Gehiago harrapatzeko baimena emango du.
34. *Harrera abegitsua egin zien. Zein da baliokidea?*
- a) alaia
 - b) adeitsua
 - c) zakarra
 - d) begikoa

35. *Merke erosi duzu motor hori? Zein da erantzun zuzena?*
- a) Bai, oso modu onean.
 - b) Bai, oso modu egokian.
 - c) Bai, oso moduzkoa.
 - d) Bai, nahiko merkerik.
36. Zein da zuzena?
- a) Datorren hilak 3, astelehenean, antzerki-saioa egongo da.
 - b) Datorren hilaren 3an, astelehena, antzerki-saioa egongo da.
 - c) Datorren astelehenean, hilaren 3, antzerki-saioa egongo da.
 - d) Datorren astelehena, hilak 3, antzerki-saioa egongo da.
37. *Ebakuntza egin behar diote aitonari, baina ondo aterako da.*
- a) Jainkoarren
 - b) Jainkoarekin bat
 - c) Jainkoaren izenean
 - d) Jainkoa lagun
38. *Amonatxo bat bazebilen, ordea, etxe barruan urduri, ezin harturik.*
- a) loak
 - b) lotara
 - c) loa
 - d) lotan
39. *Nik ez nekien askorik bizitzari buruz, gazteegia bainintzen.*
- a) ordutik
 - b) artean
 - c) dagoeneko
 - d) oraindik orain
40. Zein da zuzena?
- a) Min asko daukat.
 - b) Mina egin naiz.
 - c) Mina hartu dut belaunean.
 - d) Min handia dut.
41. Zerbaitekin bat ez zatozela adierazteko:
- a) Ezta ere!
 - b) Bai, gero!
 - c) Bai zera!
 - d) Ezta bat ere!

42. *Hau duzu Mikel, naturista ospetsua. Hobe da etortzea ibiltzea baino.*
- a) honetara medikutan
 - b) honengana medikutan
 - c) berarengana medikuengan
 - d) honengana medikuengan
43. Zein da zuzena?
- a) Gauz hori benetakoa dirudi.
 - b) Gauza hori benetazkoa dirudi.
 - c) Gauz horrek benetazkoa dirudi.
 - d) Gauza horrek benetakoa dirudi.
44. *Hemen duzu zor nizun dirua, orain...*
- a) kito gaude.
 - b) bakeak egin ditugu.
 - c) parean gaude.
 - d) garbi gaude.
45. Esaldi hauetatik zein da zuzena?
- a) Erabaki dutena da gauza batzuk onartu eta beste batzuk ez.
 - b) laztik jantzi ez nituen galtzak estu-estu geratzen zaizkit orain.
 - c) Benetan argaltzea nahi baduzu, zoaz dietista batengana.
 - d) Ziur egon lehenago niri deituko zidatela, beste edonori baino.
46. Zeinek du animalien osasuna lanbide?
- a) Abeltzainak.
 - b) Igeltseroak.
 - c) Albaitariak.
 - d) Petrikiloak.
47. *Haurtxoa zenean bularra eman nion, alaba izan ez arren. Bestela esanda:*
- a) Alaba izanda, haurtxoa zenean bularra eman nion.
 - b) Alaba ez izatearren, haurtxoa zenean bularra eman nion.
 - c) Alaba ez izateagatik, haurtxoa zenean bularra eman nion.
 - d) Alaba ez izanagatik, haurtxoa zenean bularra eman nion.
48. *Egi-egia al da esan duzuna? Aukeratu erantzun egokia:*
- a) Bai, alajainkoa!
 - b) Zin dagizut baietz!
 - c) Hitz egiten dizut egia dela!
 - d) Apostu baietz!

49. Zein dago oker?
- a) Oso neurri gogorrak direnez gero, horiek erabakitzea agintariei dagozkie.
 - b) Manifestariek oihu ikaragarriak botatzen zituzten, hau Beirut bailitza.
 - c) Inori ez letorkioke gaizki gogoeta piska bat egitea gertatzen ari denaz.
 - d) Komunari zerion kirats nardagarria sudurretara zetorkion zuzenean.
50. *Goizaldean, ustekabean, mendi gailurretatik...*
- a) eraso zieten.
 - b) erasotu zituzten.
 - c) erasotu zitzaien.
 - d) erasotu zieten.
51. Eskolara ez joatea da.
- a) hutsa egitea
 - b) sasieskola egitea
 - c) piperra egitea
 - d) kale egitea
52. *Gauza guztietan izango nauzue lagun, atsegingarrietan nekagarrietan.*
- a) bai ez
 - b) hala nola
 - c) batean bestean
 - d) bateko besteko
53. Nola irakurtzen da $10:5 = 2$?
- a) Hamar zatiketa bost berdina bi.
 - b) Hamar bostek zatitu berdina bi.
 - c) Hamar zatitu bost bi da.
 - d) Hamar zati bost berdina bi.
54. *Han geratu zitzaigun autoa,...*
- a) porrot eginda.
 - b) ez aurrera eta ez atzera.
 - c) parada ederrean.
 - d) lur jota.
55. Zein da animaliak txikienetik handienera ordenatuta dituen zerrenda?
- a) Zozoa, azeria, ahuntza, harra.
 - b) Azeria, harra, ahuntza, zozoa.
 - c) Harra, zozoa, azeria, ahuntza.
 - d) Ahuntza, harra, zozoa, azeria.

56. *Azkenean, trenez itsasuntziz abiatu ziren.*
- a) baizik
 - b) barik
 - c) baizik eta
 - d) baino
57. *Sar naiteke? Aukeratu erantzun egokia.*
- a) Nola ez, ba!
 - b) Jakina baietz!
 - c) Seguru!
 - d) Horixe agian!
58. Zein da egokiena?
- a) Astelehenetan, institututik atera ondoren, ingelesa ikastera noa.
 - b) Axularrek Sarako Eskola sortzen du eta 1643an *Gero* idatziko du.
 - c) Alazne ez da oso ona andereño bezala.
 - d) Hegoaldeko herrien pobrezia betiko moduan dirau, inork konpondu gabe.
59. *Ez dakizu nolako arkakusoak geneuzkan koartelean!*
- a) Hala-nolako arkakusoak!
 - b) Haiek arkakuso puska!
 - c) Nolanahiko arkakusoak!
 - d) Hala-holako arkakusoak!
60. *Norbait behar baduzu, Albertok lagunduko dizu.* Bestela esanda:
- a) Norbait behar izanez gero, Albertok lagunduko dizu.
 - b) Norbait behar izatearren, Albertok lagunduko dizu.
 - c) Norbait behar izanda gero, Albertok lagunduko dizu.
 - d) Norbait behar izandakoan, Albertok lagunduko dizu.
61. Ibaietan bizi den suge gisako arraina, azal likin labankorra duena:
- a) Amuarraina.
 - b) Sugegorria.
 - c) Zizarea.
 - d) Aingira.
62. Adierazi ondoko hitzetatik euskara batuaz idazteko zein ez den egokia.
- a) Borroka.
 - b) Arkitekto.
 - c) Ipuin.
 - d) Zihur.

63. Zein dago oker?
- a) Euria gogotik ari du hemen.
 - b) Euri asko dugu gaur.
 - c) Erruz ari du euria gaur.
 - d) Euria zarra-zarra ari du gaur.
64. egositako ogia oso gozoa da.
- a) Esnean
 - b) Esnez
 - c) Esnearekin
 - d) Esnetan
65. *Alargunduz geroztik beltzez jantzita ibiltzen da.*
Ondokoetariko bat ez da esanahi berekoa: zein?
- a) Alargundu zenez geroztik beltzez jantzita ibiltzen da.
 - b) Alargundu denetik beltzez jantzita ibiltzen da.
 - c) Alargundu eta gero beltzez jantzita ibiltzen da.
 - d) Alarguntzerakoan beltzez jantzita ibiltzen da.
66. Zerbait ematean, zein ez da egokia?
- a) Eutsi!
 - b) Eduki!
 - c) Hartu!
 - d) Tori!
67. *Baliteke datorren urtean zorte hobea...*
- a) izatea.
 - b) izaterik.
 - c) edukiko dugula.
 - d) izan dezakegula.
68. Komen erabilerari dagokionez, zein da egokien idatzitako esaldia?
- a) Nire ustez gure herrian, ikusten dugun egoera sozial eta politikoa txarra da.
 - b) Nire ustez, gure herrian, ikusten dugun egoera sozial eta politikoa, txarra da.
 - c) Nire ustez, gure herrian ikusten dugun egoera sozial eta politikoa txarra da.
 - d) Nire ustez gure herrian ikusten dugun egoera sozial eta politikoa, txarra da.

69. *Baso hartako haritzak ez dira txikiak! Aukeratu erantzun egokia:*
- Ez, ez dira petralak!
 - Ez, ez dira noranahikoak!
 - Ez, ez dira tamainakoak!
 - Ez, ez dira makalak!
70. *Nekez zituen praka zaharrak, bereziki belaunondotik zeudenak.*
- jasatzen apurtutak
 - jasatzen apurtuak
 - jasaten apurtutak
 - jasaten apurtuta
71. *Zer esan nahi du honako esaerak? Auzoko behiak errapea luze.*
- Urruneko behiek ez dutela itxura onik.
 - Gauzei zer diren ez zaiela lehen ikusian antzematen.
 - Inorenak norberarenak baino hobe ematen duela.
 - Gure albokoa gu baino eskuzabalagoa dela beti.
72. *Munduaren berri jakitea ez da zaila egunero egunkariak irakurtzen badituzu.*
- non eta
 - zer eta
 - baldin eta
 - harik eta
73. *Eta edan nuen basokada handi bat ardo.*
- danba-danba
 - dzanga-dzanga
 - zarra-zarra
 - dinbi-danba
74. *Etor lehenbailehen, eta amai bere lana.*
- dadin dezala
 - beza bedi
 - dela duela
 - dadila dezala
75. *Haritzaren, artearen eta kideko zuhaitzen fruitua:*
- Ezkurra.
 - Urra.
 - Morkotsa.
 - Artega.

76. Zein da zuzena?
- Zazpi gauz desberdin erosi du.
 - Zazpi gauza desberdin erosi ditu.
 - Zazpi gauza desberdinak erosi ditu.
 - Zazpi gauz ezberdin erosi ditu.
77. *Zuk, orain, eutsi daukazu eta...*
- hurrengoan hobeto!
 - auskalo!
 - gero gerokoak!
 - agur Zuberora!
78. Zein dago oker?
- Bi anaiok ez gara berdinak, ezta hurrik eman ere!
 - Lan horretan lkerrek ez dizu lagunduko, ezta gutxiagorik ere!
 - Zorionsua izateko ez dut zure beharrik, ez horixe!
 - Zurea zuretzat eta nirea erdi bana? Baita zera ere!
79. *Hartu betaurrekoak, gidatu behar izanda ere.*
- Agian gidatu egin beharko duzu eta hartu betaurrekoak.
 - Gidatu behar duzunez, hartu betaurrekoak.
 - Nahiz eta gidatu beharrik ez izan, hartu betaurrekoak.
 - Hartu betaurrekoak, gidatu egin beharko duzu eta.
80. *Kristala oso erraz hausten da, delako.*
- hauskorra
 - hauskaitza
 - hauskarria
 - hausterrea
81. Aukeratu zuzena.
- Honantz etorri ziren.
 - Honuntza etorri ziren.
 - Honuntz etorri ziren.
 - Honantz etorri ziren.
82. Esaldi hauetako batean komaren erabilera ez da zuzena. Zeinetan?
- Galdu ez den ohitura hau mendez mende iritsi da gure egunotaraino.
 - Nik, behintzat, ez dut inoiz maite izan eta ez dut inoiz maite izango.
 - Bihar ez gara etorriko baina etzi, berriz, bai.
 - Nire lagunaren kasuan, ostera, ez da gauza bera gertatzen, inondik ere ez.

83. Esaldi hauetatik zein da zuzena?
- a) Horrelakoxea da mundua, eta ez dago zer egiterik!
 - b) Ez uste ni kanpoan utziz partidua irabaziko duzuen!
 - c) Liburua ikusiz gero, ale bat erostea eskatu zion Elisari.
 - d) Beldur naiz ez ote den atsekaberen bat gertatuko egunen batean!
84. *Emaitza ona izan da hori, gero!*
- a) Nolabaitekoa!
 - b) Sekulasantakoa!
 - c) Betierekoa!
 - d) Bai, egundokoa!
85. Lurrak bigunduz eta pisuaren pisuz gertatzen den lur irristadura:
- a) Lugarria.
 - b) Luebakia.
 - c) Lurrikara.
 - d) Lubizia.
86. *Azken urteetan izandako partehartzerik handiena jazo zen igandeko bozketan. Zein ez da baliokidea?*
- a) Igandean izandako hauteskundeetan botu-emaile askok hartu zuen parte.
 - b) Azken urteetan baino jende gehiagok hartu zuen parte igandeko bozketan.
 - c) Igandeko bozketan parte-hartzailerik handienak elkartu ziren.
 - d) Inoiz baino partehartze handiagoa izan zen igandeko bozketan.
87. *Eta orain hor dabil, galdua,...*
- a) ezer egin ezik.
 - b) zer egin ez dakiela.
 - c) zer egiterik ez daukalarik.
 - d) zer egiterik jakin gabe.
88. Adina gora-behera, gogor Jonek.
- a) ari du
 - b) dirau
 - c) datza
 - d) darabil

89. Aukeratu erantzun egokia.
Hori esan baduzu, bete egin beharko duzu, alegia...
- zagozkio zeure hitzari.
 - gorde zeure hitza.
 - eutsi esanari.
 - esanak esan.
90. *Gau osoa egon antzinako oroitzen.*
- diteke denborak
 - leiteke denporak
 - daiteke denborak
 - diteke denporak
91. *Gurekin haserretu , jo gintuzten.*
- ez ezik ere egin
 - ezik ere
 - ezean izan
 - gabe ere
92. *Haren parean jarri eta, , bi muturreko eman nizkion!*
- di-da
 - dilin-dalan
 - zirt-zart
 - danga-danga
93. *Bibolina jotzen entzungo harriturik geldituko...*
- bazenio zinateke.
 - bazenion zinen.
 - bazenioke zinateke.
 - bazenio zinen.
94. *Euria gora-behera, mendi tontorreraino joango gara. Zein da baliokidea?*
- Euriak arazoak sortuko dizkigunez, tontorreraino joango gara.
 - Euria goitik behera egingo digu tontorrerako bidean.
 - Euria izan edo ez izan, tontorreraino joango gara.
 - Euririk egiten ez badu, tontorreraino joango gara.
95. *Ez dizudala nahikoa ordaindu?...*
- Esan, gero!
 - Esatea ere!
 - Hori esan behar!
 - Horixe esanda ere!

96. Puntuazio markei dagokienez, zein da zuzen idatzitako esaldia?
- a) Harrigarria! Nork eta zuk, nire anaia zaren horrek, hori esatea ere!
 - b) Harrigarria! Nork eta zuk, nire anaia zaren horrek hori esatea ere?
 - c) Harrigarria; nork, eta zuk nire anaia zaren horrek, hori esatea ere.
 - d) Harrigarria, nork eta, zuk nire anaia zaren horrek hori esatea ere!
97. *Ai! Min egin didazu. Aukeratu erantzun egokia.*
- a) Barka, on eginez izan da.
 - b) Barkatu, ez dizut nahita egin.
 - c) Behintzat ez da jakinaren gainean izan.
 - d) On eginaren partez izan da, barkatu.
98. Zein da zuzena?
- a) Ez dakigu nola erantzun hemen egin zaizkigun galdera batzuri.
 - b) Bi mahai daukat: bata ez dauka hankarik, eta beste bata herren dago.
 - c) Ibai batzuetako ura kutsatuta dago eta guztiz arriskutsua da bertan bainatzea.
 - d) Herriko etxeren batetan emango dizute ostatua gaurko gaua igarotzeko.
99. *Altzairutegi berria laster irekiko berri pozgarria entzun dugu.*
- a) denaren
 - b) delaren
 - c) den
 - d) delakoaren
100. *Futbolari fina da, langile hutsa:...*
- a) jokaldia nolakoa, bera halakoa.
 - b) baloirik baloi ibiltzen da beti.
 - c) baloia dagoen lekuan, bera ere.
 - d) baloia non, bera han.

1.5. 1996/9/14

ENTZUTEZKO ULERMENA

LEHEN ATALA

1. Noiztik da Carrera jauna sendagile-buru?
 - a) 1995etik.
 - b) Zaragozatik etorri zenetik.
 - c) 1985. urtetik hona.

2. Nolatan sartu zen Donostiako seminarioan?
 - a) Bere erabakiz, gustuko zuelako.
 - b) Ez berak hala erabakita.
 - c) Horixe zelako bere ametsa.

3. Zenbat onkologiko daudela dio?
 - a) Euskal Autonomia Erkidegoan, Donostiakoa; Espainian, beste batzuk.
 - b) Estatu osoan Donostiakoa bakarrik.
 - c) Donostiakoa besterik ez, onena ez bada ere.

4. Minbiziaren tratamenduan, nolako espezializazio maila hobesten du Carrera jaunak?
 - a) Handia: mota bakoitza dagokion sailak bakarrik hartu behar du.
 - b) Sail guztiek batera eman behar dute diagnostikoa.
 - c) Nahiz eta sail berezi batekoek ardura hartu, besteek ere parte hartu behar dute.

5. Berdin jasaten al dute minbizia gizonezkoek eta emakumezkoek?
- a) Bai, minbizi mota berekoak eta maiztasun berberaz.
 - b) Emakumeek biriketako gehiago, aspaldi honetan gehiago erretzen dutelako.
 - c) Ez, sexuen arabera aldeak daude.

BIGARREN ATALA

6. Zelako eragina du tabakoak biriketako minbizian?
- a) Eragin zuzena gizonengan bakarrik.
 - b) Ez du oraindik batere eraginik emakumeengan.
 - c) Eragin handiagoa du gizonengan, hauek lehenagotik direlako erretzaile.
7. Minbizi gaisoek derrigorrez egon behar dute ospitalean?
- a) Bai, tratamendu gogorak jasaten baitituzte.
 - b) Ez denek; gero eta gehiagok hartzen dute tratamendua ospitaletik kanpo ere.
 - c) Bai, baina lekurik ez dago eta etxera bidali behar izaten dituzte.
8. Zein maila teknologiko du Donostiako Onkologikoak?
- a) Puntakoa.
 - b) Eskasa: ez dago ondo horniturik.
 - c) Egokia, teknikan gaurkoturik egotea zaila den arren.
9. Onkologiko bakarra izatea arazo handia da jende guztia tratatzeko?
- a) Ez, ospitale guztietan minbizi unitatea dago-eta.
 - b) Bai, distantziak arazo nahiko handiak sortzen ditu.
 - c) Premiazko kasuetan bakarrik.
10. Nolako lan-ordutegia dute Onkologikoko medikuek?
- a) Txandakako zerbitzua.
 - b) Gehienek ordutegi osoa bertan egiten dute.
 - c) Gehienek euren ordutegia bertako lanarekin osatzen dute.

HIRUGARREN ATALA

11. Zein da minbiziaren desmitifikazioaren arrazoia?
- a) Senda daitekeela jakitea.
 - b) Bataz beste izan duen gutxitzea.
 - c) Gaitzari buruz gehiago jakitea.

12. Zein da HIES eta minbiziaren arteko funtsezko desberdintasun bat?
 - a) Bata kutsakorra da eta bestea ez.
 - b) Bata naturala da eta bestea artifiziala.
 - c) Bata gaitz zaharra da; bestea, ostera, berria.

13. Zein gaitzi helduko zaio lehenago sendabidea: HIES gaitzari ala minbiziari?
 - a) Biei batera.
 - b) Minbiziari.
 - c) HIES gaitzari.

14. Zenbatetan gertatzen da gaiso batek HIES eta minbizia batera edukitzea?
 - a) Inoiz edo behin.
 - b) Sarritan.
 - c) Sekula ere ez.

15. Nolako eragina du faktore genetikoak minbizian?
 - a) Oso garrantzitsua.
 - b) Gehienetan ez du batere eraginik.
 - c) Ikertzeko dago oraindik.

ENTZUTEZKO ULERMENAREN AMAIERA

16. Zein dago oker?
- Hau da bai sagarra!
 - Zein beroa dago ura!
 - Hori da presa, gizona!
 - Hura zen hura jai ederra!
17. *Gurean bai, baina ez dugu horrela jokutzen.*
- besteen etxetan
 - besteren etxean
 - bestearen etxean
 - besteren etxetan
18. *Amamari esango , zer irudituko...*
- bagenio litzaioke?
 - bagenion zaion?
 - bagenion zitzaion?
 - bagenioke zitzaiokeen?
19. *Zaude lasai, neuk kontu istorio hori.*
- ahal dizut
 - diezazuket
 - nizuke
 - diezadakezu
20. *Izan al zineten atzoko jaialdian? Zein ez da zuzena?*
- Bai, horixe!
 - Izango ez ginen, ba!
 - Jakina!
 - Bai egon ginela!
21. 'Zuhaitzetatik eroritako hosto ihartuen multzoa':
- Ganbela.
 - Orbaina.
 - Orbela.
 - Orria.
22. Hitzen ordenari dagokionez, zein da zuzena?
- Etxera etorri dena gizon bat da sonbreru batekin.
 - Gure elkarteak euskararen alorrean egiten duen lana oso onuragarria da.
 - Gobernuaren politika gizarte ongizateari buruz ez da oso egokia.
 - Oteizak argitaratu duen liburua euskararen jatorriaz asko saldu da.

23. *Bat ez, denak egin zure...*
- a) ditzakegu laguntzarekin.
 - b) dezakegu laguntzaz.
 - c) ditzazkegu laguntzarekin.
 - d) dezakeguz laguntzagaz.
24. *Gure txakurra kamioiak harrapatu ez duenean! Aukeratu erantzun egokia.*
- a) A, harrapatzea nahi zenuen!
 - b) Eta orain zu txakurrik gabe.
 - c) Justu-justu atera da, hortaz!
 - d) Lapurra halakoa!
25. *..... jende gehiago bildu, hobeto pasatuko dugu.*
- a) Zenbat eta hainbat eta
 - b) Orduan eta orduan eta
 - c) Gero eta hainbat
 - d) Gero eta gero eta
26. *Laguna etortzekoa zen, baina ez da etorri.*
Nola esango zenuke modu adierazkorrean?
- a) Etorriko zela baina, bai zera!
 - b) Etorriko zela baina, bai horixe!
 - c) Etorriko zela, noski baietz!
 - d) Etorriko zela, noski ezetz!
27. *Esaldi hauen artean, zein da zuzena?*
- a) Hango baserritarrak, nola gizon nola emakume, oso zintzoak ziren.
 - b) Sukarraz zein sukarrrik gabe, bihar goizean lanera etorri!
 - c) Jende ugari etorri zen, emakumeak nola, gizonak ere.
 - d) Bilbon antzerki-talde asko daude; Gasteizen, aitzitik, baita ere.
28. *Ez dut ariketa bakar bat ere egin.* Aukeratu erantzun egokia.
- a) Alfer-alferra!
 - b) Alfer-alferrik!
 - c) Alferra halakoa!
 - d) Nolako alferra!
29. *Ondoko zerrendetatik batek tokiz kanpoko hitz bat darama. Zein da zerrenda hori?*
- a) Arotza, postaria, igeltseroa, errementaria.
 - b) Gogoratu, oroitu, alferrikaldu, gomutatu.
 - c) Apurtu, hautsi, txikitu, txirtxildu.
 - d) Kalea, auzunea, karrika, hiria.

30. Zeregin asko, lan asko dagoela edo egiteko dela adierazteko:
- a) Leporaino lan.
 - b) Behar beste lan.
 - c) Galtzak bete lan.
 - d) Altzo bete lan.
31. Zein dago oker?
- a) Jainko maiteak begira gaitzala gaitz horretatik!
 - b) Zein tristea da zahartzean lagunik ez izatea!
 - c) Egon hor, ez zaitez mugi, gero!
 - d) Orduan bai joaten zela jendea erromerietara!
32. *Hainbeste kontu eta azkenean ez dira joan.* Aukeratu erantzun egokia.
- a) Bai, horixe!
 - b) Zer arraio!
 - c) Banengoen, ba, ni!
 - d) Esan banuen esan!
33. *Luisek, bere gaztean, maila ona erakutsi zuen.* Edo beste era batera:
- a) Ondo moldatu zen oso gaztea delako.
 - b) Oso gaztea denez, ondo moldatzen da.
 - c) Oso gaztea izanda ere, ondo moldatu zen.
 - d) Maila ona erakutsi zuen gazteagoa zenean.
34. Zein dago oker?
- a) Zer deritzezue Europar Batasunak arrantza alorrean hartu dituen erabakiei?
 - b) Antzinateko heroiak oro hilik dautza, haien garaipen distiratsuak bezalaxe.
 - c) Gezurra esan baneza ere, haiek ados leudeke.
 - d) Egunkariek gaur dakarzten albisteak ezin daitezke ilunagoak izan.
35. Nola irakurtzen da honako data hau? *1876-2-20*.
- a) Mila zortzirehun eta hirurogeta seiuko otsailak hogeia.
 - b) Mila eta zortzirehun eta hirurogeitamaseiko otsaileko hogeia.
 - c) Mila zortzirehun eta hirurogeita hamaseiko otsailaren hogeia.
 - d) Mila zortzirehun eta hirurogeita hamaseiaren urtarrilaren hogeia.
36. Zein dago oker?
- a) Ze pena ez zaren etorri!
 - b) Horrek asko daki, gero!
 - c) Lekuko onak, alafede!
 - d) Nik egin dut egitekoa!

37. *Eserleku asko zegoenez, lehenik aulki batean jezarri ziren eta gero...*
- beste batean.
 - bestean.
 - bestetan.
 - beste zenbaitean.
38. *Garesti antzekoa da erostekotan zabiltzan autoa. Zein da baliokidea?*
- Garesti tankera du erostekotan zabiltzan autoak.
 - Garestia baino garestiagoa da erosteko asmoa duzun autoa.
 - Garesti xamarra da erosi nahian zabiltzan autoa.
 - Nahiko garestia da zabiltzan autoa.
39. *..... hiru urte zuen etxean izan Gabonak pasatzen.*
- Dituela ginen
 - Baditu ginela
 - Bada ginenetik
 - Badira ginela
40. *Bihar pilota-partidua jokatuko dute Koldok eta Felixek.*
- Baietz Koldok irabazi!
 - Bai Koldok irabaziko duela!
 - Bai irabazten duela Koldok!
 - Baietz Koldok irabaziko duela!
41. Zein ez da landarea?
- Gorostia.
 - Elorria.
 - Txilarra.
 - Ezkata.
42. *Baina, ume, ez egin negarrik horregatik; ez zaitez izan.*
- mizkina
 - setatsua
 - petrala
 - mainatia
43. *Jakin badaki, ez zaio...*
- baino igarritzen.
 - baina igartzen.
 - baino igartzen.
 - bainan igarten.

44. *Ixabel, zatoz gurekin. Aukeratu erantzun egokia.*
- a) Ezin dut, hau bukatu behar dut-eta.
 - b) Ezin dut, hau bukatu behar dudala.
 - c) Ezin dut, hau bukatu beharrez.
 - d) Ezin dut, hau bukatzeko.
45. *Barruan daukazun guztia kontatu ez zara lasai geratuko.*
- a) ezean
 - b) baizik
 - c) ez ezik
 - d) beharrean
46. Tabernan bazkaltzen ari direnei esateko zein da egokia?
- a) Ondo egin!
 - b) On egin!
 - c) Ongi bazkaldu!
 - d) Ona egin!
47. Ondoko hitzetako batek ez du hatxerik behar. Zeinek?
- a) Zihur.
 - b) Hurbil.
 - c) Haize.
 - d) Hurrengo.
48. *Anari oparia eramatera noa. Zein erantzun ez da zuzena?*
- a) Urteak bete al ditu?
 - b) Bere zorionak al dira?
 - c) Urtebetetzea al du?
 - d) Bere urtemuga al da?
49. Zein ez da gaisotasun baten izena?
- a) Elgorria.
 - b) Lukurreria.
 - c) Txakurreztula.
 - d) Minbizia.
50. *Euskal Herrian ekonomia gaizki dago, baina Alemanian ere ez dago hobeto.*
- a) Han ere zakurrak oinutsik.
 - b) Ez dago gaitzik on gaberik.
 - c) Askoren gaitza zozoen poza.
 - d) Urrutiko eltzea urrez, bertara joan eta lurrez.

51. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?
- Han bazegoen zuhaitz bat, zeinen adarretatik izarrak eskegitzen baitzi-
ren.
 - Ongi damutu da neska horrekin ez ezkontzearren.
 - Erabaki bat hartu behar da, zeren abere hori hiltzear dago.
 - Hain zegoen mozkortuta, ez zuela etxerako bidea aurkitu ere.
52. *Aizu, badakizu? Nekaneren koinatak istripua izan omen du.*
Zein erantzun ez da egokia?
- Zaude ixilik!
 - Besterik ez zuen behar gaixoak!
 - Zorioneko istripuak!
 - Zorionekoa bera!
53. *Prestatu eta ikasi beharra dago erronkari behar legez erantzuteko.*
- Beharrezkoa da prestatzea istiluaren aurrean erantzuteko.
 - Ikasi beharra dago legetari erantzuteko.
 - Prestatu beharra dago desafioari behar den bezala aurre egiteko.
 - Ikasi beharra dago erronkari legearen barruan erantzuteko.
54. *Oraindik ere ez dakit joango...*
- banaiz.
 - banaizen.
 - naizen.
 - naizenik.
55. Zein da zuzena?
- NATOren etorkizuna aztertuko dute Madrilen.
 - NATO-ren etorkizuna aztertuko dute Madridenten.
 - NATOaren etorkizuna aztertuko dute Madrid-en.
 - 'N.A.T.O.ren' etorkizuna aztertuko dute Madril-en.
56. Zein da zuzena?
- Zenbat eta gehiago ekarri, arren!
 - Ahalik eta azkarrago etorri!
 - Ekarri hori al bait arinen!
 - Ekarri duguna ezin hoberena da!
57. *Egia esan, benetakoa dirudi, nahiz eta faltsua dela...*
- hori jakin.
 - horrek dakigu.
 - horrek badakigu ere.
 - horrek jakin.

58. *Euskaltzaindiak, Hego Euskal Herriko erakundeen laguntza ez ezik, Iparraldekoena ere jasoko bide du.*
- Zalantzarik gabe denen laguntza izango du.
 - la ezinezkoa da guzti-guztien laguntza lortzea.
 - Badirudi guztien laguntza jasoko duela.
 - Ukatu egin zaio Iparraldeko erakundeen laguntza.
59. Zein dago oker?
- Nire ahizpak, mezarara joatez gain, bete-betean sinesten dute Jainkorengan.
 - Zenbait sailletako langileek ez dute grebarik egin nahi izan.
 - Ez dut uste merezi duenik horren bidaia luzea egitea, bakarrik bi egunetarako.
 - Hiru kiloko haurra eduki dute.
60. *Atean jo eta jo aritu naiz, baina ez da inor irten. Zein da erantzun zuzena?*
- Noski, etxea aldatu dute.
 - Noski, etxez aldatu dute.
 - Noski, etxea aldatu dira.
 - Noski, etxez aldatu dira.
61. *Elurra egin zuen biharamunean, etxe aitzina zuri-zuri agertu zen. Zein dira baliokideak?*
- bezperan aurrealdea
 - bat-batean guztia
 - guztietan zaharra
 - hurrengo egunean aurrea
62. *Adarra jo nahi digute, baina ez diegu barre egiten utziko.*
- gure lepotik
 - gure gain
 - gure kontu
 - gure bizkar
63. Zein da zuzena?
- Esan digute asterketarako hemeretzi orrialde sartuko direla.
 - Esan digute azterketarako emeretzi horrialde zartuko direla.
 - Esan digute azterketarako hemeretsi horrialde sartuko direla.
 - Esan digute azterketarako hemeretzi orrialde sartuko direla.

64. Hauetatik zein da emakumezkoa?
- Aitaginarreba.
 - Erraina.
 - Suhia.
 - Neba.
65. *Hango mendi gailurra ikusteko ikusmenik ez dauka edonork.*
- behar duzun
 - behar adinako
 - hainbat
 - bezala
66. Ezaxola adierazteko:
- Hamaika ardura dit!
 - Piper bat axolatzen nau!
 - Axola gutxi niri!
 - Batek jakin!
67. *Atzo eta handik joan ginen.*
- | | | |
|----------------|-----------|------------|
| a) Gipuzkoatik | Bizkaiara | Nafarrora |
| b) Gipuzkotik | Bizkaira | Nafarrora |
| c) Gipuzkoatik | Bizkaira | Nafarroara |
| d) Gipuzkotik | Bizkaiara | Nafarroara |
68. *Hasi al da kantaldia? Zein da erantzun zuzena?*
- Ez, lauretan hasten da.
 - Ez, lauretan hasi egingo da.
 - Ez, lauretan hasiko da.
 - Ez, lauretan hastera doa.
69. Ondoko zerrendetatik batek tokiz kanpoko hitz bat darama. Zein da zerrenda hori?
- Amuarraina, izokina.
 - Txitxarroa, lupia.
 - Legatza, hegaluzea.
 - Izurdea, basurdea.
70. *Jan eta jan besterik ez du egiten denbora guztian.*
- Sekulako sakea dauka.
 - Tripandi ederra da.
 - Sabelzorriak ditu.
 - Mahuka ona du.

71. Zein dago oker?
- a) Bizitzan zerbait izatekotan, hobe duzu piska bat zuzendu zeure burua!
 - b) Hobe da ezkongai geratzea ezen ez gaizki ezkontzea.
 - c) Etxetik alde egin du, baina orain ez dauka non bizitzerik.
 - d) Horiek ez dute urrats bat ere emango, non eta ez den guztiz beharrezkoa.
72. *Ikusi al duzue etxe berria? Zein da zuzena?*
- a) Ederra benetan!
 - b) Zein ederra da!
 - c) Bai ederra dela!
 - d) Zelako ederra!
73. *Azienda gizentzeko hormonon erabilera aztertuko dute batzarrean.*
- a) Ogasun Saila nola indartu aztertzeko bilera egingo dute.
 - b) Abereak gizentzeko erabiltzen diren hormonak aztertuko dituzte bileran.
 - c) Abereak gizentzeko hormonak nola erabiltzen diren izango da bilerako gaia.
 - d) Ogasun sailean hormonak onargarriak diren ala ez erabakiko da.
74. Zein da zuzena?
- a) Andonik neskei barre egiten die.
 - b) Andoni nesketaz barre egiten du.
 - c) Andoni neskeei parre egiten die.
 - d) Andonik neskatatze farre egiten du.
75. Puntuazio zeinueni dagokienez, zein da zuzen idatzitako esaldia?
- a) Bestalde, nik ez dut esan, sinesten ez dudarik, baizik eta, ez nagoela seguru.
 - b) Bestalde nik, ez dut esan sinesten ez dudarik baizik eta ez nagoela seguru.
 - c) Bestalde nik ez dut esan sinesten ez dudarik; baizik eta ez nagoela seguru.
 - d) Bestalde, nik ez dut esan sinesten ez dudarik, baizik eta ez nagoela seguru.
76. *Lagunekin parrandan ibili eta etorri zitzaigun etxera.*
- a) hirurak jota
 - b) hiruretan jota
 - c) hiruretan pasa
 - d) hiruretatik pasa

77. *Ezagutu eta berehala ginen.*
- lagun egin
 - lagunak bihurtu
 - lagunak izan
 - lagunetan bilakatu
78. *Demagun ustezko erailea atzeman dutela.*
- Eman diezaiogun erailearen atzemateari duen garrantzia.
 - Ematen du eraile posiblea igarri dugula.
 - Suposa dezagun susmagarrienari igarri diotela.
 - Egin dezagun kontu hiltzaile izan daitekeena harrapatu dutela.
79. Zein da zuzena?
- Ez du inolako bazkiderik hitz egin gaurko bileran.
 - Ez dakar onik azken orduan presaka ikasi nahi izateak.
 - Hainbat jendeari bost axola zaio hirugarren munduko pobrezia.
 - Gazteen erdiak ez dute lanik.
80. *Gaur ere gosaldu gabe etorri naiz. Zein erantzun ez da egokia?*
- Lehenago jaikitzea zenuen!
 - Goizago jaikitzea aski zenuen!
 - Bazen garaia!
 - Ez da izango!
81. Aukera ezazu sinonimo sail bat, azpimarraturiko berbak ordezkatzeko:
Erabat txunditurik gelditu zen danbada entzutean. Zein dira zuzenak?
- hondoraturik krisketa
 - harriturik leherketa
 - sinesturik zurrumurrua
 - apurturik berbaroa
82. *Ba al dakizu non dagoen Anton? Aukeratu erantzun egokia.*
- Baten batek badaki non den!
 - Norbaitek badaki non den!
 - Auskalo non den!
 - Arraioa non den!
83. Zein dago oker?
- Eta zuri zer doakizu kontu horretan?
 - Hasi baino lehen gauza bat esan behar dizuet.
 - Inoiz baino hotz handiagoa egin du alderdi hoietan.
 - Etzi azterketa izango dugu; hortaz, ezingo gara zuekin egon.

84. Ondoko zerrendetatik batek tokiz kanpoko hitz bat darama. Zein da zerrenda hori?
- a) Orrialdea, aurkibidea, hitzaurrea, izenburua.
 - b) Sagarra, gerezia, arana, urra.
 - c) Etxea, habea, ataria, mandioa.
 - d) Aditua, ikasia, liskartia, jakintsua.
85. *Itsasuntzi bat bistaratu berria algaraz hartu zuten irlako naufragoek.*
- a) zelako
 - b) zenaren
 - c) zelaren
 - d) zelakoaren
86. Zer esan nahi du? *Ogi gogorrari hagin zorrotza.*
- a) Arazoei aurre egin behar zaiela kementsu.
 - b) Den-denetik jaten ikasi behar dela.
 - c) Gauza txarreatatik protesta egiten ikasi behar dela.
 - d) Esperientzia guztietatik ikasten dela.
87. Zein da zuzena euskara batuaz?
- a) Estudiatu gabe ere aproba ditzazkezu azterketa horiek.
 - b) Uste det neuk ere eramango detela txamarra lodia.
 - c) Andonik erosi ei zituzan otartekoak.
 - d) Launako taldeak ere osa genitzake.
88. *Sukaldean sartu eta ez du, ba, haurra mahai gainean aurkitu!*
Aukeratu erantzun egokia.
- a) Zer diozu, ez duela haurra aurkitu?
 - b) Zer diozu, haurra ez zegoela mahai gainean?
 - c) Zer diozu, haurra mahai gainean zegoela?
 - d) Zer diozu, espero zuen lekuan aurkitu duela haurra?
89. Autoa lapurtu dizutela-eta, non aurkeztuko duzu salaketa?
- a) Epaietan.
 - b) Bidegintzan.
 - c) Udaltzaingoan.
 - d) Ogasun Sailean.

90. Zer esan nahi du ondoko esaldi honek?
Amoltsuki eskua eman zion igorritako zalgurditik arranditsu jaisteko.
- a) Zarataka agurtu zuen zalditik jaitsi zenean.
 - b) Batere zaratarik egin gabe, denen isilean gurditik jaisten lagundu zion eskuaz.
 - c) Maltzurki lagundu zion, susmorik ez jasotzeko moduan.
 - d) Kortesiaez lagundu zion ibilgailutik handikiro jaisten.
91. *Mirenek badaki kontu hori;...*
- a) nik ere.
 - b) nik ere ez.
 - c) nik, berriz, ez.
 - d) nik, ostera, bai.
92. *Itziarrek gaur bukatzea komeni dela esan du. Zein erantzun ez da zuzena?*
- a) Buka dezala berak!
 - b) Bukatzea berak!
 - c) Berak bukatzea aski du!
 - d) Buka beza berak!
93. *Festara joateko eta ahal bezain ondo pasatzeko esan genien.*
- a) Festara joan zitezela eta ahalik eta ondo pasa zezatela esan genien.
 - b) Festara joan zitezela eta ahalik eta ondoen pasa zitezela esan genien.
 - c) Festara joan zitezela eta ahalik eta ondoen pasa zezatela esan genien.
 - d) Festara joan zitezela eta ahalik eta hoberen pasa zezatela esan genien.
94. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?
- a) Zer nahi, huraxe jaten dut beti.
 - b) Mikrolabeek minbizia sortarazten dutelaren zurrumurrua zabaltzen ari da.
 - c) Batek baino gehiago nahi luke zurea bezalako familia edukitzea.
 - d) Hori da nire ametsa, nahiz eta badakit ez dudala inoiz beteko.
95. Nola irakurtzen da $7 \times 5 = 35$?
- a) Zazpi zati bost berdin hogeita hamabost.
 - b) Zazpi gehi bost berdin hogeita hamabost.
 - c) Zazpi bostengatik berdin hogeita hamabost.
 - d) Zazpi bider bost berdin hogeita hamabost.

96. Itzultzailea nor den eta zer itzuli duen jakinda, eta harridura erakusteko:
- Nork eta Aita Bizentek *Kamasutra* euskaratu!
 - Aita Bizentek berak euskaratu du *Kamasutra*!
 - Aita Bizente izan da *Kamasutra* euskaratu duena.
 - Aita Bizente izan bada euskaratu duena *Kamasutra*!
97. Zein da zuzena?
- Intsumisioaz eman duen hitzaldia oso ona izan da.
 - Badakigu hori ez dela energia atomikoaz jendearen iritzia.
 - Ez dut ikusi Errealaren partidua Osasunarekin.
 - Bihar ekarriko dizut Pelloren oparia zuretzat.
98. Zein da zuzena maiuskularen erabilerari dagokionez?
- Euskal Herriko Unibertsitateko fakultate guztietan zabaldu ziren zurrumuru horiek.
 - Gasteizen dago Eusko jaurlaritzaren egoitza.
 - Ni ez naiz Elizara joaten.
 - Bi erabaki hartu zituen Donostiako udalak.
99. Aditz denborari dagokionez, zein da zuzena?
- Bihar etxera etortzen bazara, xake-partida bat egingo genuke.
 - Beharbada, hori da gezurra esatera eraman zaituena.
 - Gaur langabezia litzateke gure gizartearen arazorik larriena.
 - Norbaitek isuna ordainduko ez balu, udaltzainek atxilotu egingo dute.
100. *Hartzen duzun erabakia hartzen duzula, niri...*
- hor konpon!
 - bost axola!
 - utikan!
 - auskalo!

2. IDATZIZKO AZTERKETAK *

* Atal honetan azken bi urteotako, hots, 1995-96etako, idatzizko azterketak eta, horiekin batean, goiz berean bakoitzaren aurretik egin ohi den entzutezko ulermen-ariketa jasotzen dira.

2.1. OHARRAK

Hona hemen 1995 eta 1996ko idatzizko azterketetan azterketariei jarri zitzaizkien oharrak.

Lehen ariketa, ahozko ulermena, burutu ondoren, 2 ordu eta 20 minutu dituzu idatzizko azterketa hau burutzeko. Libre zara denbora nahi duzun moduan banatzeko eta azterketa nahi duzun ordenan egiteko, baina gogoan izan aztertzaileek aurrez pentsatutako denbora eta puntu-banaketa:

Azpiatala	Gehienezko puntuazioa	Gutxienezko puntuazioa	Proposatutako denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	—	—	3 min.
1. Idazlana: idazlana ortografia	25 5	15 1	55 min.
2. Esaldiak berridatzi	5	2,5	25 min.
3. Sinonimoak eman	5	2,5	
4. Irakurmena	10	5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	—	—	12 min.
Denera	50	29	2 or. 20 min.

Idatz ezazu garbi eta tintaz: aztertzaileek ez dute zuzenduko irakurri ezin dena. Ariketa guztietan atera behar duzu gutxienezko puntuazioa azterketa gainditzeko.

2.2. 1995/5/20

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Euskal herritarrei buruz zer dio?
 - a) Arabarrak bizkaitarren eta gipuzkoarren antzekoak direla.
 - b) Oraingo lanaren ondoren donostiarrak erakutsiko dizkigula.
 - c) Gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ez direla berdinak.
 - d) *Verde* liburuan erakutsiko digula, besteak beste, arabarrak zer diren.

2. Schommer-ek kubarrak ezagutu nahi izan ditu. Nola?
 - a) Euskaldunekin batera argazkiak eginez.
 - b) Tartekorik gabe.
 - c) Jende xeheak zer pentsatzen zuen kontuan izan gabe.
 - d) Herri horrek gu nola ikusten gaituen erakutsiz.

3. Nolako lana egingo luke Schommer-ek gatazkak dauden leku batean?
 - a) Ahalik eta fidelena izango litzateke.
 - b) Hango errealitatearen berri ematen ahaleginduko litzateke.
 - c) Bere ikuspegi pertsonala eskainiko luke.
 - d) Fotokopien antzeko argazkiak egingo lituzke.

4. Zergatik dio Madrilen ez gaituztela ongi ikusten?
 - a) Independentzia nahi dugulako.
 - b) Katalanek eta galiziarrek bezala jokutzen dugulako.
 - c) Nahi dugunari nola erantzun ez dakitelako.
 - d) Gure artean ezjakin asko dagoelako.

5. Zein jarrera du Schommer-ek Guggenheim museoaren aurrean?
- a) Erabat aldekoa.
 - b) Aldekoa baina kritikoa.
 - c) Gaitzetsi egiten du baina ez da erabat aurkakoa.
 - d) Aurkakoa.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Zein dira Schommer Fundazioaren asmoak?
- a) Erakustea eta irakastea.
 - b) Profesionalei konpetentzia egitea.
 - c) Sortu, erakutsi eta saltzea.
 - d) Schommer-en eta beste artisten lanak trukitzea.
7. Arantzazuko apostuluez zer dio Schommer-ek?
- a) Arteak zer izan behar duen erakusten dutela.
 - b) Akats handi bat izan zirela.
 - c) Ez zirela adierazpide berria izan.
 - d) Ustezko iraultza zekartela, ez berritzailea.
8. Bere ustez Castrok huts egin du; zergatik dio hori?
- a) Herriaren alde jokatu ez duelako.
 - b) Etengabeko aldaketari ekin ez diolako.
 - c) Herritarren kultur beharrei erantzun ez dielako.
 - d) Bere agintaldian aurrerakuntzarik izan ez delako.
9. Nolakoa da Gasteiz gaur?
- a) Diru inbertsioak aldendu egin dira.
 - b) Hiriburu izateak ez dio onik ekarri.
 - c) Azpiegitura eta ekipamendutan aurrera egin du.
 - d) Kirol alorrean eta kulturean lehen bezala dago.
10. Schommer-en argazkilari hastapenak nolakoak izan ziren?
- a) Gaztetan ez zen artezalea.
 - b) Argazkiak egiten hasi zen margotzen baino lehen.
 - c) Artearen beste arlo batzuk jorratu zituen argazkigintza baino lehen.
 - d) Bat-batean hasi zen argazkiak egiten liburu bat irakurri ondoren.

IDAZLANA

1. Argi idatzi behar da, eta albait garbien.
2. Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.
3. Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz: a) Gaiaren eraketa eta garapena; b) Hizkuntzazko aberastasuna eta zehaztasuna; c) Zuzentasuna.
4. Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.
5. Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontutan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdietan oinarriturik egin dezakezu.

Gaia: KILOAK



Euskaldunok gehiegi jaten omen dugu. Gainera, edozein ospakizun jan-edanean oinarritzen dugu.

Neguan gizendu, udaberrian argaldu. Gizonak ere hasiak dira beraien kiloak zaintzen.

Emakumeentzako aldizkarietako iragarki gehienek argaltze kontuak aipatzen dituzte.



Estatu aurreratuetan 40 urtetik gorako biztanleen erdia-edo behar baino lodiago dago Osasunerako Mundu Erakundearen arabera.



Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu zeure iritzia (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:


- Zergatik hainbesteko irrika argaltzeko?
- Argaltzeko sistemak: erregimena, pilulak, kremak, ebakuntzak, kirola...
- Garai bateko gorputz ereduak eta gaurkoak.
- Anorexia eta bulimia, gaztetxoek gaisotasunak.

Gaia: EZKONTZA

1970etik 1990era bitartean behera egin zuen ezkontza kopuruak. 1990ean berriro gora egiten hasi da.

Ezkondu bai, baina gero eta beranduago. «Nire soldata kaskarra da. Neskak ez du lanik. Eta, jakina, etxebizitza erostea amets hutsa da.»

«Bi urtez elkarrekin bizi izan ginen. Bera haurdun geratu zenean, lege aldetik haurrarentzat hobea zela eta, ezkontzea erabaki genuen.»



«Batzuek negozioa egiten dute ezkontzarekin; dirua ateratzeko gonbidatzen dute hainbeste jende.»

Pixkanaka-pixkanaka, ezkondu gabe bizi diren bikoteak aintzakotzat hartzen ari da gizartea.

Gehienek eliza aukeratzen dute ezkontzeko, baina gero eta gehiago dira epaitegietan ezkontzen direnak.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu zeure iritzia (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitzete:

- **Ezkondu ala ez ezkondu?** Alde onak eta txarrak.
- **Ezkontzekotan non?** Elizan? Epaitegian?
- **Ezkontzaren antolaketa:** lekua, jantziak, gonbidatuak, argazkiak eta abar.
- **Zergatik ezkontzen da jendea gero eta nagusiago?**

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.
_____ Etxetik irten bezain laster hasi zuen euria _____ .
1. Agintariek hartu behar dituzte erabaki zorrotz horiek eta ez beste inork.
_____ hartzea _____ .
2. Miren eta Ane bata bestearen antzekoak omen ziren txikitandik.
_____ antza _____ .
3. Gaizki egin badu, ordaindu besterik ez dauka!
_____ ordain _____ !
4. Azken bolada honetan, uste hau jabetu da ikertzaileen artean: gizakia barzkiejalea zen hasieran.
_____ ustea _____ honetan.
5. Gizonezkoak ez ziren egurretara joaten eta ez zituzten mendiko belardiak segatzen.
_____ gain, uko _____ .
6. Lagunaren gorputzean hotzikara zabaldu zen, irratitik berriak jasotzen zituena heinean.
_____ ahala _____ .
7. Zu bezalako zahar batek gazteek egin ezin dutena egitea pentsatzea ere!
Nola _____ ?
8. Janari onak jatea adina gustatzen zaio ardo finak edatea.
_____ baino gutxiago _____ .

9. Onartu beharra dago produktu asko eta asko telebistak saltzen dituela bere zulotxotik.
Nola ukatu _____ !
10. Horixe bakarrik behar genuen gure ametsak betiko galtzeko!
Besterik _____ gal _____ !

SINONIMOAK EMAN

Ondoko esaldi hauetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Eman hitz horien sinonimo egoki bana, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.

1. Balea zuri bat hurbildu zitzaigun eta harrapatu behar genuela otu zitzaion kapitainari.
2. Epailearen aurrean herabe agertu dira biak, isilik, datorkeenaren zain.
3. Hondakin kutsatzaileak ezin metatu daitezke, besterik gabe.
4. Elurraren pisupean abaildurik zeuden zuhaitzen adarrak.
5. Harrigarria bazen ere aldarte onean etorri zitzaigun Joxe petrara.
6. Zertarako sartu irtenbide onik gabeko liskarretan?
7. Berariaz esan nizun gezurra, nahigabetu ez zintezan.
8. Abegi ona egin zioten lagunak soldadutzatik itzultakoan.
9. Gogaitu ere egiten da bat gauzak hainbestetan esan behar direnean.
10. Trapezista, kablea hautsita, eskegita geratu zen.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

NAILAH MOUAWAD: LIBANOKO EMAKUME PARLAMENTARIA

Elkarrizketa Europako Batzordearen egoitzan, Atzerri Arazoetarako Zuzendaritzan egin genion Nailah Mouawad andeari. Hamabost urteko gerra zibilari amaiera ematearren, 1981. urtean era demokratikoan hautatu zuten Libanoko lehenengo presidentearen, René Mouawad-en alarguna da Nailah Mouawad. René Mouawad presidente hautatu eta hamazazpi egunetara hil zuten, baina Nailah-k bere senarraren programa politikoa aurrera ateratzea erabaki zuen.

lido horretatik, René Mouawad-en izena daraman Fundazioa sortu zuen, herrialde hartako demokraziarako bideak urratzearen eta bertako ekonomia eta kultura suspertzearen, emakumearen egoera bereziki kontutan hartuz. Nailah Mouawad emakume gogorra eta saiatua da, nortasun handikoa. Bere herria ezagutu eta maite du. Elkarrizketa egiten diogun bitartean, bere alabetariko bat dugu gurekin; legelaria da eta amari laguntzen dio Fundazioko zuzenbide kontuetan.

— *Zein kargu duzu Libanoko Gobernuan?*

Libanoko Errepublikako Parlamentuan 128 parlamentari daude, horietatik hiru emakumezkoak dira eta horien artean ni nago. 1992an hasi nintzen parlamentuko kide izaten. Libanoko historian, bigarren emakumea nintzen Gobernuko gaitan zuzenean parte hartzen zuena, gainerako kideak gizonezkoak ziren. Nire aurretik, 1963an, beste emakume parlamentari bat izan zen, baina ez dakizkidan arrazoiengatik dimisioa aurkeztu zuen. 1992ko abuztuaren 23an egin ziren hauteskundeetan, botu gehien jaso zuen hautagaia izan nintzen, 90.599 nire eskualdean. Hurrengo hautagaiak 75.098 botu eskuratu zituen. Egun, Parlamentuko Finantza Batzordeko eta Hezkuntza Batzordeko kide naiz, baita Haurrentzako Batzordeburu ere. Dena dela, Haurrentzako Batzordean gobernuarekin batera, Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) ere hartzen dute parte. Libanoko iparraldeko Zghorta eskualdean Mouawad leinuaren ordezkari naiz, leinu hori maronitek osatua da. Maronitak Erromako erlijio katolikokoak gara, baina gure erritua dugu. Libanoko kristau gehienak katolikoak gara, hiru erritotakoak: armeniarra, greziarra eta maronita.

— *Zer dela eta sartu zinen politikan?*

Jakingo duzunez, 15 urtez gerra zibilean murgildurik egon ondoren, eta hura amaitzeko asmotan, Saudi Arabian, Taefen, ihardunaldi batzuk antolatu ziren akordio batera iristearren. Bertan, nire senarra, René Mouawad, lehendakaritzarako pertsonarik egokiena zela erabaki zen, borrokan zeuden bi alderdiak bakebideratzeko zuen izaera demokratiko eta amore-emaleagatik. Akordioa benetako aurrerapausua izen zen gerra bukatzeko eta nire senarra errepublikako presidente izendatu zuten, baina hamazazpi egun geroago hil egin zuten. Elkarrizketarako gizon irekia zen, ideia politiko argiak zituena, horregatik erabaki nuen aurrera egitea eta bere gizarte-filosofia praktikan jartzea.

— *Zein da gaur egun duzun programa politikoa?*

Ulertu ahal izateko, Libanoko egoera politikoa ikusi behar da aurrenik. Gure herrian ez dago mendebaldekoen tankerako alderdi politikorik, eskualde-mailako hautagai-zerrendak baizik; zerrenda horiek kultura, erlijio,

etabarren araberako lurraldeak ordezkatzeko hautatzen dira. Nire senarrak, eta nik neuk, gizarteari eta politikari buruz dugun filosofia estatua-
ren deskonfesionaltasunaren ildotik doa, politika eta erlijioa bereizteko
xedez. Arestiko gerra zibila, hein batean, erlijio-bereizketengatik gertatu
zen. Nire iritziz, estatu-mailako alderdi politikoak eratu behar dira. Orain,
eskualde-mailako leinuak edo senitarteak dira hautagai eta haien buruek
botere handia dute. Alderdi politiko gisa antolatuta zegoen bakarra, gerra
aurretik eta ostetik, alderdi komunista zen; baina inoiz ez du indar askorik
izan. Eskualde askok ez du parterik hartu nahi herrialdea bateratzeko
ahaleginetan, eskualdeen boterearen galera ekarriko duen ustetan. Ho-
rixen izan zen, hain zuzen, nire senarra hiltzeko arrazoietakoa bat. Berak
Libano sendo bat osatu nahi zuen, armada ona eta erakunde egonkorrak
izango zituen.

Mouawad andrearen alabak dioenez, atzerrian baziren Libanoren oreka
puskatzeko interesak. Zenbaitetan, bertakoen aburuak entzun gabe, amerika-
rrak palestinarrei Libanoko zati bat eskaintzera ausartu ziren, Israelgo arazoa
konpondu nahian. Herrialde txikia den arren, topagune garrantzitsua da Ekial-
de Ertaineko politikan. Antzeko zeozer gertatu da Balkanetan, beti izan baita
Ekialde eta Mendebaldearen arteko muga. Libanok 1943an lortu zuen inde-
pendentzia. Orduan musulman baino kristau gehiago zegoen, baina gerora,
kristauak Mendebaldeko ohiturak berenganatu, atzerrira jo eta haien jaiotza-
tasa jaitsi egin zenez, musulmanak ugaltu ziren. Gaur egun, gutxi gorabehera
kristauak ehuneko 40 dira eta musulmanak, berriz, ehuneko 60. Azken horien
artean, shiitak dira ugariak. Baina orokorrean, ez zen haien arteko arazorik
izan gerra zibila lehertu arte. Azkenaldi honetan, asko eta asko, maronitak
batez ere, Mendebaldera joan dira; beren buruak jazarriak ikusi dituztelako,
batetik, eta Mendebaldeko moldeetara egokitu eta erosotasunik ñimiñoena
ere ez duen herrialde batean bizitzea zail egiten zaielako, bestetik. Libanok
orain duen konstituzioaren arabera, presidenteak kristau izan behar du, lehen
ministroak musulman sunnia eta Parlamentuko buruak musulman shiia. Kul-
tura eta komunitate guztiei toki bana emateko modua da. Mouawad andrea-
ren alabak dioenez, Libanoko gizarte-egitura eta lehengo Jugoslaviakoa oso
antzekoak dira; hala da, kultura eta komunitate ugari biltzen dira oso lurralde
txikian.

Emakunde, 1994ko martxoa, 14. zkia.- 24-27 orr. (moldaturik)

1. Nailah Mouawad...

- a) Libanoko presidentearen emaztea izan zen.
- b) 1989an hautatu zuten.
- c) gerra zibilari amaiera eman ziona izan zen.
- d) Atzerri Arazoetarako zuzendaria da.

2. Zer dio testuak Nailah Mouawad-ek?
 - a) René Mouawad-ek sortutako Fundazioaren ardura hartu zuela.
 - b) Legelari lana egiten duela Fundazioan.
 - c) Bere herrialdeko emakumeez arduratzen dela.
 - d) Bere herriko demokrazia urratu nahi duela.

3. Nailah Mouawad, emakume eta politikari.
 - a) Emakume bakarra da Libanoko Parlamentuan.
 - b) Ez da Libanoko lehen emakume parlamentaria izan.
 - c) Parlamentaria zenean dimisioa aurkeztu zuen.
 - d) Libanon presidente izatera iritsi den lehen emakumea izan da.

4. Nailah Mouawad, politikari.
 - a) Aurreko hautagaiak baino 15.501 botu gutxiago jaso zituen hauteskundeetan.
 - b) GKE deritzen erakundeetako partaidea da.
 - c) Bere parlamentuko kide guztiak gizonezkoak dira.
 - d) Parlamentuko hainbat batzordetan hartzen du parte.

5. Libanoko hiritar gehienak...
 - a) maronitak dira.
 - b) musulmanak dira.
 - c) katolikoak dira.
 - d) kristauak dira.

6. René Mouawad...
 - a) gerra zibilean hil zen.
 - b) Saudi Arabiako herri batean hil zuten.
 - c) presidente izendatu ondoren ezkondu zen.
 - d) bakezalea zen.

7. Nailah Mouawad-en programa politikoa...
 - a) ez dator bat politikaren konfesionaltasunarekin.
 - b) nazio mailako partidu politikoen aurka doa.
 - c) leinuen sistemaren defentsan datza.
 - d) mendebaldeko ohitura eta antolamenduaren kontra dago.

8. René Mouawad-en hilketaren erantzuleak:
 - a) alderdi komunista.
 - b) zentralismoaren kontrako indarrak.
 - c) Libanoko armada.
 - d) alderdi politiko nazionalak.

9. Balkanetan bezalaxe, Libanon...

- a) kultura desberdinak daude aurrez aurre.
- b) Israelgo arazoa konpontzeko saiakerak izan dira.
- c) amerikarrek hartu dituzte erabaki garrantzitsuak.
- d) palestinarrek bizi dira.

10. Shiitak...

- a) kristauak dira baina ez katolikoak.
- b) maronitak baino jaiotza-tasa handiagoz ari dira hazten.
- c) Libanoko populazioaren %60 izatera iristen dira.
- d) Mendebaldeko ohiturak ari dira berenganatzen.

2.3. 1995/5/27

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Zer dio elkarrizketatuak Gerra Nuklearraren Kontrako Nazioarteko Medikuen Elkarteaz?
 - a) Blokeen politikaren alde ari dela lanean.
 - b) Nazioarteko kardiologoez osatua dagoela.
 - c) Gerra Hotzaren garaian sortua dela.
 - d) Arma nuklearrak osasunerako erabiltzea dela bere asmoa.

2. Gerra Nuklearraren Kontrako Nazioarteko Medikuen Elkarteak zer dio?
 - a) Blokeak armagintza konbentzionalean oinarritu behar direla.
 - b) Armagintza nuklearrak osasunarekin zerikusirik ez duela.
 - c) Blokeak armagintza nuklearrari esker desagertu direla.
 - d) Arma nuklearrak izan arren gerrak gerta daitezkeela.

3. Zer dio arma nuklearrekin egiten diren saiakerez?
 - a) Gutxitu egin nahi dituztela, balaztak jarri.
 - b) Saioak bertan behera uztea nahi dutela.
 - c) Saiakerak egitea nahi dutela, baina ez gerra nuklearra.
 - d) Saiakerak jende zentzudunak egitea nahi dutela.

4. Zergatik egiten dira saiakera nuklearrak?
 - a) Blokeen arteko borroka dagoelako.
 - b) Frantziak ere bide horretan segitu nahi duelako.
 - c) Herrialde batzuek eten nahi ez dituztelako.
 - d) Nazio guztiak horretan bat datozelako.

5. Nolako da bonba nuklearraren eragina?
- a) Txikiagoa da zenbat eta eztanda-puntutik urrunago.
 - b) Eragin handia du baina hipozentruan bakarrik.
 - c) Gaurkoarena Hiroshima eta Nagasakikoen antzekoa da.
 - d) Ikaragarria: Hiroshima eta Nagasakin denak hil ziren.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Non frogatu da erradiazioak minbizia dakarrela?
- a) Gerran bakarrik frogatu da.
 - b) Gerran eta saiakeretan frogatu da.
 - c) Gerran, saiakeretan eta ikerkuntzan frogatu da.
 - d) Saiakeran eta ikerkuntzan frogatu da, baina ez gerran.
7. Zergatik egiten diote boikota General Electric enpresari?
- a) Industria nuklearrean parte hartzen duelako.
 - b) Propagandarako lelo desegokia darabilelako.
 - c) Eritasunen diagnostikorako tresnarik egiten ez duelako.
 - d) Eritasunen diagnostikorako tresnak egiten dituelako.
8. Nolako da General Electric enpresaren lana?
- a) Osasunaren onerako, ez kalterako.
 - b) Osasunaren kontrakoa, ez onerakoa.
 - c) Osasunaren onerako eta kalterako.
 - d) Ez da ez osasunaren onerako ez kalterako.
9. Arma nuklearren kontra dagoenak zer egin beharko luke?
- a) Aurora Bilbaoren taldean parte hartu beharko luke.
 - b) Proiektu askotan parte har lezake.
 - c) Udalerri ez-nuklearrean bizi beharko luke.
 - d) Ez luke hauteskundeetan parte hartu beharko.
10. Gure herria eta arma nuklearrak. Zer dio honetaz A. Bilbaok?
- a) Hemendik ez dela arma nuklearrik pasatzen.
 - b) Hemen ez dela arma nuklearrik egiten.
 - c) Hemen ez dagoela arazo horretaz kontzientziarik.
 - d) Hemen ez dagoela zalantzarik kontrako kanpainetan parte hartzeko orduan.

IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz: a) Gaiaren eraketa eta garapena; b) Hizkuntzazko aberastasuna eta zehaztasuna; c) Zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontutan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdietan oinarriturik egin dezakezu.*

Gaia: OPORRAK

Dirurik ez dagoela, baina opor garaian agentziak, hotelak, kanpinak, e.a. jendez gainezka.

Bada oporretara joan ahal izateko mailegua eskatzen duenik.

«Nire opor egunak Frantziako herri batean frantsesa ikasteko aprobetxatu ditut».



«Oporretan, leku batera joan eta lasai-lasai egotea dut gogoko. Urteko gainerako egunak nahikoa dira estresatuta, korrika eta presaka ibiltzeko».

«Leku guztiak ikusi nahi genituen eta batetik bestera ibili gara. Leher eginda bukatu dugu. Eta orain, berriro lanera. Hau komeria!»

«Oporretan beste lurralde batzuk, beste kultura batzuk ezagutzea dut gogoko».

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu zeure iritzia (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Oporrak negozio al dira?
- Ondo banafuta al daude urtean zehar gure opor egunok?
- Bidaia antolatua / nork bere kasa antolatuak.
- Hotela, apartamentua, nekazalturismoa, kanpina: alde on eta txarrak.
- Zure ametsetako oporrak.

Gaia: ELIZA, GAUR

Azken bi hamarkadetan Euskal Erkidego Autonomoko apaizen kopurua ia erdira jaitsi da.

Apaizen batzuek besteko adina 60 urte ingurukoa da. Orain 57 mutil ari dira apaiz izateko prestatzen.



Jose Antonio Pagola, Donostiako elizbarrutiko bikarioa: «Sekularrez eta erlijiosoz osatutako Elizaren barruan, emakumearen papera indartu egin behar da: batetik, apaizgai gutxi dagoelako eta, bestetik, guztiok parte hartuko dugun Eliza eraiki behar dugulako. Horrek, poliki-poliki, emakumea apaiz sartu ahal izatea ekarriko du».

Diakono hitzak grekeraz «zerbitzari» esan nahi du. Bi diakono ditugu, Araban hain zuzen ere. Jose Maria Larrauri gotzaiak ordenatu zituen. Biak ezkonduak dira. Meza eman, bataiatu eta jendea ezkondu egin dezakete, baina ez kontsakratu.

OHARRA. Hemen agertzen diren datu guztiak Euskal Erkidego Autonomokoak dira.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu zeure iritzia (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Euskaldunok fededun izaten jarraitzen al dugu?
- Zer iruditzen zaizu apaizak ezkondu eta familia osatzea?
- Eta emakumeak apaiz izatea?
- Elizaren inguruko pertsonak: gazte taldeak, laguntza taldeak, misiolariak...
- Elizak politikan sartu behar al du?
- Zer etorkizun ikusten diozu euskal Elizari?

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.
_____ *Etxetik irten bezain laster* *hasi zuen euria* _____ .
1. Gaueko ordu horietan taxi barnean zenbait kaletan ibili beharrak beldurra ematen dit.
Beldurra diot _____ .
2. Unibertsitateko irakasle bati esker murgildu nintzen ikerketa zirrargarri hartan.
_____ zor _____ .
3. Nahikoa zuen eskutitzak irakurtzea amaren estuasuna eta nahigabea somatzeko.
_____ besterik _____ .
4. Nola liteke bizitza osoan aurreratutako xoxak era horretan xahutzea!
_____ ere!
5. Hamar mila pezeta gastatu edo ez gastatu, orain bezain txiro izango gara urte amaieran.
_____ gora-behera _____ ez gara _____ .
6. Nahiago nuke hemendik aurrerakoak zuek zeuek guri kontatzea.
_____ kontatuko _____ .
7. Ez dago Erdi Aroko garai ilunetara jo beharrik jauntxo bidegabekeriak aurkitzeko.
_____ gabe _____ .

8. Mundu honetan jende gogorak egiten du aurrera; uste hori izan zuen gaztetan eta zahartzaroan.
 _____ ustea _____ baita .
9. Amore ematen ez baduzu, hemendik ez bada handik izorratuko zaitu hurrengoan.
 _____ ezean _____ nahiz .
10. Irribarrea zabaldu zitzaion eta baita begiak bizi-bizi jarri ere; ideia dibertigarriren bat bururatu zitzaiola ematen zuen.
 _____ ez ezik _____ bezala.

SINONIMOAK EMAN

Ondoko esaldi hauetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Eman hitz horien sinonimo egoki bana, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.

1. **Gorespen** ugari jaso ditu egin duen lanarengatik.
2. Nola zoriona hala **malura**, bata bestearen atzetik egokitu zaizkio.
3. Idazleak **aitzin-solasean** ematen digu barneko lanaren nondik-norakoa.
4. Hantxe galtzen ziren otso zaurituaren **lorratzak**.
5. Urteen joan-etorrian **garrastu** egin zaizkio jarrera eta hizkera.
6. Paraje **laiotza** da hori izotzaren arrastoak eguerdirako desagertzeko.
7. Harmailetako **liskar** horiekin jai daukagu kiroletan bakea lortzeko.
8. Etxeko soto **umelean** gordetako ardo bikain bat bera ere ez da geratu hondatu gabe.
9. **Behiala** herrian gertaturiko istorioek osatzen dute liburuen muina.
10. Badirudi, egurra bezalaxe, **sitsak** jaten duela gizakia zahartzaroan.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenetatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

BARANDIARAN HIL ZAIGU (1889-1991)

1991ko abenduaren 21eko egunsentian, Ataungo Sara bere etxean, itzali zen Jose Miguel Barandiaran jauna. Aurreko hilabeteetan larri ibilirik, haren egoera gaizkituz joan zen, tartek tartek. Euskaltzainek Saran, hamalau urtez eus-

kaltzainkidearen egoitzan, jakin zuten azken gaizkitzearen berri, bezperako arrastirian, eta biharamun goizean, Elizanbururen omenezko jardunak hasi aitzin, Euskaltzainburu jaunak aditzera eman zuen heriotzearen mezu hitsa.

Hitsa, zinez, eta hala erakutsi da Euskal Herri osoan barrena ez ezik, baita Euskal Herritik landa ere, mundu zabalean. Maitetasunez eta begirunez inguraturua zen, izan ere, Barandiaran bizi zelarik, haren jakituria eta lan ikaragarria aitortua, eta guztiek dute deitoratu haren heriotzea, hau etorri denean, jakintsuak 102 urte bete hurren zuela.

102 urte hurren, 1889ko azken egunean sortu baitzen Jose Miguel Barandiaran. Sorlekua, hil-lekua bezala, Ataun, eta sortetxea *Perune-zarre* baserria (*Sara* etxetik berrehun metro tara). Bederatzi seme-alabetarik (bost mutil eta lau neska) gazteena izan zen. Guztiak bera baino lehenago hilak, bi haurretan eta azkena, Mikaela, Angelun monja, 1972an, 92 urterekin.

Mutiko ernea, nahiz hasieran ez gailen erdal eskola hartan, apaizgai sartu zen Baliarraingo apaizgai-etxean, 14 urterekin, Gasteiza aldatu baino lehen. 1914an apaiztu zen. Tartean, ordea, Erligioen historia eta antzeko gaiak hobeki ezagutzeko eta bere fedeari oinarri sendoak emateko, Alemanian izan zen lehendabizikoz 1913an, diruaz urri baina ikasnahiaz aberats. Besteak beste, Wundt irakaslea Leipzigen ezagutu zuen ikastaro hartan.

Eta Gasteiz izan zen geroztik Barandiaranen lan- eta bizi-tokia. 1936ko zorigaiztoko gerra etorri arte. Bi apaizgaitegietan berehala eman zizkioten karguak eta kargak, administralgoan eta irakaskuntzan. Bi alorretan, ezagunak dira Barandiaranek sarturiko aldatetako, batez ere, Agirre apaizgaitegi txikiko errektore izendatu zenetik. Molde berriak apaizgaien ikaskizunetan eta garaiko haizeen araberrako irakasbideetan: hein handi batean Barandiarani zor zaio orduko apaizgaitegiaren izen ona.

Apaiz-lana eta zientzilari-lana lotzen jakin zuen ataundarrak beti. Artzain-betekizunetatik kanpo ez zen berez deus ere, Barandiaranen iritziz. *Eusko Folklore* aldizkaria eta mintegia berak ere ez, ezta *Gymnasium* eta *Idearium* aldizkariak, edota goiz argitaratzen hasi zen artikuluak eta liburuak. Kardaberaz taldea ildo beretik zihoan. Apaizgai eta apaiz ongi heziak nahi zituen, jakitez hornituak, mundura irekiak eta, denbora berean, Euskal Herriaren ezagutzaileak eta bertan sustraituak.

Bekatu larria, ordea, azken hau. Separatismoa ez bazen, arlotekeria zeritzoten askok Barandiaranen lanari, edo biak. Giroa nolakoa zen gertakari batek adierazten du garbiro: Guridiren *El Caserio* ikustera joateagatik *monitum* bat plazaratu zen Elizbarrutiko aldizkarian 1927an, meza gabeko egun bateko zigorra iragarriz apaiz ikusle haientzat. Hori guztia, ordea, Barandiaranek gogo onez eramaten zuen. Ezen Elizarekiko guztiz leiala izan zen beti ere, Elizako agintarien eta apaizkideen huts ikaragarriak barkatzen zituena, aro hobeak igurikitzen zituelarik.

Ezinikusiak, jakina, ez zetozkion Elizatik bakarrik. Giménez Caballero, garai hartan errepublikazale eta gero faxismozalea, atera zen Madrileko *El Solen Eusko Folkloreren* aurka, 1925ean: zientzia fidagarria ezin zitekeen egin, zioen, fede katolikoa tartean denean. Trebeki erantzun zion Barandiaranek, ezizenez («M. Roldán de Aranguiz»), halabehar, Gasteizko *El Heraldon*.

Ezinikusien zerrenda luzea agortu nahi gabe, aipa dezagun masoneriaren inguruko istilua, urte haietan Gasteizen gertatua. Kanpaina bat piztu zuten Lucas Oriolek, Oriol-zaleek eta eskuin muturrekoek masoneriaren aurka. Muturka eta ukabilka ere ibili ziren zenbait. Orduan, Elizbarrutiko zensorea zen Barandiarani eskatu zitzaion gai horretaz txosten bat. Eta halaxe egin ere. Baina harriturik irakurri zuten txostena: masoneria ez zen infernuratua! Adierazi behar ote dut zientziari zion begiruneak eta Euskal Herriari zion maitetasunak denbora luzean ekarri zioten kaltea?

Baina Barandiaran beti bera. Historiaurrean eta etnografian bezala, gainerako alorretan prestu eta hotz, datuei kasu eginez, asmakeriak eta sasiletratuen erretolikak bazterturik. Batzuek, borondaterik onenarekin, agian, gehiago eskatu izan diote Barandiarani: *sintesia* da hitza. Positibista bat izaki, ordea, nekez ase-bete zezakeen Ataungo jakintsuak besteren apeta hori. Areago, esan daiteke urteak joan ahala zuhurrago bihurtu zela ondorioak ateratzean. Konpara itzazue *El hombre primitivo en el País Vasco* liburuarren 1. eta 2. argitaraldiak: bigarrenean desagertu zen teoriaren atal nagusia. Ildo beretik, aztarnategiko solasaldi interesgarri haietako batean, Arabako Markizen, 1965ean, Caro Barojaren *Los Vascos* liburuko hitzaurrearekiko ere kritiko samar agertu zitzaigun. Harriak harri ziren, Barandiaranentzat, eta datuetatik aurrera segurtasun osoz baizen ez zen zilegi joatea.

Haren lanak ekarri zuen euskararentzako onura neurgaitza kontutan harturik, euskaltzain izendatu zuten Barandiaran. Izendatuaren gogoz kontra, jakina dena: «Ni ez naiz hizkuntzan aditua», esaten ohi zuen. Apaltasuna: horra Barandiaranen izaeraren ezaugarri nagusietariko bat. Zenbat aldiz entzun diogun harako hura: «sariak eskertzen ditut, baina horiek ez dakarte jakituriarik». Eta zenbat aldiz arbuia duen *aitalehen* (edo patriarka) deitura: «Ni ez naiz ezeren patriarka ez matriarka». Hemen haren nahia ere errespetatu beharra genuke, gehiegi eskatzea ez balitz.

E. KNÖRR, *Euskera*, XXXVII zkia. 619-622 orr.

1. Abenduaren 21ean hil zen Barandiaran.
 - a) Euskaltzaindiaren egoitza izandako *Sara* izeneko baserrian hil zen.
 - b) Euskaltzainburua zen hil zenean.
 - c) Elizanburu omentzen ari zen hil zenean.
 - d) Hil bezperan eman zitzaien euskaltzainei haren azken gaizkitzearen berri.

2. Barandiaran hil zaigu.
 - a) Hil den arte ez da ezagutu haren jakituria.
 - b) 102 urte bete baino lehen hil da.
 - c) Gutxiago sentitu da haren heriotza Euskal Herrian barrena kanpoan baino.
 - d) Jaio zen baserrian bertan hil da.
3. Barandiaranen lehen ikasketak:
 - a) Erdaraz egin zituen.
 - b) Gasteizen egin zituen.
 - c) Erlijio gaiak ikasi zituen batez ere.
 - d) Bikain egin zituen.
4. Barandiaranen lana:
 - a) Alemanian irakasle izan zen.
 - b) Bere karguetan berritzaile izan zen.
 - c) Baliarrainen administrazioan aritu zen.
 - d) Gerra sortu ondoren Gasteizen aritu zen.
5. Nolakoak nahi zituen Barandiaranek apaizak?
 - a) Ezagupen eta jakitez ongi jantziak.
 - b) Kanpora begira gabe Euskal Herrira begira jarriak.
 - c) Apaiz ez ezik zientzilari ere izango zirenak.
 - d) Artikulu eta liburu egileak.
6. Zerekin edo norekin ez zetorren bat Barandiaran pentsakeran?
 - a) Elizaren doktrinarekin.
 - b) Bere ikasleekin.
 - c) Eliz-agintariekin.
 - d) Bere garaiko euskaldunekin.
7. Giménez Caballerok Barandiaranen lanak gutxietsi zituen. Zergatik?
 - a) Separatista zelako.
 - b) Apaiza zelako.
 - c) Arlotea zelako.
 - d) Fede katolikoa errespetatzen ez zuelako.
8. Zertan nabarmentzen zen Barandiaran?
 - a) Datu-bilketan; ez, ordea, ondorioak ateratzen.
 - b) Erretolikatan; ez, ordea, datu-bilketan.
 - c) Zientzia gaietan, baita sintesia egiten ere.
 - d) Sintesia egiten; ez, ordea, erretolikatan.

9. Nola ageri zen Barandiaran zientzia gaietan?
- a) Zenbat eta nagusiago orduan eta kritikoago.
 - b) Zenbat eta nagusiago orduan eta ausartago.
 - c) Zenbat eta nagusiago orduan eta nahasiago.
 - d) Zenbat eta nagusiago orduan eta okerrago.
10. Eta izendapen eta sarien aurrean?
- a) Gorroto zituen.
 - b) Biziki estimatzen zituen.
 - c) Harro hartzen zituen.
 - d) Ez zen zalea.

2.4. 1995/9/30

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Anne Igartibururen hastapenak Euskal Telebistan nolakoak izan ziren?
 - a) Ez zuen polita izateagatik laguntza berezirik jaso.
 - b) Uko egin zion programak euskaraz eta erdaraz egiteari.
 - c) Laster ikusi zuen telebista saioak egitea ez dela zaila.
 - d) Politak izan arren ez zen gai lan hura egiteko.

2. Edertasuna dela eta zer dio?
 - a) Ez dela makilatzen, ezta telebistan ere.
 - b) Ez duela zentzurik makilatu eta eder agertzeak.
 - c) Itxura fisikoa baino gauza garrantzitsuagorik badagoela.
 - d) Emakume ederra izatea inportantea dela.

3. Nolako esperientzia izan du Euskal Telebistan?
 - a) Ez dago batere pozik 'Bulevar' eta 'Show Show' saioekin.
 - b) 'Gautxori' izan da bere saiorik eskasena.
 - c) Gustura aritu da lanean.
 - d) Zuzendaritza beti moldatu da ongi bere nahietara.

4. Zergatik joan zen Anne Igartiburu Tele-5ra?
 - a) ETBn nekatuta zegoelako eta munduan besterik badelako.
 - b) Kate horretakoak bila etorri zitzaizkiolako.
 - c) Saio arrosak egiteko gogoak zuelako.
 - d) Lanik gabe zegoela, aukera hori izan zuelako.

5. Tele-5 katean zer ikusi zuen?
- a) Ikusleek nahi dutenari erantzuten diola telebistak.
 - b) Hango neskek beren nortasuna defenditzen badakitela.
 - c) Kontratuetan klausula berezirik jartzerik ez dagoela.
 - d) Jokabide batzuk onartezinak iruditu zitzaizkion.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Anne Igartibururentzat zer da penagarria?
- a) Gazteek estereotipoez aparteko zerbaiti begiratzea.
 - b) Jendeari estereotipoak ezartzea.
 - c) Bera estereotipo ez izatea.
 - d) Gazte jendeak estereotipoak ez segitzea.
7. Nola ikusten ditu Anne Igartiburuk gaurko euskal gazteak?
- a) Gero eta berdina goak.
 - b) Elkarren artean borrokan.
 - c) Ez batzuek nahiko luketen bezalakoak.
 - d) Arazo sozial eta politikoak sortzearen aurkakoak.
8. Nola ikusten du Anne Igartiburuk Euskal Herria?
- a) Konponbidean, Irlandako ereduari jarraituz gero.
 - b) Penaz, indarrak alferrik galtzen ari garelako.
 - c) Ongi, burugorrorak garen arren ekimena badugulako.
 - d) Penaz, kanpotarren kontra borrokan ari garelako.
9. Anne Igartiburu harritu egiten da Vatikanok hartu duen jarrera ikusita.
- a) Aurreko 2.000 urteetan bezain liberal ageri ez delako.
 - b) Erlijioak errespetua predikatzen duelako.
 - c) Emakumearen promozioa bilatzen duelako.
 - d) Inposaketarik nahi eta bilatzen ez duelako.
10. Nola ikusten du Anne Igartiburuk euskara?
- a) Apaingarri gisa.
 - b) Bere gailurrera iritsita.
 - c) Bertsolaritzari lotuegia.
 - d) Nortasun ezaugarri gisa.

1. IDAZLANA



1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:
a) Gaiaren eraketa eta garapena; b) Hizkuntzazko aberastasuna eta zehaztasuna; c) Zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontutan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdietan oinarriturik egin dezakezu.*

Gaia: FRANTZIAREN SAIO NUKLEARRAK

Irailak 5: Greenpeace-k itsasontziak bidaltzen jarraitzen du proba nuklearrak eragozteko. Frantziak atxilotzen.

Irailak 6: Atzo, gaueko 23:30etan, 20 kilotoiko lehergailu nuklearra leherтары zuen Frantziak Mururoan.

— Oskar Temaru, independentisten burua: «Iraindurik eta zapuzturik sentitzen gara. Manifestapenak manifestapen, Chirac-ek aurrera egin du».



- Frantziako Defentsa ministroa: «Indarkeriarekin kezkatuta nago».
- 1960tik 205 proba egin ditu Frantziak. Beste hainbatek ere egin dituzte.
- Frantziarren artean % 63 proben aurka dago.
- Munduak leherketa atomikoen aurrean protesta egin du.
- Maiatzera bitartean beste 6-7 egingo dituzte.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu zeure iritzia (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Mururoa oso urrun dago. Ez da gure arazoa, ala bai?
- 1991n Frantziak sei saio nuklear egin zituen Mururoan eta ez zen erantzunik izan herritarren artean; orain bai. Zer aldatu da?
- Txinak ere egin ditu saioak, baina protesta gutxirekin.
- Gainerako nazioetan nolako jarrera hartu du jendeak?
- Arma atomikoen historia.

Gaia: BANAKETA ETA DIBORTZIOA

«Ezkongaietan zerbait banintzan, ezkondu eta...»

«Maiteen nuena, etsai bihurtu da. Ezin dugu elkarrizketarik izan haserretu gabe. Oso gaizki amaitu dugu.»



Emakumeak izan ziren lehenak beren eskubideak babesteko elkarteak sortzen. Orain gizonezkoek ere badituzte elkarteak.

Banaketarik errazena bien artean erabakitakoak eta seme-alabarik gabekoak izaten dira.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu zeure iritzia (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Lehenago jendea ez zen dibortziazten: zoriontsuagoak ote ziren?
- Zergatik dibortziazten?
- Dibortzioaren ondorioak.
- Eliza katolikoaren jarrera.
- Seme-alaben arazoa. Mantenua.
- Zer egin dibortziora ez iristeko?
- Banaketak edo dibortzioak artisten munduan.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.
_____ Etxetik irten bezain laster hasi zuen euria _____ .
1. Arazoak begibistan izan eta begiak ixten dituen zoroa da.
Zorakeria _____ .
2. Hamaika dira gurasoek eta irakasleek bultzatuta aurrera atera direnak.
_____ esker _____ .
3. Lotsaren lotsaz, esan behar nuena jakin gabe inguratu nintzen lagunengana.
_____ nekiela _____ lagunei.
4. Musika-kaxa hartan herri-kanta alemaniar bat zegoen, nonbait.
Badirudi _____ .
5. Gogora beza nire aurkakoak nire asmoak bete egiten ditudala. Horrelakoxea naiz ni.
_____ dezala _____ dituzten _____ .
6. Horrelako harrera beroa egin eta hain jaki goxoak eskainita, nola ez da, ba, etorriko zurera!
_____ ...z gero _____ gabe.
7. Zuek eredu eta ispilu izan behar eta lotsagarri agertzen zarete denon aurrean.
_____ beharrea, _____ .

8. Neba-arrebak berehala hasten ziren borrokan, aita aurrean ez bazegoen.
 _____ ezean _____ ekiten _____ .
9. Hamaika urte genituenean begirada xaloa eta orain etsipenezkoa; nik hura nahiago.
 Nahiago dut _____ baino.
10. Mikel aberatsa balitz bezala agertzen da lagunena aurrean.
 _____ aberatsarena _____ .

(Zenbait tokitan honako ordezeko galderak erabili ziren)

1. Seme-alabak bideratu nahi nituen baina nork bere bidea hartu du gure aholkuei jaramonik egin barik.
 _____ ...gatik _____ aintzakotzat _____ .
2. Guk egindakoaren ondoren, afaritxo bat baino ez bada ere, ordain bezate.
 _____ bederen _____ ...la.
3. Aholkurik eskatzekotan, ni eskarmentua duenarengana joango nintzateke.
 _____ nahi _____ nuke.
4. Jendea zutik eta txaloka jarri zuen atzo entzun genuen kontzertuak.
 _____ ...rainokoa _____ .
5. Aitor saltoka eta algaraka hasi zitzaigun. Zelako poza hartu zuen hori jakitean!
 _____ non _____ .
6. Zazpi edo zortzi urte izango nituen ene osaba Terralbara itzuli zenean.
 _____ nintzela _____ .
7. Ea Parker Lewis abentura berriekin etortzen zaigun. Hala izan dadila!
 Etor _____ !
8. Isiltasun oro esan ez diren hitzez dago osatua.
 _____osatzen dituzte _____ .

9. Fruituak, gazta eta arrain errea eramaten nizkion. Ordainetan ahuntz-esnea eta ahate-arraultzeak ematen zizkidan.

_____ truke _____ .

10. Testua luzatu egin behar zuela zioen. Orrialde haiekin ezin zela liburu bat osatu.

_____ adina ez zirenez, _____ .

SINONIMOAK EMAN

Ondoko esaldi hauetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Eman hitz horien sinonimo egoki bana, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.

1. Egun batean berak amestutakoa berresteko asmotan ezpel-hostoa jaurti zuen sutara, amagandik ikasitako **aztura** zahar bati jarraituz.
2. Jauziz jauzi zebilen, bada, **gomutaz gomuta**, urrutira gizon bat zetorrela ohartu zenean.
3. Egun batean osaba aitonak aldatutako makalera igo zen, mutilak **zur eta lur** utziz.
4. Egun batean, enboskada batean lau liberal **garbitu** zituzten.
5. Zenbat bider entzun ote genion aitonari gure **asabak** zaldun izan zirela?
6. Irrintzi haiek entzun zituenean guztiz goibeldu zen eta bihotza, **ezari-ezarian**, bekaitzez betetzen hasi zitzaion.
7. Etxera joateko suzia **iziotu** eta bera bazihoala esan zien ingurukoei.
8. Eskutik lotuta, mendebaldera jotzen zuten soro eta **larreetarantz** abiatu zireneten.
9. Bol-bol somatu zuen odola, baina, arnasa sakonki hartuz, bere barne-ekaitz hura baretzea **jadetsi** zuen.
10. Hasieran zaila egin zitzaidan irakurtzea, baina azkenean ohitu eta **erruz** gus-tatu zitzaidan.

(Zenbait tokitan honako ordezeko galderak erabili ziren)

1. Hazkura nabaritzen zenuen zeure azalean, eta mamorroek tarteka egindako **ausikiak** ere bai.
2. Oinez zihoazenak **horditurik** heltzen ziren bidertzetako zurrutaxkak zirela medio.
3. Basomutilak, lanean aritu ondoren, goiz erretiratu ziren, **abaildurik**.

4. Zendoia bere adineko mutil bat zen, baina altuagoa eta aiurri gogorrago-koa, beti joka, burlaka eta desafioka.
5. Gaur ikusi duenean, ordukoa bezalako kexua igarri dio lehengusuari begi-tartean.
6. Irlandar mariñelari, izkiriätzen baitzekien, enkargatu zioten mezuak bidaltzea.
7. Arratsean, muino eta auzune guztietan izeki dira suak.
8. Mundu guztia bekaitzez zegoen saria irabazi zuen neskarekin.
9. Kolore tristeak kanporatu nituen armairutik, eta erreparorik gabe eralgi dirua jantzi berrien bila.
10. Azken bolada honetan ondoezik dabil.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

NAUFRAGOOK *Anjel Lertxundi*

Sujerigarria da gizarteak etikaren premia bizi duela pentsatzea. Baina etika modan dago ala Gudianaren antza du (noiz ezkutuan gordetako zurrunbilo, noiz agerian ikusten den uraldi distiratsu) etikaren eta gizartearen arteko erlazio horrek?

Etikaren modarenak kontraesanguratsua dirudi eguneroko bizitzaren talaiatik begiratzuz gero: batetik, nork sinetsi gure gizarte hedonistari etika interesatzen zaionik?; bestetik, ordea, gertakizun lazgarriren batek gure kontzientziak jipoitzen dituenean, orduan etikaren aldarrikapenarekin betetzen zaizkigu ahoak, trumoi-egunetan gure aiton-amonek Santa Barbarari kandela piztu ohi zioten bezala. Etikaren noizbehinkako aldarrikapen horrek kolesterolaren aurkako jarreraren antz betea du, ordea: gure barrena txekeatu eta etika-ttanta batzuk errezetatzen dizkiogu gure ezinegonari.

«Zer egin behar dut zoriontsu izateko? Zer egin behar dut zuzen jokatzeko? Badirudi kontzientzia moralak urratuta geratu dela betirako bi adar horien artean eta ez dela posible bi bideetan barna batera ibiltzea. Bata edo bestea. Edo zorionaren atzetik saiatuko naiz edo erantzunkizunak gidatuko nau». Auzi etikoa aztergai, hala planteatzen du muin etikoa Jose Antonio Marinaren azken liburak («Ética del naufrago»).

Batetik, zoriona, ongizate-gizarte, hedonismoa, erosotasuna. Etikaren txanponari ezin zaio eskubideen alde hori ukatu. Txanponaren beste aldean,

berriz, erantzunkizunaren aurpegi bekoskoa dugu, idealetan oinarritutako etiken begi-ninietakoa den txanponaren alde bakar hori (konprometi gaitezen gaur munduan, bihar zorionaren saria jasoko dugu-eta, zeruan nahiz paradisu komunistan). Jakin badakigu, ordea, anfora hautsi bat dela paradisua. Beraz, nola uztartu eskubidea eta erantzunkizuna, zoriona eta konpromezua, nola irentsi Uztapideren erremate hura: «Ondo eginen saria, sarritan da mingarria»?

Orain lana, gero loria, sariaren esperantza bizi genuen lehen. Gizarte modernoak, ordea, uztarkaitzak ikusten ditu zoriona eta nekea eta trikimailu polit batez baliatu da: defenda ditzadan eskubideak, delega ditzadan erantzunkizunak.

Eraiki dugun mundua zuritzeko herabe, indibidualismoaren itsasoan bota dugu aingura eta harro aldarrikatu gizabanakoa dela balore moralen ardatz eta ipar: solidaritatea, balore sozialak eta konpromezua bezalako ideiek, ordea, moral tradizionaletan zuten sona —eta sostengu ideologikoa— galdu dute. Orain ordezkari batzuk izendatzen ditugu noizbehinka, eta haien egitekoa da balore sozialen defentsa. Giza eskubideen aurkako jarrera duela halako estamentuak? Gure kontzientzien atean jo duela Hirugarren Munduak? Ez dugu zertan kezaturik, horretarako baitaude giza eskubideen batzorde parlamentarioak, administrazioak 0,7a eman dezan, zergak ordaintzen baititugu.

Delegatu egin dugu gure erantzunkizun etikoa, urteroko errenta ere aholkulariren baten esku uzten dugun patxada berberaz. Politikariak bihurtu ditugu moralitate publikoaren berme, ordezkaritza politikoa —«res publica»ren gestioa— eta erantzunkizun etikoa —gutariko bakoitzaren moralala— zaku berean sartuz. Politikariei fidatzen diegu gure egiteko moralala. William Calley-k aberriari egotzi zion bezala My Lai-ko sarraskiaren erantzunkizuna: «*Egun hartan nik ez nuen vietnamdarrik hil. Estatu Batuen ordezkartzan ari nintzen*».

Erantzunkizuna, ordea, ez da inoiz delegatzen, transferiezina da. Delegazioak zuritu egingo digu, agian, erruaren zama (goikoaren aginduak!) baina ez gaitu kulpatik libre uzten. Norberaren moralitateak ez du urnarik, ez du boturik, ezin du aurkitu etikaren plazan ordezkaturiko duenik, ez du general bati zor zaion obedientziaren zuriketarik. Politikari batek, baita botu gehien jasotakoak ere, ez du gutariko edozeinek (hiritar arrunt batek) baino autoritate moral gehiago, moralitatearen negozioan gizabanako bakoitza baita dendari.

Egunkaria, 1995eko otsailaren 12a. (moldaturik)

1. Zer adierazi nahi du idazleak etika eta gizartearen arteko erlazioa Gudianaren antzekoa izan daitekeela dioenean?
 - a) Guadiana ibaian zurrunbiloak agertzen diren bezala agertzen dela etika gizartean.
 - b) Etikak noiz zurrunbilo indartsua, noiz uraldi barea dirudiela.
 - c) Etikak Guadiana ibaian doan uraren antza duela.
 - d) Agertu-desagertu egiten dela Guadiana ibaia bezala.

2. Zer gertatzen da etikarekin gaur eguneko bizitzari erreparatzen badiogu?
 - a) Gizarteak bere bizimoldearen oinarritzat hartu duela.
 - b) Aldian aldiko aldarrikapenetan baino ez dela agertzen.
 - c) Gertakizun lazgarrietan bezala aldarrikatzen dugula egunero ere.
 - d) Era latzean jipoitzen dituela gu denon kontzientziak.

3. Nolakoak dira gizartean agertzen diren etikaren aldarrikapen horiek?
 - a) Kolesterolaren aurka erabiltzen dugun sendabidea bezalakoak.
 - b) Kolesterolaren aurka erabiltzen dugun jarrera gogorra bezalakoak.
 - c) Kolesterolak gure barrena jotzen duenean bezalakoak.
 - d) Gure aiton-amonek Santa Barbarari zioten fedea bezain indartsuak.

4. Jose Antonio Marinaren liburuan honela planteatzen da muin etikoa:
 - a) Zoriontsu izateko zuzen jokatu behar da.
 - b) Erantzunkizunik gabe ezin daiteke zoriona lor.
 - c) Zoriona eta erantzunkizuna bi ibilbide desberdin dira.
 - d) Zoriona eta zuzen jokatzeari: bi bideotan barrena ibili behar da.

5. Lehen eta oraina alderatzean desberdintasun hau ikusten da:
 - a) Lehen bezala orain ere zoriona lanaren bidez lortzen da.
 - b) Lehen ez bezala, orain, lana eta zoriona uztartu egiten dira.
 - c) Gizarte modernoak lehenengo lana eta gero zoriona aldarrikatzen du.
 - d) Lehen ez bezala, orain, lanak eta nekeak ez dakar zorionaren itxaropenik.

6. Gizabanakoa balore moralen gune bihurtzen dugunean...
 - a) solidaritatea eta konpromezua bezalako ideiei indarberritu egiten ditugu.
 - b) norbanakoaren gizartearekiko konpromezua aldarrikatzen dugu.
 - c) elkartasuna eta konpromezua bezalako ideiak eguneratzen ditugu.
 - d) elkartasuna eta konpromezua bezalako ideiak ahaztu egiten ditugu.

7. Zer egiten dugu Hirugarren Munduko arazoak begibistan jartzen zaizkigunean?
 - a) Batzorde parlamentarioen kezka geure egin.
 - b) Giza eskubideen aldeko batzorde parlamentarioak sortu.
 - c) Administrazioaren eskuetan utzi erantzunkizuna.
 - d) Giza eskubideak babesteko zergak ordaindu.

8. Zer zioen William Calley-k My Lai-ko sarraskiaren ondoren?
- a) Berea ez zela errua, ordezkatzan zuen aberriarena baizik.
 - b) Erantzunkizuna berea eta Estatu Batuena zela.
 - c) Estatu Batuetako ordezkariena zela errua.
 - d) Berak ez ezik aberriak ere bazuela errua.
9. Zer egiten dugu moralitate publikoa politikarien eskuetan uzten badugu?
- a) Ordezkari guztiak zaku berean sartzen ditugu.
 - b) Norberaren erantzunkizun moralala ere beren eskuetan uzten dugu.
 - c) Politikariek gehiegi fidatzen gara.
 - d) Zaku berean sartzen ditugu ordezkariak politikoa eta «Res Publica»ren gestioa.
10. Erantzunkizuna besteen eskuetan uzteak...
- a) ez du zurriz norberaren erruaren zama.
 - b) ez du norberaren errua garbitzen.
 - c) norbera erru gabe libre uzten du.
 - d) errua goikoen aginduei egozten die.

2.5. 1996/5/4

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Zer dio Javier Diazek euskal kazetaritzari edo aldizkariei buruz?
 - a) Berak aztertu egin nahi zuela, nahikoa ezaguna baita.
 - b) Jendearen iritziz, kazetaritzaren historia egitea merezi zuela.
 - c) Aldizkari amerikarrek eredu euskalduna dutela.
 - d) Kaliforniako *Eskual Herria* aldizkaria euskara hutsezkoa zela.
2. Zer dio komikiari buruz?
 - a) Los Angelesen egin zela lehenengoa.
 - b) XX. mendearen lehen hamarkadan plazaratu zela.
 - c) Antza denez, abiapuntua unibertsitari batzuek jarri zutela.
 - d) Berak ez duela ikusi, gordeta dago eta.
3. Karlistek eta liberalek zer harreman dute prentsarekin?
 - a) Donostiako liberalen egunkari batek eman zion hasiera euskarazko kazetaritzari.
 - b) Karlista donostiarren aldizkari bat izan zen euskal kazetaritzari hasiera eman ziona.
 - c) Karlistek eta liberalek biek sortu zuten euskal prentsa.
 - d) Karlistek, prentsa ordez, elizgizonen laguntza zuten mezuak ezagutarazteko.
4. Zer esan behar da garai hartako aldizkariez?
 - a) Iparraldean *Eskualdunak* eta *Argia* izan zirela eredu.
 - b) Kazetaritza eredu sortu zuten bi aldizkarietako langileak elizgizonak zirela.
 - c) Arazoak arazo, *Eskualdunak* aldizkaria garrantzitsua izan zela.
 - d) Gipuzkoan eta Lapurdin izan arren indarririk handiena, Bizkaian, Araban eta Nafarroan ere egoera oso ona zela.

5. Zenbaterainokoa zen euskararen erabilpena?
- a) Gehienek euskara portzentaia dexentea zuten.
 - b) %10 zen erabiltzen zen batz bestekoa.
 - c) Guztiek ere ondo geratzeko erabiltzen zuten.
 - d) Aldizkari elebidunetan gai garrantzitsuenak ez ziren euskaraz ematen.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Zer dio Lertxundi jaunak kulturaz?
- a) Gure inguru kulturala nahikoa dela artegintzan dabilzanen beharrei erantzuteko.
 - b) Euskal kultura errotu ezinik ikusten duela.
 - c) Eremu geografikoa zabaldu behar duela mailaz igo nahi duen kulturak.
 - d) Kultura mailan indarririk handienekoak Estatu Batuak direla.
7. Zer dio egurraz, harriaz eta burdinaz?
- a) Hirurak elkartuta, naturarekiko oreka lortu nahi du.
 - b) Hirurak elkartuta, bere lana ulergarri eta maitagarri izango delakoan dago.
 - c) Hirurak bere lanari indar berezia emateko txertatzen ditu.
 - d) Euskal Herrian indar handirik ez dutenez, erabilera sustatzeko lantzen ditu.
8. Zer pentsakera du elkarrizketatuak?
- a) Bere ideia nagusia da gizakiak eta izadiak elkarren beharra dutela.
 - b) Jendeak artearen bidez bera maita dezakeelakoan dago.
 - c) Orain espaziotik mundura jaitea komeni zaiolakoan dago.
 - d) Gizona-lurra-espazioa: hiruren artean ez du orekarik ikusten.
9. Zein da bere iritzia oraingo euskal artisten eta artearen egoerari buruz?
- a) Gaur egungo artista kopurua aurreko belaunaldietakoen parekoa da.
 - b) Gaurko artistek ez dute zerikusirik aurrekoekin.
 - c) Kultura mailako beste zenbait arlo indartsuago daude artea baino.
 - d) Beste leku batzuetan adinako maila bada hemen.

10. Nola ikusten du mundu mailako artearen eta gurearen arteko harremana?
- a) Euskal Herriko kulturgileen kanpokoarekiko interesak mesede egingo dio gureari.
 - b) Sortzen ari den kultura makurraren menpe gaude.
 - c) Kanpotik datorrena erabat baztertu behar da.
 - d) Joera arrotzen erruz, nortasuna gal dezake gure arteak.

IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta al bait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) *Gaiaren eraketa eta garapena;*
 - b) *Hizkuntzazko aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - c) *Zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontutan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdietan oinarriturik egin dezakezu.*

Gaia: MENDIA

Oporrak lasai egoteko dira.
Mendian ibili eta ibili, nekatuta
pasatako oporrak ez dira
oporrak.

Mendizale gazte baten hitzak:
Mendiak denbora asko eskatzen
du. Aldi berean andregaiarekin
eta mendiarekin ibiltzea zaila da.



7 LURRALDEETAKO 7 HANDIAK



Xebe Peñak 87 urterekin
Kilimanjaroko gailurrik
altuena laugarren aldiz
egin du.

Mendia: kirola, natura,
osasuna, lasaitasuna,
nekea, arriskua, ... 20.694
federatu dira Euskal
Herrian.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gai honi buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Batzuen ahotan MENDIA = NEKEA; beste batzuenetan MENDIA = GOZAMENA.
- Zenbait mendizale «erotuta» daudela uste al duzu?
- Mendiak dituen arriskuak.
- Euskaldun asko ibiltzen da mendian.
- Espedizio handiak: Txo-Oiu mendia, K-2, zazpi handiak, ...
- Goi mailako mendizaleen bizimodua: prestakuntza, familia, lagunak, ...

Gaia: HAURTXOA NOREKIN?

Hartzaindegiak ez dira haurrak uzteko aparkalekuak, heziketa lekuak baizik. Haurraren onerako dira.

Kanpoan lan egiten nuen, baina lehenengo haurra izan nuenean lana utzi eta haurraren heziketaz arduratzea erabaki nuen.



Biok egiten dugu lan eta haurra aiton-amonen etxera eramaten dugu. Iluntzean ikusten dugu elkar.



Iragarkia: Neska bat behar dugu bi haur zaintzeko. Goizeko 8etatik arratsaldeko 18:00etara. Esperientzia izatea beharrezkoa da.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Zure ustez, noiz arte egon behar luke haurrak gurasoekin?
- Gurasoak, lana eta haurtxoaren heziketa.
- Senar-emazteek lan egiten dutenean, norekin utzi haurra? Zer da egoiena haurrarentzat?
Zuk zer nahi zenuke zeureentzat?
- Garai bateko haurtxoak eta gaurkoak: zein alde ikusten duzu?

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.
_____ *Etxetik irten bezain laster hasi zuen euria* _____ .
1. Zorrak kitatzeko bakoitzak milioi bat pezeta jarri behar izan genuen.
_____ ...na _____ .
2. Xabierri gu eskolatik etxera bere kotxean ekartzeko eskatu diogu.
_____ ekar _____ .
3. Ez daukagu tresna hauek erabiltzen irakatsiko digunik.
_____ nork _____ .
4. Sekulako pena hartu du berria jakin duenean.
Hori _____ !
5. Laster amaituko dute bilera. Ordurako kegak prestatuta izan behar ditugu.
_____ ...erako _____ .
6. Dena ondo egin nahi badugu, hobe dugu zu alde batera uztea.
_____ ...tekotan _____ ba... _____ .
7. Zure gurasoak oso modernoak dira. Nireak ez dira hain modernoak.
_____ aldean _____ .
8. Aitor oso trebea da. Mikel ez hain trebea.
_____ adinako _____ .

9. Azkenean, ezin izan zaituztegu itsasora eraman.
 _____ ...terik _____ .
10. Berriz ere etxeko lanak egin gabe etorriko da. Horretan ez izan zalantzarik.
 Baietz _____ !

SINONIMOAK EMAN

Ondoko esaldi hauetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Eman hitz horien sinonimo egoki bana, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.

1. Ez, ez zen marrazkien arteko desberdintasunaren istorio barregarri hura izan **galtzarbeak** izerditan blaitu zizkidana.
2. Gaua gertu, arrats beheraren argi **indargea** jabetzen hasita zegoen gelako gauzez.
3. Hori jakin izan banu ez nuen apusturik egingo; **estakururen** bat asmatu behar eta horixe esan nion.
4. Hantxe somatu zenituen zazpi haizeak bilduta, **eleketan**, eta ez zeuden, ez, haserre.
5. Gero, meta baten atzean **ostendurik**, behorren bizkarretik jaitsi zen.
6. Eguzkia ezkutatu zen, baina ez haize miragarri hura, bere hegoak biziki **inarrosten** zituen zetazko tximeleta erraldoi bat bailitzan.
7. Eta haren amorrua ez zen **iraungi** bere begi aurrean irudia harrapaturik ikusi zuen arte.
8. Anaiaren haragizko lur uhinak nabaritu zituen bere sabel **elkorrean**.
9. Gero, iragan gorroto guztiak **lipar** batez bildu balitu bezala, sekulako gorroto uholdea zetorkiola konturatu zen.
10. Behin, **arras** konbentzitu nintzen haren magalean lurraren hatsa arnas nezakeela.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

GENETIKAREN AZOKAN

Orain arte ezer gutxi genekien ziurtasun osoz. Azken hamar urteotan, berriz, ingeniari zientifikoak zalantzan jarri dizkigu orain arteko egia oinarrikoenak ere: jaiotzari eta heriotzari buruzkoak. Honela dio Andrew Kimbrellek,

The Human Body Shop (Giza gorputzaren azoka) liburuan: «Ingeniaritza genetikoak eta haren ondorio komertzialak inoiz bere buruari egin dizkion galdera larrienak ekarri dizkio gizakiari: zer da bizitza?, zer esan nahi du gizaki izateak?, ba al dute ikertzaileek bilakaeraren ardura beren gain hartzeko eskubiderik?, nola definitu heriotza, eta nola finkatu bizitza bizigarri egiten duten oinarriak?, prest al gaude giza organoen, ehunen, geneen eta, areago, haurren “azoka” onartzeko?»

Ingeniaritza genetikoak, bizitzaren eta heriotzaren esanahiari buruzko galderak egiteaz gainera, zalantzan jarri ditu biologi prozesuari buruz genituen ideiak ere. Prozesu horren inguruko aurkikuntza guztiei etekina ateratzeko prest dauden industri talde ahaltsuak sortu ditu, eta giza eskubideen gutxieneko oinarriari buruz gogoeta egitera bultzatzen gaitu. Erabil al daitezke umekiak, ordezko pieza gisa? Galdera eroa dirudi; baina bidezkoa izan daiteke, Andrew Kimbrellek dioenaren arabera: «Etorkizun laburra omen du, aditu askoren ustez, gaur egun medikuntzako ikerketetan umekiak erabiltzeak sortzen duen higuinak».

Filosofoek eta moralistek, beraiei dagokienez, ingeniaritza genetikoaren ondorio etikoan gaineko eztabaidan dihardute. Bien bitartean, ordea, ondorio horiek direla-eta, ezinbestekoa da ikerketei eta haien aplikazioei buruzko legeria antolatzeke oinarriak finkatzea.

Badakigu genomaren aurkikuntzak zer-nolako eragina izan duen, eta izango duen, zientzilariengan eta gizartean. Urte asko behar izan dira genomaz dakiguna jakitera iristeko, baina hala ere bizi-bizirik daude aurkikuntzak sortutako lehen harridura eta haren ondorio harrigarriak. Zientzien aurrerabideari esker egin ziren A bonba eta H bonbak ere. Eta harriduraz eta espantuz hartu zituen munduak. Gero jabetu zen aurkikuntzaren benetako arriskuez. Beraz, hasieran zientziaren aurrerabide handitzat hartu ziren aurkikuntza haien ondorio beldurgarriak ikusirik, ez ote ditugu ingeniaritza genetikoko aurrerabideak ere gertutik kontrolatu behar? Ez al ditugu hasieratik, oraintxe bertatik, neurriak hartu behar, berandu gabe? Galdera hauek garamatzate, era berean, estatuak ikerketak bideratzen eta haien emaitzak zabaltzen duen zeregina aintzat hartzera.

Estatuaren zeregina

Gu guztiona da arazoa; ez zientzilariena soilik, gerra den bezalaxe; ondorioak guztiok jasan behar baititugu, ezin utzi militarren esku soilik. Berdin bizitza eta heriotza ere: ezin ditugu zientzilarien lana gidatzen duen zori hutsaren esku utzi.

Azpi-azpian, honako problema hau planteatzen zaio estatuari: ikertzaileen ardurarena eta haien aurkikuntzen gaineko «jabetza-eskubideena». Arazo moralak dira horiek funtsean, eta gizartean eztabaidatuak izatea eskatzen dute.

Bi ikuspegi nagusi daude, aurrez aurre, estatuak ikerketa zientifikoak babesteko eta sustatzeko duen ardurari dagokionez. Ikuspegi horietako baten arabera, zientziak aske behar du izan, aurrera egin nahi badu: estatuaren kontrolpetik aske. Ikuspegi horren arabera:

- Estatuak ikerketa zientifikoetatik at gelditu behar du; ez du haietan parte hartu behar.
- Estatuak ez ditu ikerketen emaitzak zabaldu behar. Ikertzaileek erabaki behar dute emaitzen berri eman ala ez; haiek baitira beren lanaren emaitzen jabe.
- Ez dagokio estatuari ikerketak alde batera edo bestera bideratzea, ezta haien aplikazioak kontrolatzea ere.
- Arriskutsua izan daiteke estatuaren esku hartzea; estatuak bere ideologiaren tresna bihur baitezake zientzia, ezaguera berriak bilatzea berez desinteresatu izan beharraren kaltetan.

Besteentzat, berriz, gizartearen harmoniaren arduradun da estatua, eta ikerketaren gaineko kontrola izan behar du. Hona hemen horien argudioak:

- Sistema demokratiko batean, zientzia ez da ideologia ofizialaren mendeko tresna bihurtuko; beraz, estatuaren kontrolpean egon daiteke, aurrerapenak mugatu gabe.
- Estatua da gizarte-batasunaren eta legearen aurreko berdintasunaren berme.
- Estuari dagokio esku hartzea, gizabanakoa arriskuan denean, gizarteko oreka haustear dagoenean edo gizarteko ordenari eraso egiten zaioenean.

Erabat elkarren kontrakoak dira bi ikuspegiak, estatuaren eginbeharrari buruz. Nola elkartu? Nola bateratu ingeniari buruzko bi iritziok? Hau da, nola lortu estatuak gizartearekiko duen ardura bere gain hartzea eta, aldi berean, ikertzaileei beren lanean inolako mugarik ez ezartzea?

Lehenik, esan beharra dago ez direla elkarren kontrakoak estatuaren bi egitekoak. Aldi berean izan daiteke ikerketa-askatasunaren babesle eta ikerketaren ondorioen kontrolatzaile. Batez ere, bioteknologiaren alorrean.

Bigarrenik, ezagunak dira, dagoeneko, bioteknologi ikerketen ondorio batzuk; estuari dagokio erabilera arriskutsu edo kaltegarrietatik babesteko neurriak hartzea.

Hirugarrenik, bioteknologi ikerketak eta haien aplikazioak arautzea ez da zientzilarien kontrako erasotzat hartu behar; besteak beste, beraiek ere ez dutelako beren aurkikuntzen erabilpena menperatzen. Beraz, agintariekin batera lan egin beharko lukete ikertzaileek, hauen aurkikuntzak etikaren aurka erabil ez daitezen.

Azkenik, bioteknologiak eragin handia dute gizabanakoaren eta gizartearen arteko harremanetan, zalantza jartzen baitira gizabanakoen berdintasuna, gizartearen batasuna eta talde-izaera bera ere. Horrexegatik parte hartu behar du estatuak alor horretan, beste edozeinetan baino gehiago, seguruenez.

Ezra N. Suleiman - *Albistaria*: 96. alea, 1995eko otsaila-martxoa (moldaturik)

1. Zer dio artikulugileak ingeniaritza genetikoaz?
 - a) Bizitza eta heriotzari buruzko galderei erantzun diela.
 - b) Erabat argitu dituela orain arteko biologi prozesuari buruzko ideiak.
 - c) Haren inguruan, azterketei fruitua aterako dieten aditu taldeak sortu direla.
 - d) Gizabanakoaren eskubideez hausnarketa egitea eskatzen duela.
2. Andrew Kimbrellen esanetan, jakitun askoren iritiz...
 - a) umekiak erabiltzeari utziko zaio, epe laburrean.
 - b) umekiak erabiltzeko eragozpenak gutxitu egingo dira, berandu gabe.
 - c) umekiak erabiltzeak orain adinako higuina sortzen jarraituko du.
 - d) etorkizun kaxkarra du umekien erabilpenak.
3. Zein jarrera dute filosofoek eta moralistek eztabaida honetan?
 - a) Alderdi etikoarekiko kezka agertzen dute.
 - b) Aurrera begira, alderdi etikoaz eztabaidatzen hasiko dira.
 - c) Ikerketak egin ondoren, nola edo hala aplikatzea eskatzen dute.
 - d) Hauek kezkatzen dituztenak ingeniaritza genetikoko teknikak dira.
4. Zer dio idazleak genomaren eta bonben aurkikuntzaz?
 - a) Genomaren aurkikuntzak orain arte izan duen eragina ez duela izango aurrerantzean.
 - b) Urrun geratu dela genomaren aurkikuntzak ekarri zuen ezustekoa.
 - c) Mundua, gizadia, A eta H bonben jabe egin zen ikaraturik.
 - d) Genomaren eta lehegailuen aurkikuntza ingeniaritza genetikoaren munduarekin alderatzeko aipatzen ditu.
5. Zer pentsatzen du artikulugileak ingeniaritza genetikoaren emaitzez?
 - a) Aurkikuntza guztiak bezala, alor honetakoak ere arriskutsutzat jotzen ditu.
 - b) Bere ustez, zientzilariena baizik ez da arazoa.
 - c) Gerraren ondorioak bezala, honenak ere paira ditzakegula.
 - d) Zientzilariek egiten duten lana zoritxarrekoztat jotzen du.
6. Ikerketa zientifikoak direla-eta aipatzen diren bi ikuspegietatik lehenak zer dio?
 - a) Ikerketen prozedura zientziari dagokiola eta emaitzen hedapena hein handi batean gizaritari.
 - b) Zeregin gutxi daukala estatuak ikerketa mailan.
 - c) Ikerketekiko estatuak neutraltasunez jokatu behar duela.
 - d) Estatuak parte hartzeak erabilpen interesatuak dakartzala berekin nahi eta nahi ez.

7. Bigarren ikuspegiak zer dio?
- a) Estatuak ikerketen jabe izan behar duela, sistema demokratiko batean.
 - b) Estatuak bere mende eduki behar duela ikerketa, gizarteak kalterik har ez dezan.
 - c) Zientzia gizartearen aurka doala, arriskua dakarrela berarekin.
 - d) Zientzilariek ikerketak beren kasa egiteko askatasuna izango dutela.
8. Zein da idazlearen iritzia bi ikuspegioren aurrean?
- a) Estatuak ikerketa prozesua haseratik amaieraraino kontrolatu behar duela.
 - b) Estatuak ikerketa-emaitzen erabilera zaindu behar duela.
 - c) Estatuak askatasunez jokatu beharko duela zientzilariekiko.
 - d) Estatuak batez ere bioteknologiaren arduratu beharko lukeela.
9. Zer dio bioteknologiaren ari denean?
- a) Bioteknologia arriskutsua dela babesteko neurririk gabe.
 - b) Bioteknologiaren ikerketen erabilpena arautzearen alde agertzen da.
 - c) Zientzilariek bioteknologiako teknikak ez dituztela menperatzen.
 - d) Agintarien eta zientzilarien arteko elkarlana proposatzen du, kristautasunari kalterik ez egiteko.
10. Zer eragin du bioteknologiak gizakiagan eta gizartean?
- a) Bioteknologia gizon-emakumeen arteko berdintasunaren aurka doa.
 - b) Bioteknologiak, besteak beste, gizarte batasunaren iraupena kolokan jartzen du.
 - c) Bioteknologiak gizabanakoaren eta gizartearen arteko harremanak sendotu egiten ditu.
 - d) Bioteknologia eta gizartearen eraketa ez datoz bat.

2.6. 1996/5/11

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Ruper Ordorikarentzat *So'ik so'*
 - a) diskoa grabatzen lagundu dion taldearen izena da.
 - b) Atxagaren poema bat da, diskoan sartzen duena.
 - c) bere bosgarren diskoaren izenburua da.
 - d) *Nuevos Medios* disketxearen izengoitia da.

2. Diskoan hamar kantu sartzen ditu. Nolakoak?
 - a) Denak berak bilduak.
 - b) Berak eta Atxagak bildu eta eginak.
 - c) *Emak Bakia Phonogauzak*-en lankidetzarekin argitaratu eta eginak.
 - d) Berak azken bi urteotan eginak, bat izan ezik.

3. Aspaldian bilatzen zuen zeozer hasi dela gauzatzen dio. Zer?
 - a) Bere barneko sonoritatea.
 - b) Buruan zeukan sonoritatea.
 - c) Bere lanen estratoak edo mailak.
 - d) Kitarrak ematen dion sonoritatea.

4. Ben Monder kitarra jole estatubatuarrak zer dio?
 - a) Lagun handia duenez, berarentzat jotzen duela.
 - b) Kutxa grabatu ziola Gasteiza jotzera etorri zen batean.
 - c) Bat-batean inprobisatzen ikaragarria dela.
 - d) Lengoaia berezi bat asmatu duela Ruperrentzat.

5. Zer esan nahi du *So'ik so'* ibiltzeak?
- a) Sororik soro ez ibiltzea.
 - b) Nor bere kasa ibiltzea.
 - c) Oñatin ez omen du inolako esanahirik.
 - d) Ez du ezer esan nahi; disko baten izenburua da.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. *Mugalariak* nor dira?
- a) Angel, Nando eta Ruper bera.
 - b) Angel, Nando eta Ben.
 - c) Angel, Nando eta Jose.
 - d) Angel, Nando eta Bernardo.
7. Musikariek ahalik eta freskoen jo dezaten...
- a) azken ordurarte ez dituzte kantak ezagutu.
 - b) materiala egin, jo eta gero grabatu behar da.
 - c) kantuaren alde jokatu dute.
 - d) inprobisazioari ekin diote.
8. Oso disko biribila atera zaiela dio.
- a) Debatea aurretik egina zegoelako.
 - b) Letrak onak zirelako.
 - c) *Mugalariak* musikari onak direlako.
 - d) Inprobisatzea atsegingarria delako.
9. Bakarkakoetan, zerk markatzen du bidea?
- a) Berak dioenak.
 - b) Kitarrak lehenik grabatuta edukitzeak.
 - c) Sinpletasuna nagusi izateak.
 - d) Inprobisazioak eta fresko jotzeak.
10. Akustiko-rockero osagaiak, Ruperrentzat...
- a) txanpon bereko bi aldeak dira.
 - b) ez dira oso bateragarriak.
 - c) *Hiru Truku* taldean baino ez dira batera azaltzen.
 - d) azken diskoan banatuta ageri dira.

IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) *Gaiaren eraketa eta garapena;*
 - b) *Hizkuntzazko aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - c) *Zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontutan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdietan oinarriturik egin dezakezu.*

Gaia: TABAKOA

Egun munduan 1.100 milioi erretzaile.

Tabakoak sortu gaixotasunengatik minutuko sei pertsona hiltzen dira. Egunean 8.640. Hilean? Urtean?

Tabakoak hogeita lau gaixotasun ezberdin sortzen ditu.

Zigarro batek 4.000 osagai kimiko ditu, horietatik 43 txit pozointsuak.



Datozen 50 urteetan 500 milioi pertsonak bizia galduko dute tabakoagatik.

Lehen ekoizlea: Txina.

Txinan, egun: 300 milioi erretzaile.



Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gai honi buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Erretzaile izateko eta ez izateko arrazoiak.
- Erretzaileen adina.
- Erretzeari buruzko arauak. Gizalegea.
- Helduen erakutsia.
- Osasunaren inguruko mitoak eta egiak...

Gaia: AISIALDIA EDO DENBORA LIBREA

Aukera zenbait:

- Bidaiatu
- Ligatu
- Irakurri
- Kontzertuak
- Kirola
- Telebista
- Familia
- Poteoa
- Bertsolaritza
- Dantza
- Zinema
- Antzerkia
- Erakusketak
- Hitzaldiak, e.a.
- Jaiak
- Xake jokoa
- Mus jokoa
- Paseatzea
- Lo egitea
- Denborapasak
- Sukaldaritza



GASTEIZ

'Hayal del Ponata Sistema. Arabako kobazulorik handiena' diapositiba emanaldia Gasteiz Mendi Elkartearen eskutik Luis de Ajuria aretoan 20.00etan.

'Idazmena lantzen: oinarriak' izeneko euskara ikastaroa.

Nekazal Hustirakuntzetan teknikiariak ikastaroa.

BARAKALDO

Taillerak eta ikastaroak: pintura, eskulanak, enkuadernaketak, sarioko dantzak, argazkigintza, bideoa, estetika, koreografia eta sukaldaritza. Informazio gehiago nahi izanez gero, (94) 482 01 42/95 telefono zenbakira deitu.

Ardi-Latxaren maneiua eta gaztagintza ikastaroa.

BASAURI

Gila umorista Social antzokian 20.30etan eta 23.00etan.

Ipuin kontaketa ikastaroa.

BILBO

'Bertso paperak' hitzaldia Juanjo Respaldizaren eskutik Matxintxu euskaltegian 22.00etan.

Sukaldaritza ikastaroa.

Idatz ezazu gai honi buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Aisialdiaren inguruko ohiturak.
- Aisialdia eta kontsumoa.
- Aisialdia eta adina.
- Aisialdiaren garrantzia gaurko gizartean.
- Aisialdia eta askatasun pertsonala...

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.
_____ *Etxetik irten bezain laster hasi zuen euria* _____ .
1. Jon igandean ezkondu zen, baina guk astelehenera arte ez genuen jakin.
_____ berri.
2. «Biharko afarirako ardo dexentea ekar dezakek?» galdetu zidaten lagunek atzo.
_____ ...n.
3. Liburu horren euskal bertsioa zorioneko itzultzaile horrek egin du.
_____ duzu.
4. Nirekin asper ez zaitezten, hementxe emango dut amaitutzat idazlantxo hau.
_____ nakizuen _____ .
5. Aizan neska, ez zekinat hori dena ordaintzeko lain izango dugun.
_____ ...entz.
6. Bere urtebetetzeko opari gisa huskeria bat eman zioten.
_____ ...tzat.
7. EAEn ekonomia %4 haziko da; hala ere, langabezia ez da %14tik jaitsiko. Nahiz eta _____ .
8. Oraindik korrikalari horri uste baino gehiago falta zaio munduko errekorra ontzeko.
_____ falta du _____ .

9. Hurrek amarekin euskaraz eta aitarekin arabieraz hitz egiten dute.
 _____ mintzatzen dira.
10. Tabernak ordu txikietan irekita egoteari desegokia deritzot.
 Ez dut uste _____ .

SINONIMOAK EMAN

Ondoko esaldi hauetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Eman hitz horien sinonimo egoki bana, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.

1. Etxetik irten zenean, **zaluki** abiatu zen arkaziek inguratzen zuten garitzara.
2. Bertan segitu zuen, ez zuen aldegin nahi **antza**, baina horretara behartu zuten.
3. «Behin ere baino goizago zatoz gaur» agurtu zuen. Morroi txikiak ez zion **diosalari** erantzun.
4. Bera ez zen izaten bera, baizik eta Anibal, entziklopedian azaltzen zen **ta-juzko** gizon bakarra.
5. Ez zekien ondo zergatik jokatzeko horrela, baina portaera horrek, **ez-bairik** gabe, errotua zirudien bere bizitzan.
6. Egia esateko, gutxi litzateke leku desiratua zitzaidala esatea. **Zinez** hitz egin da nolakoa zen jakiteko zoratzen nengoen.
7. Naufragatua zegoelarik makurtu egin zen, bai, **halabeharraren** aurrean.
8. Eta ez hori bakarrik, zakur batek **geriza** ere eskainiko lidake, ezein erostekotan zaildutako bat erosiko bainuke.
9. Ez zuen etxetik jalgitzea laket eta jalgitzekotan **eriren** bati laguntzeko izanen zen.
10. Patio batera sartu ziren. Musikaren istilua ia **pairaezina** zen.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

ITALO CALVINO, EDO LITERATURA ZERTARAKO, BESTELA?

Italo Calvino ez gogotik eta ez bihotzetik, baina bai lurretik joan zitzaigula hamar urte diren honetan, beste nobelagile italiar baten, Tabucchiren azken nobelako Pereira pertsonaiak esandako hitz batzuk ekarri nahi izan ditut, Cal-

vinoren literaturgintzari ezin hobeto egokitzen zaizkiolako: «Filosofia badirudi egiaz bakarrik arduratzen dela, baina beharbada fantasiak baino ez ditu esaten; literatura, aldiz, badirudi fantasiez arduratzen dela, baina beharbada egia esaten du». Izan ere, Calvino bere trilogia fantastikoagatik ezagutzen dute askok: *Il barone rampante*, *Il cavaliere inesistente* eta, euskaraz daukagun bakarra, *Bizkonde erdibitua* (Iñaki Ugartebururen itzulpena), baina obra oso zabal eta bide asko jorratu zituenaren egilea dugu.

Hiru elaberri horien eta ondoren etorri ziren besteen bidez, bere aurreko ildo neorrealistarekin nekatu eta gero, mundu fantastiko bat erabili zuen Calvinok, ikuspegi narratibo jostari batetik —baina jarrera ideologikoari muzin egin gabe— epaitzeko gaurko gizakiaren eta gizartearen errealtatea, alegien moduko kontakizun batzuen aitzakiarekin. *Il barone rampante*-n, lurrean egoteaz aspertuta dagoen baroi bat zuhaitzetan bizitzen hasiko da, mundu honek gizakion barruan uzten digun hutsune eta insatisfazioaren isladan; *Il cavaliere inesistente*-n, aldiz, barruan hutsik dagoen armadura/zaldun bat ageri zaigu, arimarik eta izatasunik gabeko gizaki modernoaren alegian. Eta *Bizkonde erdibitua*-n, gu guztion eta gure gizartearen alienazioa erakusten digu, gerlan gorputza bitan zatitua (alde bat ona eta bestea gaiztoa izanik, biak elkarren aurkako borrokan) geratzen den zaldun baten istorioarekin.

Baina hiru liburu hauek ez dira teknika honetaz baliatzen diren bakarrak, Calvinoren obran. Alegiaren bidea jorratzen du, orobat, baina mundu modernora itzuliz, neronek euskaratutako *Marcovaldo* liburuan; bertan ere topa daitezke bere literaturgintzaren ardatz nagusiak: kezka soziala, gizaki ahularen bizi-epopeia, gure gizartearen zentzugabekeriaren salaketa, dena ikuspegi errealista baina, aldi berean, dibertigarri batetik.

Calvinoren liburuak, gainera, irakurtzen hasi eta bukatu nahi ez diren horietakoak dira, eserialdi luze batean amaitu arte eskuetatik utzi nahi ez diren horietakoak. Baina bere fantasia, bere irudimena eta bere literatur-jolasa ez dira fantasia, irudimen edo jolas hutsa; Calvinoren literaturgintzak irakurkera bat baino gehiago onartzen du, eta hori ez da nolana hiko dohaina. Izan ere, literaturan mezua (eta, batez ere, konpromezua) edo biziari buruzko filosofia aurkitu nahi duenak aurkituko du, axalean geratzen ez bada, bilatzen duena; baina liburu batekin ondo pasatu nahi duenak ere izango du fantasiaren liluraz gozatzeko paradarik ere. Horregatik, eta idazle gutxik lortutako meritua da hau, helduek nahiz gazteek irakur ditzakete haren elaberriak, bi norabideetan gainera: hots, gazteen-tzat egindakoak oso erakargarriak dira helduentzat ere, eta alderantziz.

Literatura —eta literatura serioa, gainera— gozagarria egiten asmatu zuen Calvinok, eta pagaezineko zorra dugu berarekin. Seguru nago gure eskoletan gazteei literaturgileen bizitza, inguramen historikoa eta estilo-prozedurei buruzko katramilak ikasarazi eta testu-iruzkinak eginarazi ordez, besteak beste idazle italiar honen obrak irakurtzea aginduko balute, literaturzale gehiago lortuko lirakeela.

KOLDO BIGURI (Itzultzailea) *Egunkaria*, 1995eko irailaren 19a

1. Duela hamar urte, zer gertatu zen I. Calvinorekin?
 - a) Tabucchiren azken nobela argitaratu zuen.
 - b) Joan egin zitzaigun, Pereirarekin batera.
 - c) Gogotik eta bihotzetik ez ezik, lurretik ere joan zitzaigun.
 - d) Lurretik agian joan zitzaigun, baina, bihotzetik ezta pentsatu ere.

2. «Filosofia badirudi egiaz...» esaldia...
 - a) Calvinok noizbait esandakoa omen da.
 - b) Pereirak Tabucchiri esandakoa omen da.
 - c) nobelagile baten pertsonaiak esandako hitz batzuk baizik ez dira.
 - d) Pereira pertsonaiak Calvinoren literaturaz esandakoa da.

3. Calvino ezaguna da gehienbat...
 - a) euskaraz dagoen bere trilogia fantastikoagatik.
 - b) euskaraz dagoen bere trilogia fantastikoaren liburu batengatik.
 - c) trilogia osatzen duten hiru liburuengatik.
 - d) bere obra zabalagatik.

4. Zer dio *Il barone rampante* liburuari buruz?
 - a) Egun, ezin irakur daitekeela euskaraz.
 - b) Etxean egoteaz aspertuta dagoen baroi bat duela ardatz.
 - c) Ez diola Calvinoren jarrera ideologikoari muzin egiten.
 - d) Animatzen gaituela zuhaitzetan bizitzera.

5. Zer dio *Il cavaliere inesistente* liburuari buruz?
 - a) Aurki, euskaraz irakurri ahal izango dela.
 - b) Honetan ere fantasia eta jarrera ideologikoa uztartu zituela.
 - c) Zaldun arimadun baten alegia kontatzen duela.
 - d) Zaldun baten armadura duela aztergai.

6. Azkenik, *Bizkonde erdibitua* liburuak...
 - a) gure alde ona eta gaiztoa erakusten ditu.
 - b) zaldun baten gorpu zatitua aztertzen du.
 - c) gure gizartearen alienazioa eta geurea erakusten du.
 - d) gerlarien gorputz zatituak deskribatzen ditu.

7. Koldo Biguri itzultzaileak...
 - a) ez du Italo Calvinoren obrarik itzuli.
 - b) trilogia fantastikoa itzuliko du.
 - c) *Marcovaldo* liburua euskaratu du.
 - d) *Marcovaldo* Calvinoren obra euskaratu nahi luke.

8. Zein ez da Calvino literaturgilearen ezaugarrietako bat?
- a) Bere ikaragarrizko fantasia.
 - b) Bere irudimena, zalantzarik gabe.
 - c) Bere literatur-jolasa.
 - d) Axaleko mezua ematea.
9. Gure idazlearen elaberriak...
- a) helduek bakarrik irakur ditzakete.
 - b) erakargarriak dira heldu nahiz gazteentzat.
 - c) gazteentzat soilik dira erakargarriak.
 - d) gazteek bakarrik irakur ditzakete.
10. Koldo Biguriren aburuz literaturzale gehiago lortuko lirateke...
- a) idazle italiarren obrak irakurriaz.
 - b) idazle italiar honen obrak irakurriaz.
 - c) testu-iruzkinak eginaz.
 - d) literaturgileen bizitza ikasiaz.

2.7. 1996/9/28

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. Zertan datza telelana?
 - a) Beira-zuntzeko haria etxeetan sartzean.
 - b) Norbere buruarentzat lan egitean.
 - c) Norbere etxeko ordenadorea aritzean.
 - d) Etxean kanpoko ordenadore bati lotuta lan egitean.

2. Zein izaten da telelana bezalako teknologia aurreratuen aurrean ematen den erantzuna?
 - a) Askok, telelana egiteko aukera izan arren, baztertu egiten dute.
 - b) Jende ugari etxea lantegi bihurtzen du.
 - c) Askok, telelana egiteko aukeraren aurrean, beldurtu egiten dira.
 - d) Lantegiari muzin egin eta telelana aukeratzea da arruntena.

3. Estatu Batuetan teknologia aurreratuei buruz egindako ikerketek zer erakutsi dute?
 - a) Gizatasuna erabat galtzen dela.
 - b) Galtzen den gizatasuna beste bide batzuetatik lortu nahi dela.
 - c) Gizatasuna galtzen eta joera okerrak maitatzen hasten dela.
 - d) Gizatasunez jokatzeko bide egokia dela.

4. Zer gertatuko da talde-lanarekin aurrerantzean?
 - a) Ohizko lanetan baino aukera handiagoa izango da.
 - b) Teknologiaren aurrerakuntzak berak horretarako aukera emango du.
 - c) Aukera hori galduz joango da.
 - d) Teknologia atzeratuaz baliatzen direnek besterik ez dute egingo.

5. Zer dio telefonoari eta bideokonferentziari buruz?
- a) Batak zein besteak indibidualismoa areagotzen dutela.
 - b) Lehenengoak bezala bigarrenak ere harremanetara bultza dezakeela.
 - c) Telefonoak harremanak errazten dituen bezala, bideokonferentziarena ikusteko dagoela.
 - d) Bien arteko aldeak nabarmenak direla.

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. Zein izan da Europako Elkartearen orain arteko jarrera?
- a) Hizkuntz eta kultur ugaritasuna onuragarritzat jotzea.
 - b) Hizkuntz aniztasuna errespetatzea.
 - c) Hizkuntza eta kultura ugari izatea desegokitzat jotzea.
 - d) Hizkuntza eta kultura askori oztupoak jartzea.
7. Zer erakutsi dute Jugoslavia eta Sobietar Batasunaren kasuek?
- a) Tokian tokiko nortasunak begirunea behar duela.
 - b) Nortasunik gabeko herriak erraz apurtzen direla.
 - c) Tokian tokiko nortasuna ez errespetatzeak jendearen belarriak tente jartzen dituela.
 - d) Tokian tokiko nortasuna errespetatu dela.
8. Zer ekarriko luke aldibereko itzulpen automatiko ahotsezkoak?
- a) Grekoak nahiz holandarrak hizkuntza bakarrean ulertu ahal izatea.
 - b) Itzulpenaren kalitate hobea.
 - c) Batek bere hizkuntzan emana, besteak berean jaso ahal izatea.
 - d) Guztiok hizkuntza amankomuna izatea.
9. European hartu nahi diren bide berrietan,
- a) euskarak ezingo du asmatu.
 - b) arriskuak daude euskararentzat.
 - c) euskara bera jartzen da arriskuan.
 - d) euskaldunok ez dugu asmatuko sartzen.
10. Zer esan nahi zuen Etxepareren «Euskara jalgi hadi plazara» esaldiak?
- a) Bazela garaia plazan euskara erabiltzen hasteko.
 - b) Gutenberg-en teknologiari esker zabaldu zela euskara.
 - c) Orduko teknologia berria erabili beharra zuela euskarak.
 - d) Bazela garaia liburuak plazetara ere ateratzeko.

IDAZLANA

1. Argi idatzi behar da, eta al bait garbien.
2. Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.
3. Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:
a) Gaiaren eraketa eta garapena; b) Hizkuntzazko aberastasuna eta zehaztasuna; c) Zuzentasuna.
4. Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.
5. Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontutan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdietan oinarriturik egin dezakezu.

Gaia: ERREPIDE-ISTRIPUAK


Oporraldian istripu ugari izaten da. Urtean zehar ere bai, asteburuetan bereziki.

Alemanian jende gutxi hiltzen da errepideetan.



Suedian 1989 arte gehieneko abiadura 110 km./orduko zen autopistetan. Aldatu eta 90 km./or. jarri zuten. Istripuetan, hala ere, bi aldiz gehiago hil ziren.

Frantziako datu batzuk: istripuetan hildakoen %20 erdi-lotan zihoazen; %30 oso nekatuta; %8,5 abiadura handian.



Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gai honi buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Aurtengo irteera eta itzulera operazioak.
- Istripuen arrazoiak.
- Zer egin istripu gutxiago izateko? Kanpainak beharrezkoak al dira? Eta isunak?
- Babes-neurriak: segurtasun-uhala, kaskoa...
- Auto-gidariari zuzendutako aholkuak.
- Istripuak eta gazteak.

Gaia: **ATLANTA 1996**




Aurten hiru kirol lehenengo aldiz.

Dominak.
Nagusi izan diren nazioak:

1. EEBB
2. Errusia
3. Aiemania



1,6 bilioiko aurrekontua.
5,1 bilioiko eragina Georgiako ekonomian
10.788 kirolarik parte hartu dute.
39 euskal kirolari.
2 milioi ikusle bertan.
15.000 kazetari.
456 milioi dolar ordaindu ditu NBC telebista kateak eskusiba izateagatik.



Euskaldunek lau domina.
— bi urrezko;
— zilarrezko bat;
— brontzezko bat.

Idatz ezazu gai honi buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauetaz balia zaitezke:

- Antzinako eta gaurko Joko Olinpikoak: garapena.
- Kirolari amateurak eta profesionalak.
- Kirola eta nazionalismoa.
- Joko Paraolimpikoak.
- Doping-a.
- Dirua eta ospea.

ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan

etorritakoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen euria.
_____ Etxetik irten bezain laster hasi zuen euria _____ .
1. Ez duzu urrutira joan beharrik egun ederrak gozatzeko.
_____ barik _____ goza _____ .
2. Gorputzaldiaren araberakoa zen aitonaren umorea azken hilabeteetan.
Nolako _____ .
3. Hiru urte luzeren buruan amaitu zuten eraikin erraldoia.
_____ behar _____ .
4. Goiza argitu baino lehen hartu genuen bizileku berrirako bidea.
_____ orduko ekin _____ .
5. Sendagileak bere burua zaintzeko esan zionetik ez daki zer jan, ezta zer edan ere. Horrelaxe dabil.
_____ dakiela _____ .
6. Rugbyan indarra da ezaugarri nagusia; beste zenbait kiroleetan, berriz, ez.
_____ ez bezala _____ .
7. Diotenez, eskubiaz bezala ematen dio baloiari ezkerrez ere.
_____ bezain _____ omen _____ .
8. Beharbada, norberaren handinahikeria izango da gure gaur egungo egozinearen sortzailea.
Baliteke _____ sortzea _____ .

9. Zuei horrelakorik gertatuz gero, ez zenukete atarramendu onik aterako, duzuen eskarmentu urriagatik.
 _____ ba... _____ -eta.
10. Gizakirik zoriontsuena osasuna, maitasuna eta dirua dituen omen da.
 Ez _____ baino.

SINONIMOAK EMAN

Ondoko esaldi hauetan zenbait hitz azpimarratuta dituzu. Eman hitz horien sinonimo egoki bana, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.

1. Non ibili zara ba arropa horren **lohi** ekartzeko?
2. Gizon alferra, etxe eta umeen **galgarria**.
3. Behin eta berriz gogoratzen zion **erantzunkizuna** berarena zela; halere, bereari eusten zion beti.
4. Ondo ari haiz, bai, **lausenguka**, baina uste diat alferrik ari haizela.
5. **Ebasle** fina omen zen, azkenean harrapatu bazuten ere.
6. Irina eta ura **ezinbestekoak** dira ogia egiteko.
7. **Makal** dabil Mikel; txeko bat egin beharko du lehen bezain zindo eta bizi egoteko.
8. Horrek ez omen du arrazoi handirik izan behar, **txilioka** dabil-eta.
9. Euren alaba tuntunari aise **lagatzen** zioten festetan eta erromerietan goizaldera arte ibiltzen.
10. Gure anoetar ospetsuak kazetari **andanaren** galderei erantzun beharra izan zuten.

IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrenetatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

MORALA KIROLETAN?

Hitzaldiak eta errealitatea

Badirudi etika, negozioen munduan sartu berria den kontzeptua, kirolaren muin-muineko elementua dela. Zer da, izan ere, kirola baino etikoagorik? Kirol munduko mitoei indar ikaragarria dute: kirola betikoa dela eta beti irauten due-

la (historiaz at dago kirola), giza izateari berari atxekita dagoela kirola (gizakia animalia kirolaria da) eta kirola ustelduta dagoela (kirol garbia, neutroa erabat desbideratu dute eta ustelduta, bahituta dago).

Kirolaren zerizanari buruz bat etorri beharko genuke lehenbizi. Zentzuak izen horren pean gorputz-ekintza guztiak biltzen ditu, hasi lagunekin txirrinduz egindako txango batetik eta Futboleko Munduko Koparaino. Definizio hori zabalegia da, ordea, eta, ondorioz, baliogabea. Gauzak zorrotzago hartuz gero, kirola lehiatzeko ekintza fisikoa da, erakundeetan txertatua eta historikoki gizarte industrialduarekin lotura estua duena. Lehian oinarria duten gizarteetan nagusi den gorputz-ekintza da kirola, arau batzuen mende dagoen norgehiagoka, gorputzen mailaketa esan nahi duena. Ez da aspaldikoa gizartean sistematikoki egitate handiak lortzera emandako ihardun fisikoa: gaurko kirola ez da beti izan dena. Horregatik, bidezkoak dira honako galdera hauek: zer balore sustatzen du egungo kirolak? Ez al da izugarria aldarrikatzen dituen eta egiatan gauzatzen dituen baloreen arteko aldea?

Morala eta erlijioa

Kant-ek dioenez, Jainkorik gabe ez dago moralik. Erlijiozko sinesmenaren eskakizunetan oinarritzen ditu nozio moralak Pierre de Coubertin Olinpiaden berritzaileak ere. Bere *Mundu osoko kirolari gazteei* liburuan (1927) honela dio: «Hogeita bost mendeko antzintasuna duen instituzio bat berritzean, zuek gure arbaso handiek zuten kirolaren erlijioarekiko atxekimendura itzultzea nahi genuke. Gaurko mundua ahalmenez betea dago eta, aldi berean, hondamendian behera amiltzeko arrisku handi baten aurrean, eta olinpismoa leialtasun eta garbitasun moralaren eskola izan daiteke orobat indar fisiko eta pairamenaren ikasbide delarik». Ez du Coubertin-ek zalantzarik: kirolak «lotura estua du moralarekin», erlijioak duen bezalaxe. Kirola hedatzeak berrikuntza sozial eta etiko zabala ekar dezake, eta horrela zibilizazio berri bat moldatu. Kirolak bere gaitz guztietatik askatu behar du gizartea (alkohol-zaletasuna, ohitura ustelak, gaiztakeria, alferkeria, neurririk gabeko erotismoa, etab.) eta, klaseen arteko borroka behin betiko gaitututa, elkartasun berri bat, batasun sakratua sortu.

Doktrina filosofiko-erlijioso hori da —bere hitzak ditugu— atzo eta gaur kirolaren indar terapeutikoarekin eta «gorputzak hobetuta animak hobetzeko» omen duen gaitasunarekin gogoberotuta dabiltzan ideologo, kazetari eta idazleen inspiratzaile. Maurice Baquet, Frantziako Partidu Komunistaren teorikoak 1942an, munduko gerratea puri-purian zegoelarik, uste zuen kiroleko lehiak «lehengo ideal zaharra berpiztera eramango gintuela: gizaki eder, on eta ausarta, ez kiroldegian bakarrik, baita handik kanpora ere». Handik hamabi urtera, beste muturreko politikari batek, De Gaulleren aldekoa hau, bere *L'Essai de doctrine*-n zioen «Kiroletako ihardunaren muina ez da interesik eza, leialtasuna baizik (...). Joko garbia da kiroleko arau nagusia (...). Lehiaketako leialtasunak kiroldegian ezarritako baloreen egiazkotasuna bermatzen du. Gizatasuna ematen dio kirol munduari (...). Kirolak, gizabanakoaren garapen bide izanik eta

gizartearen antolakuntzan ezinbesteko elementu, lagundu egiten dio gizadiaren aurrerapenari».

Kirolari buruzko berbaldiaren historia, etengabeko hizjarioa, betiko hitz motel harrigarri horiek... hori al da kirolaren historia? Kirolari buruzko diskurtsoa ez al da, orain ere, izan behar lukeenaren diskurtsoa? Jaio zenez geroztik mehatxupean dago kirola. Jaiotza orduan bertan azaldu ziren gaitzaren lehen arrastoak eta orduantxe hasi sendatzeko ahaleginak. Jada 1902an salatzen zituena Pierre de Coubertin-ek moralaren aurka zeuden kirol erakusketa erraldoiak; kirola interesik gabeko mundu jator batean gara zedila eskatzen zuen. Dirua, gogorkeria, jukutriak, nazionalismoa, dopaia kirola hondatzen ari dira. Baina arduradunak beti ari dira «eskandalu hori zuzen dadila eta kiroleko moralak babesteko» eskatzen. Ez ote da gero galdera bat egiteko ordua iritsi: ba al du moralik kirolak?

Giza eskubideei eraso

Etikaren ikuspegitik ezin onar daiteke ekintza bat bere efikazia hutsarengatik zuzitzea. Nola aipatu, beraz, etika lehiaketako kirolean? Kirolariak, edozein mailatakoa delarik ere, xede bakarra du bere prestakuntzan: irabaztea. Aurkariari, bere buruari, denborari, guztiei aberriaren izenean irabaztea. Horretantxe du jatorria kirolaren ilusio erraldoiak, horregatik kirolariaren gorputza zaintzeko ardua. Baina lehiaketako kirola, ezer baldin bada, gorputzaz jabetzea da batik bat. Sistemak harrapatuko dio berehala kirolariari gorputza (entrenamendu trinko eta goiztarra, askotan isilpean geratzen den arazoa), robot bihurtuko dio (ahalik eta emaitzarik onena lortzeko), tratu txarra emango dio (masokismoa, arriskuak eta zauriak onartuz), menderatu eta galgatu egingo dio gorputza, merkantzia bilakatuz. Ekintza handi bat burutu nahian, zernahi egiteko prest dago kirolaria, bere nazio, eskualde edo herriko koloreak nagusi atera daitezten.

Ezin kirolaren etikaz hitz egin, beronen jatorrizko garbitasunean sinetsi gabe, gizarteak kirola erabili duen moduak berak ustelduta daukan ideala onartu gabe. Kirolean etika badagoela diotenak begiak nahita ixten ditu kirol horrek maiz aski giza eskubideei kalte egin diela ez ikusteko.

Ugari dira, hasi Berlingo Olinpiadatik eta Moskukoraino, kiroleko etika eta ideal olinpikoak kakaztu dituzten gertaerak. Kirola agintearen ume kutuna izango da menpean daukan heinean. Ametsen mundua da, absolutuaren bila dabil, ez egiaren bila. Stendhal-ek, adimen zientifikoaren moralitasunaz ariki, matematikarekiko gogoberoa azaltzen zuen, «han ez baitu gezurrak lekurik». Kirolari eta ikusleek, Marcel Mauss-ek «gizartearen ezinbesteko sinistea» deitzen duena onartzearekin bat, beren buruak engainatu eta azaluskeria onartzen dute.

MICHEL CAILLAT

UNESCOren Albistaria, 88. alea. 1993 urtarrila-otsaila-martxo

1. Zer harreman du kirolak beste zenbait alorrekin?
 - a) Negozio munduan sartuta dago.
 - b) Ez du zerikusirik etikarekin.
 - c) Garbi dago etika oinarritzko elementua dela kirolean.
 - d) Etika kirolaren osagai garrantzitsua da, antza.

2. Artikulugileak zer dio kirolaren definizioaz ari denean?
 - a) Denok berdin definitzen dugula.
 - b) Kirola gorputzarekin egindako ekintza oro dela.
 - c) Gizarteko hainbat alorrekin harremana duen gorputz iharduera dela.
 - d) Industri iraultzarekin batera sortu zela.

3. Zer jatorri du kirolak?
 - a) Gizarterik nagusienetan du oinarria.
 - b) Jatorrizko bi ezaugarri araudia eta lehia dira.
 - c) Eraitza handiak erdiesteia izan du helburu hasieratik.
 - d) Ez da hain aspaldikoa.

4. Pierre de Coubertin-ek zer pentsakera zuen?
 - a) Olinpiadak sortzerakoan sinesmen erlijiosoa izan zuen abiapuntu.
 - b) Ez du aintzakotzat hartzen erlijioa.
 - c) Kant-ek ez ezik honek ere oso lotuta ikusten ditu erlijioa eta morala.
 - d) Honen ideia moralek Kant-engan dute oinarria.

5. Zer dio *Mundu osoko kirolari gazteei* liburuan?
 - a) Kirola duela 25 mende sortu zela.
 - b) Aurrekoek zuten kirol jarrerarekiko mira adierazten du.
 - c) Gaurko munduak duen ahalmenarekin, ez dagoela porrot egiteko arriskurik.
 - d) Olinpismoak, guztiaren gainetik, morala irakatsi behar duela.

6. Kirolak zer lotura du gizartearekin?
 - a) Kirolak indarra galtzeak zibilizazioari berrikuntza ekar diezaioke.
 - b) Kirola indartuko bada, gizarte mailako aldaketa egin behar da.
 - c) Kirolak ez du arazo konpontzaile izan behar.
 - d) Gizartera elkartasuna ekarriko du.

7. Zer esan daiteke kirolaren inguruko hausnarketaren bilakaeraz?
- a) Kirolaz ez dela asko hitz egin.
 - b) Orain arte ez bezala, orain kirolak zer izan behar lukeen dela gaia.
 - c) Sorreratik dagoela arriskuan kirola, baina konpontzeko saioak berriak direla.
 - d) Kirolaren arazoei konponbidea aurkitzeko saioak ez direla gaur goizekoak.
8. Lehiaketa mailako kirolak zein ezaugarri ditu?
- a) Kirol horiek etikoak dira egilearen ustez.
 - b) Kirolari ororen xedea garaipena da.
 - c) Kirolaria aberriari irabazteko prestatzen da.
 - d) Kiroletan gorputzaren jaun eta jabe da kirolaria.
9. Zer gertatu zen Berlinen eta Moskun?
- a) Olinpiaden hastapenak Berlinen izan ziren eta Moskun izan zuten jarraipena.
 - b) Berlinen hasi eta Moskun amaitu ziren etika zikindu zuten hainbat gertaera.
 - c) Berlingo eta Moskuko Olinpiadetan jazo ziren gertaera itsusi guztiak.
 - d) Besteak beste, Berlingo eta Moskuko Olinpiadak dira hainbat jazoera ilunen adibide.
10. Segidako baieztapen hauetatik zein da egia?
- a) Botereak badu eragina kirolean.
 - b) Kirolean dena polita denez, ametsen munduari dagokio.
 - c) Kirolaren xedea egia absolutua da.
 - d) Kirolariek eta jarraitzaileek dena onartu behar dute egilearen ustez.

3. ERANTZUNAK & ENTZUTEZKO ULERMENENKO TESTUAK

3.1. ATARIKO PROBAK

3.1.1. 1995/5/6

- | | | | | |
|-------|-------|-------|-------|--------|
| 1) b | 21) d | 41) b | 61) d | 81) d |
| 2) c | 22) b | 42) a | 62) c | 82) d |
| 3) a | 23) c | 43) a | 63) c | 83) d |
| 4) b | 24) a | 44) d | 64) d | 84) a |
| 5) c | 25) c | 45) a | 65) b | 85) d |
| 6) b | 26) c | 46) d | 66) b | 86) b |
| 7) a | 27) d | 47) b | 67) c | 87) b |
| 8) c | 28) d | 48) a | 68) b | 88) c |
| 9) b | 29) b | 49) b | 69) c | 89) d |
| 10) a | 30) d | 50) d | 70) c | 90) a |
| 11) a | 31) d | 51) b | 71) c | 91) d |
| 12) b | 32) b | 52) b | 72) b | 92) d |
| 13) a | 33) d | 53) a | 73) b | 93) d |
| 14) b | 34) b | 54) b | 74) a | 94) d |
| 15) a | 35) c | 55) b | 75) d | 95) c |
| 16) a | 36) d | 56) c | 76) d | 96) a |
| 17) a | 37) d | 57) a | 77) a | 97) c |
| 18) c | 38) d | 58) b | 78) c | 98) a |
| 19) d | 39) c | 59) d | 79) b | 99) b |
| 20) b | 40) b | 60) d | 80) d | 100) c |

3.1.2. 1995/9/16

- | | | | | |
|-------|-------|-------|-------|--------|
| 1) b | 21) d | 41) b | 61) a | 81) c |
| 2) b | 22) a | 42) a | 62) c | 82) b |
| 3) c | 23) d | 43) c | 63) c | 83) a |
| 4) a | 24) b | 44) a | 64) d | 84) a |
| 5) b | 25) c | 45) c | 65) d | 85) b |
| 6) c | 26) d | 46) c | 66) d | 86) b |
| 7) b | 27) b | 47) c | 67) d | 87) a |
| 8) c | 28) a | 48) b | 68) d | 88) a |
| 9) c | 29) b | 49) a | 69) c | 89) c |
| 10) b | 30) a | 50) b | 70) a | 90) a |
| 11) c | 31) b | 51) b | 71) c | 91) a |
| 12) a | 32) c | 52) b | 72) d | 92) a |
| 13) b | 33) a | 53) d | 73) c | 93) a |
| 14) c | 34) c | 54) c | 74) d | 94) c |
| 15) b | 35) d | 55) b | 75) a | 95) a |
| 16) d | 36) b | 56) c | 76) a | 96) a |
| 17) b | 37) d | 57) d | 77) b | 97) d |
| 18) c | 38) c | 58) d | 78) c | 98) c |
| 19) b | 39) a | 59) a | 79) b | 99) a |
| 20) a | 40) b | 60) d | 80) c | 100) d |

3.1.3 1996/4/20

- | | | | | |
|-------|-------|-------|-------|--------|
| 1) b | 21) d | 41) c | 61) d | 81) a |
| 2) c | 22) d | 42) b | 62) d | 82) a |
| 3) a | 23) d | 43) d | 63) b | 83) d |
| 4) b | 24) d | 44) a | 64) d | 84) d |
| 5) c | 25) b | 45) d | 65) d | 85) d |
| 6) c | 26) a | 46) c | 66) b | 86) c |
| 7) b | 27) b | 47) d | 67) a | 87) b |
| 8) a | 28) d | 48) a | 68) c | 88) b |
| 9) a | 29) c | 49) a | 69) d | 89) c |
| 10) c | 30) b | 50) a | 70) d | 90) c |
| 11) a | 31) b | 51) b | 71) c | 91) a |
| 12) c | 32) c | 52) b | 72) c | 92) a |
| 13) c | 33) b | 53) d | 73) b | 93) a |
| 14) d | 34) b | 54) b | 74) d | 94) c |
| 15) c | 35) a | 55) c | 75) a | 95) b |
| 16) d | 36) b | 56) b | 76) b | 96) a |
| 17) c | 37) d | 57) a | 77) c | 97) b |
| 18) c | 38) a | 58) d | 78) b | 98) c |
| 19) a | 39) b | 59) b | 79) a | 99) c |
| 20) d | 40) d | 60) a | 80) a | 100) d |

3.1.4 1996/9/14

1) c	21) c	41) d	61) d	81) b
2) b	22) b	42) d	62) a	82) c
3) a	23) a	43) b	63) d	83) c
4) c	24) c	44) a	64) b	84) d
5) c	25) a	45) a	65) b	85) a
6) c	26) a	46) b	66) c	86) a
7) b	27) b	47) a	67) c	87) d
8) c	28) c	48) b	68) c	88) c
9) a	29) b	49) b	69) d	89) c
10) b	30) c	50) a	70) a	90) d
11) c	31) b	51) a	71) c	91) c
12) a	32) c	52) d	72) a	92) b
13) c	33) c	53) c	73) c	93) c
14) a	34) d	54) c	74) a	94) a
15) c	35) c	55) a	75) d	95) d
16) b	36) a	56) c	76) a	96) a
17) b	37) a	57) d	77) a	97) a
18) a	38) c	58) c	78) d	98) a
19) b	39) d	59) a	79) b	99) b
20) d	40) a	60) d	80) c	100) b

3.2. 1995EKO ETA 1996KO AZTERKETA IDATZIEN ERANTZUNAK

3.2.1. 1995/5/20

AHOZKOAREN ULERMENA I

ALBERTO SCHOMMER

ARGIA.– *Egunotan, Gipuzkoako herrietako jaietan argazkiak egiten ari zara. Zerbait berezia eskaintzen dizu Euskal Herriko pertsonak?*

ALBERTO SCHOMMER.– Dudarik gabe. Euskal Herriko pertsonak nortasun handia dauka, bere ezaugarriak bereziak dira. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko jendearen ezaugarri fisikoak ezberdinak dira. Pertsonaren aurpegia ikusi eta jakin dezaket nongoa den. «Azul» liburua Donostiari buruz egin ondoren, Gipuzkoari buruzko ikuspegi orokorra izango da prestatzen ari naizena: «Verde». Habanan ere izan naiz aurten lan bat egiten, eta bertako jendea ekarri nahi nuen nire argazkietara. Bertako jende xehea. Horretarako, gobernukoek edo bestela pentsatzen zutenek esaten zidatena ez nuen egin nahi. Jendea den bezala ezagutu nahi nuen, herri horri buruzko benetako ikuspegia izan; eta oso pozik nago. Hau izan da egin dudan lanik hoberenetarikoa.

A.– *Nola sentitzen zara egunkarietako lehenengo orrialdeetako argazkiak begiratu eta Ruanda edo Jugoslavia ohiari buruzko argazkiak ikusten dituzunean?*

A.S.– Badago gatazkak dauden toki batean argazkiak egiteko jende espezialdua. Dokumentalak egiten dituzte, errealitatearen fotokopiak. Ni ez nintzateke lan hori egiteko egokia izango, aurretik finkatutako ideia batekin joango nintzatekeelako. Gizakien mina edo itxaropena landu nahi izango nituzke, eta ez nintzateke kazetari ona izango, ez nukeelako errealitatea islatuko. Ezin dezakegu arinkeriaz ihardun.

A.– *Nola ikusten da Madriletik Euskal Herriko egoera?*

A.S.– Gaizki. Katalunia eta Euskal Herria bereziki gaizki, beren kaxa bizi nahi dutelako. Galiziarrek ez dute protestatzen; beraz, ez daude hain gaizkietsiak. Euskal Herrian bortizkeria dago eta Katalunian ez, eta ikuspegia okerragoa da Euskal Herriarekiko. Politikariek ikusten dute bi herriok beren kaxa jokatu nahi dutela, baina ez dago argi zein izan litekeen bidea, estatu federala izango den, autonomia, independentzia... Ezjakintasunaren ondorioz sortutako beldurra da. Gu nortasun eta indar handiko herria gara, historia daukagu, autonomia izan nahi dugu, gure foruak, gure eskubideak, eta izan eta defenditu behar ditugu. Euskaraz hitz egin behar dugu, baina ez dakiena baztertu gabe. Bata bestearen aurka borrokatu baino, elkar ulertu behar dugu. Bakoitzaren berezitasunetik abiatu eta unibertsalera iritsi. Alderantziz egingo bagenu Coca-Cola besterik ez genuke edango. Ez dugu jendea txakolina edatera behartuko; txakolina edatera gonbidatuko ditugu etortzen direnak, eta kanpora irteten garenean Valdepeñas hartuko dugu, esaterako. Ikuspegi unibertsala izan behar dugu.

A.– Kulturaren bizkortze eta hedapenerako lehentasun zerrenda egingo bagenu, zein tokitan ipiniko zenuke Guggenheim Museoa?

A.S.– Guggenheimek daukan irudi, indar eta botere handiarekin, New Yorkeko Museoaren ekitaldiak zabaltzen baditu, eta Euskal Herrira eta Espainiara moldatzen baditu, ona izan daiteke. Baina aurretik zeuden probintzia-museoak eta gainerako ekitaldiak baztertu gabe. Kultura sortzen badu eta beste hainbat gauza babestu, oso ondo.

J. GOIKOETXEA
Argia, 1994/9/11 (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

ALBERTO SCHOMMER

ARGIA.– Aurten sortutako Schommer Fundazioaren helburu bat zaletu bezala argazkigintzan dihardutenei profesionaltzeko aukera eskaintzea da.

ALBERTO SCHOMMER.– Baina epe luzerako helburua da. Argazkigintza eskola nazionala sortu nahi dugu.

A.– Zein izan beharko litzateke gaur egun fundazioaren zeregina?

A.S.– Fundazio bat sor daiteke hildako artista baten obra gordetzeko, edo fundazioak izan dezake bizirik dagoen artistaren baten obra. Fundazio batek bizia izan behar du, sortzaile izan behar du, ideiak trukatzeko tokia... Nire fundazioak bi areto ezberdin dauzka Gasteizko Arte Ederretako Museoan: batean nire obrak ikus daitezke, eta bestean mundu osoko argazkilarienak.

A.– Hogeita bost urte dira Arantzazuko Basilika berria 14 apostoluekin zabaldu zenetik. Gogoratzen dituzu garai horretako istiluak?

A.S.– Ikusi nituen 14 apostoluak bide bazterrean. Oteizaren laguna nintzen, eta basilika berritzen parte hartu zuten gainerako artistak ere ezagutzen nituen. Iraultza beti aldaketa da, eta artea etengabeko aldaketa. Artistak iraultzaile izango ez balira leizezuloetako pintura lantzen egongo ginатеке oraindik, edo kubismoa margotzen... Arteak aldatu egin behar du, askotan akatsak eginez. Artista batek sinesten badu beti zuzena dela, aurretik zegoena baino hobea, iraultzaile txarra da. Iraultzailea berriztatzailea da, baina huts egin dezake. Artista da iraultzailerik handiena, benetako iraultzailea. Adierazpide berriak bilatu behar ditu etengabe: kontzeptu eta forma berriak. Castro egoera oker baten kontra altxatu zen, aldatu eta egoera zuzen bat lortu asmoz. Bera bidegabea da orain, baina aurrerakuntzarik ekarri du. Kubako herria behartsua da, ez dauka ezer baina ez da miserablea. Kultura daukate. Latinoamerikako gainerako herriek izan dezaketena baino aberatsagoa. Baina une honetan Castrok agintea utzi behar du herria lur jota baitago.

A.– *Asko aldatu al da haurtzaroan ezagutu zenuen Gasteiz?*

A.S.– Dexente aldatu da. EAEko hiriburu administratiboa denez gero sumatu dira egindako diru inbertsioak. Kirola lantzeko toki ugari daude orain. Bi klub nautiko daude egun, kiroldegi ugari, eta emaitzak kirol ezberdinetan ikus daitezke, saskibaloian besteak beste. Kultur arloan ere nabarmenak dira hobekuntzak. Kultura dastatzeko aukerak ugaritu eta hobetu egin dira. Hor dago, konparazio baterako, Arabako Arte Ederretako Museoa, Irudi eta Teknologia Berrien Zentroa... Euskaraz ere gero eta jende gehiagok hitz egiten du.

A.– *Nola izan ziren zure hastapenak argazkigintzan?*

A.S.– Gazte nintzenean margolaritza, literatura eta zinema landu nituen, baina ez argazkigintza. Argazkigintza ez zitzaidan batere gustatzen. Behin, Feliu zinema zuzendariak *La familia del hombre* liburua utzi zidan. Pixkanaka argazkiak egiten hasi eta mundu honetan murgildu nintzen.

J. GOIKOETXEA
Argia, 1994/9/11 (moldaturik)

ENTZUTEKO ULERMENA

1c	2b	3c	4c	5b
6a	7a	8b	9c	10c

ESALDIAK BERRIDATZI

1. Agintariei dagokie erabaki zorrotz horiek *hartzea* eta ez beste inori.
2. Mirenek eta Anek elkarren *antza* omen zuten txikitandik.
3. Gaizki egin badu *ordain* dezala!

4. Hasieran gizakia barazkijalea izan zelako/zen *ustea* jabetu da ikertzaileen artean azken bolada *honetan*.
5. Gizonezkoek, egurretara ez joateaz *gain*, *uko* egiten zioten mendiko belardiak segatzeari. **(OHARRA: *gizonezkoak gaizki*).**
6. Berriak irratitik jaso *ahala*, hotzikarak hartu zion gorputza lagunari.
7. *Nola* pentsa dezake zu bezalako zahar batek gazteek egin ezin dutena egi-tea?
8. Ez zaio janari onak jatea baino *gutxiago* gustatzen ardo finak edatea. Ardo finak edatea ez zaio janari onak jatea baino *gutxiago* gustatzen. **(OHARRA: Alderantziz ere onargarriak bi esaldiak).**
9. *Nola ukatu* produktu asko eta asko telebistak bere zulo txotik saltzen di-tuela!
(OHARRA: *dituenik gaizki*).
10. *Besterik* ez genuen behar gure ametsak betiko gal zitezen!

SINONIMOAK

1. *otu*: bururatu...
2. *herabe*: lotsati, uzkur...
3. *metatu*: pilatu...
4. *pisupean*: zamapean...
5. *aldarte*: umore...
6. *liskarretan*: istiluetan, iskanbiletan, gatazketan...
7. *Berariaz*: Apropos, Gurata, Nahita, Beren-beregi...
8. *Abegi*: Harrera...
9. *Gogaitu*: Nazkatu, Aspertu, Nekatu...
10. *eskegita*: zintzilik, dilindan...

IRAKURMENA

1a	2c	3b	4d	5b
6d	7a	8b	9a	10b

3.2.2. 1995/5/27

AHOZKOAREN ULERMENA I

AURORA BILBAO: «Arma-salmentan Euskal Herriak *mea culpa* esan behar du»

HABE.– Hitz egiguzu zertxobait Gerra Nuklearraren Kontrako Nazioarteko Medikuen Elkarteari buruz.

AURORA BILBAO.– Medikuntzaren alorreko jendeak osatzen du elkarte. 1980an sortu zuten EEBBetako eta Sobiet Batasuneko bi kardiologo-taldek. Kontuan hartu Gerra Hotzaren tenorea zela, eta pentsa ezina estatubatuarrak eta sobietarrak hizketarako biltzea. Azken helburua guda nuklearraren mehatxua beti gure gainean dagoela adieraztea da, eta mehatxu hori kentzeko lan egitea. Gure lana garrantzi handikoa izan zen bi blokeak elkartzeko. Armagintzak eta guda nuklearrak osasunean zein ondorio dituen adierazi nahi dugu, eta politikari eta biztanleei esan arma nuklearrak inozokeria bat direla, eta ez dutela inolako babesik ematen, ez gudarik ekiditen. Gaur arte ez dute inongo gudarik ekidin.

H.– *Eta nola egin aurre gerra nuklearrari?*

A.B.– Sorburuan egin behar zaio aurre. Eta nahiz eta guda nuklearren iturria jendearen zentzugabekeria dagoen, guda honen iturburu materiala armagintza nuklearra da. Armagintzak ez du aurrera egingo arma horiekin saiakerarik egiten ez bada. Beraz, gure borroka osoa horixe da: saio horiei balaztak jartzea, desagertaraztea. Hitzarmen bat sinaraztea saiakera nuklear guztiak bukatzeko. Gobernuak sinatu dituzte arma nuklearrak gutxitzeko hitzarmenak, baina saiakera gehiago ez egitekorik ez.

H.– *Aurten izan al da saiakera nuklearrik?*

A.B.– Bai, izan dira. Eta hori Mendebalde-Ekialde gatazkarik ez dagoela. Adibidez, Txinak saiakera itzel-itzela burutu du. Ingalaterrak ere ez du bide hori itxi. Gure itxaropena Frantzia da: saiakerak eten egin ditu, behin-behineko etena da baina. EEBBek, ordea, ez dute etenik onartu.

H.– *Osasunari begiratuta, zeintzuk dira eztanda nuklear baten ondorioak?*

A.B.– Hori dosi eta indarraren araberakoa da. Baina Hiroshimak eta Nagasakik erakusten digute eztanda-puntuan, hipozentruan, heriotza erabatekoa dela, %100. Eta inguruetan ere jendea oso azkar hil zen. Baina bonba haiek, gaurkoekin konparatuta, jostailuak besterik ez ziren. Bonba haiek hamar bat kilotoikoak ziren; gaurkoak, aldiz, megatoika neurtzen dira: haiek baino 100 eta 1.000 aldiz indartsuagoak dira. Epe luzera, kezagarria da minbizian eta aldaketa genetikoetan izango duten eragina. Oraindik goiz da jakiteko. Berrogeita zazpi urte pasatu dira eta genetikan belaunaldiak hogeita hamar urtekoak dira.

HABE, 1992ko urriko 219. zkia. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

AURORA BILBAO: «Arma-salmentan Euskal Herriak *mea culpa* esan behar du»

HABE.– *Erradiazioak minbizia dakar.*

A.B.– Bai. Erradiazioak minbizia dakar. Hori frogatuta dago Hiroshima eta Nagasaki. Baita Pazifikoko saiakera nuklearretan ere. Madame Curiek, bere senarrak eta Irene beren alabak ere jasan zuten. Baita erradiazioa ikertu zuten lehen ikerlariek ere.

HABE.– *Armagintzak natura kutsatzen al du?*

A.B.– Zenbait jakitunek diotenez, armagintza, armen industria da natura gehien kutsatzen duena; saiakera nuklearrak ere kutsatzaileak dira. Eta horregatik, General Electric-i boikota egiten ari dira EEBBetan. Eta Europara ere zabaldu nahi dugu boikot hori. Konpainia horrek arma nuklearren osagaiak egiten ditu. Amerika kutsatzen ari da. Konpainia honen leloa «Bizitzara gauza onak ekartzen ditugu» da. Gaitzak diagnostikatzeko makina onak egiten ditu, baina, batez ere, heriotza dakar, arma nuklearrentzako osagaiak eginez. Guk, medikuak baikara, ez ditugu gaitzak diagnostikatzeko makina horiek erosi nahi. Ez erosteko indar egiten ari gara. Zoritxarrez, oso gutxi gaude elkartean, eta indar gutxi dugu. Ez erosi General Electric-en jenerorik. Osasunaren alde egin behar da lan. Osasunaren alde lan egiten duenak bakearen alde egiten du, eta alderantziz.

HABE.– *Zer egin dezake herri xeheak arma nuklearren kontra?*

A.B.– Aipatu dut General Electric-ena. Udalerriak ingurune ez-nuklear izendatu. Adibidez, Gernikak bezala, Satel-Life proiektuarentzat dirua eman. Hauteskundeetan ikusi zein jarrera duten alderdiek arma nuklearrekiko eta abar.

HABE.– *Gure herriak ba al du kontzientziarik?*

A.B.– Jendeak badu kontzientzia. Baina ekintzak aurrera eraman behar direnean, kontzientzia horren arabera ekintzak, oraindik makal samar gabiltza. Hemen urruneko kontu bezala ikusten da. Eta harrigarria da. Gure herriak ez du arma nuklearrik sortu, baina nor jartzen du zalantzan hemendik barrena, adibidez kajak erabiliz, arma nuklearrak igaro direla, eta arma nuklearrak egon direla amerikarren baseetan? Itsasontziei ez zaie portuetan arma nuklearrik daramaten galdetzen.

HABE.– *Arma-kontuetan besteak dira beti errudunak. Ba, Euskal Herriak ere badu errurik arma-salmentan.*

A.B.– Herrialde txiroek diru asko gastatzen dute armatan. Hirugarren Munduak ez ditu armak sortzen, guk saltzen dizkiegu, Lehen Mundukook. Eta armak erabiltzeko dira. Bestela, zertarako erosi? Arma-salmentan Euskal Herriak «*mea culpa*» esan behar du.

HABE, 1992ko urriko 219. zkia. (moldaturik)

ENTZUTEKO ULERMENA

1c	2d	3b	4c	5a
6c	7a	8c	9b	10b

ESALDIAK BERRIDATZI

1. *Beldurra diot* gaueko ordu horietan taxi barnean zenbait kaletan ibili beharri/behar izateari.
2. Unibertsitateko irakasle bati *zor* diot ikerketa zirrara garri horretan murgildu izana.
3. Eskutitzak irakurri *besterik* ez zeukan amaren estuasuna eta nahigabea somatzeko.
4. Bizitza osoan aurreratutako xoxak era horretan xahutzea *ere!*
5. Hamar mila pezeta *gora-behera* urte amaieran *ez gara* orain baino aberatsago(ak) izango (txiroago(ak) izango).
6. Nahiago nuke hemendik aurrerakoak zuek zeuek (guri) *kontatuko* bazenizkigute.
7. Erdi Aroko garai ilunetara jo *gabe* (ere) aurki daitezke jauntxoek bidegabekeriak.
8. Mundu honetan jende gogorak aurrera egiten duelako (duen) *ustea* izan zuen gaztetan, *baita* zahartzaroan ere.
9. Amore eman ezean, hemendik *nahiz* handik izorratuko zaitu hurrengoan.
10. Irribarrea zabaldu *ez ezik* begiak ere bizi-bizi jarri zitzaizkion, ideia dibertigarriren bat bururatu izan balitzaio *bezala*.

(OHARRA: puntu eta koma jartzen dutenei ezin zaie puntu erdia eman).

SINONIMOAK

1. *Gorespen*: Goralpen, Laudorio...
2. *malura*: zoritxarra, ezbeharra, zorigaitza...
3. *aitzin-solasean*: sarreran, hitzaurrean, atarikoan...
4. *lorryak*: arrastoak, aztarnak, oinatzak...
5. *garrastu*: zakartu, lastu...
6. *laiotza*: ozipela, itzaltsua...
7. *liskar*: gatazka, istilu, borroka...
8. *umelean*: hezean...
9. *Behiala*: Aspaldi, Antzina...
10. *sitsak*: biptiak (pipiak)...

IRAKURMENA

1d	2b	3a	4b	5a
6c	7b	8a	9a	10d

3.2.3. 1995/9/30

AHOZKOAREN ULERMENA I

ANNE IGARTIBURU

Euskal Telebistan hasi zinenean era askotako kritikak izan zenituen, batzuk oso txarrak.

Kritika batzuk gogorak izan ziren, baina beste asko onak. Inbidia asko dago mundu honetan. Hasten ari den emakume batek aurpegi polita erakusten duenean, eta programa bat eramateko gai dela azaldu, lagundu beharrean egurra baino ez zaio ematen. Jauzi profesional handia izan zen; ez zen erraza «Bulevar» edota «Show Show» saioak zuzenean eta bi hizkuntzatan egitea. Bestalde, ni ez naiz emakume ederraren paperean jartzen. Nire fisikoari buruzko istorio horrek ez du zentzurik. Kontua da makilatzen zarela, dotore jarri programetarako... Baina pena da jendeak ez ikustea horren atzean zer dagoen. ETBn mimatua sentitu naiz. Baina ez dira programa asko izan. «Bulevar»eko 9 saio eta «Show Show»ekoak. «Show Show» desastrea izan zen. Ez dut uste Euskal Telebista denik Isabel Pantoja ateratzeko leku egokiena. «Gautxori» saioaren proiektuarekin ekainean edo hasi ginen. Baina hasieran pentsatu genuenak eta gero aterako den saioak ez dute zer ikusirik. Hor konturatzen zara zuk halako ideiak dituzula eta gero zuzendaritza dagoela, eta dena moldatu egin behar dela.

Tele-Cinco-ra joateko aukera izan eta horixe erabaki.

Halako batean langabezian geratu eta Madrilerara jo nuen proba batzuk egi-tera. *Tele-Cincon* bi gala egin nituen, eta haiekin geratzeko esan zidaten. Orduan ikusi nuen telebista mundua ez dela ETB bakarrik. Ez naiz inorekin haserretu; ETB uzteak pena pixka bat eman dit, egia esan.

Tele-Cinco da Espainiako telebista kritikatuena.

Ez dit axola, neure programa inporta zait. Banekien hara joanda, saio arrosa batera gainera, halakoak esango zirela. Jendeari erakutsiko diot gauzak ongi egin daitezkeela, ez du axola non. Han nengoela, emakume bat ikusi nuen gona labur baino laburrago batekin. Emakume naizen aldetik iraindua sentitu nintzen. Hori aldatu egin beharko dute. Neure kasuan, adibidez, kontratuan eduki dudak klausula garrantzitsuenetako bat izan da: neure arropa eta irudia errespetatua izan dadila. Emakume haiek ez dakite beren irudia eta nortasuna defenditzen. Telebistako jendeak nahi duen modura joaten dira, programetako erduei jarraituz.

A. IRAZU
Argia, 28-32 orr. (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

ANNE IGARTIBURU

Ez al gara edertasun eredu jakin baten bonbardaketan bizi, estereotipoen agindupean?

Bai, eta tristea da. Agian estereotipoak markatzen dizkigute, baina horrek abantaila ere badu: dagoeneko badagoela horrekiko kontraposizio bat, jendeak beste zerbaiti begiratzen diola. Uste dut belaunaldi gazteek gero eta gehiago begiratzen dietela beste gauza askori. Ez dut uste gero eta uniformeagoak garrenik, nahiz eta akaso ez zaigun beste aukerarik ematen. Askotan pentsatzen dut norbaitek gu denok berdinak izatea nahi duela, berdin pentsatzea, eta esatea X belaunaldia garela eta horrelakoak. Denak ez gara berdinak, ordea, eta horrela balitz ez lirateke dauden arazo politiko eta sozialak egongo. Euskal Herriko gazteok, aukera gutxirekin, gure alternatibak lortzen ditugu. Gure artean konpontzea lortu dugu, nahiz eta batzuek elkarren aurka borroka gaitzen nahi duten.

Nola ikusten duzu Irlandako bake prozesua? Posible al da hemen?

Uste dut ez dela egun batetik bestera konponduko baina lehen pausuak behintzat eman dituzte. Euskal Herria egun dagoen bezala ez dut uste posible denik. Oso burugogorak gara, eta akats pilo bat dugu gure burugogorkeria horretan. Gure artean borrokatzen ari gara eta gero eta makalago bihurtzen. Kulturalki, politikoki, gazteak begiratuta... Euskal Herria oso aberatsa da, eta hori galtzen ari da. Horrek asko tristetzen nau. Gehiago hitz egin beharko genuke. Gure herria zoragarria da eta txorakeria handitan gabiltza.

Al Kairoko konferentzian, abortoa dela eta, Vatikanok bere indarra erakutsi du berriz ere.

Vatikanok duen indarra ez da harritzekoa, kontuan izanik 2.000 urte daramatzatela negozio horretan. Harrigarria da fedearen izenean horrelako inposaketak egitea, erlijioaren lehen oinarria errespetua eta maitasuna izanda. Abortatzeko erabakia norberarena da, eta lehenengo emakume horiek haurdun gera ez daitezen beste zerbait egin behar da. Vatikanok, azken finean, emakumea gero eta kontrolatuago nahi du, etxean...

Gazte bezala, nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?

Baikor naiz. Inguruan ikusten dut euskara bizirik dagoela. Komunikabideek zeregin handia dute horretan. Bertsolaritzaren gorakada pixka bat jaitsi da, eta jada ez ditugu gau eta egun entzun behar. Orokorrean, hala ere, euskararen alde gehiago egin daitekeelakoan nago. Euskara beharra da, ez luxua. Nire nortasuna lortzen dut euskaraz hitz egitean. Topikoa izango da, baina euskararik gabe ez dago Euskal Herririk.

A. IRAZU

Argia, 28-32 orr. (moldaturik)

ENTZUTEKO ULERMENA

1a	2c	3c	4d	5d
6b	7c	8b	9b	10d

ESALDIAK BERRIDATZI

1. *Zorakeria* da arazoak begibistan izan eta begiak ixtea.
2. Hamaika dira irakasleen eta gurasoen bultzadari *esker* aurrera atera direnak.
Hamaika dira irakasle eta gurasoei *esker* aurrera atera direnak.
3. Lotsaren lotsaz, esan behar nuena ez *nekiela* hurbildu nintzaien *lagunei*.
4. *Badirudi* musika-kaxa hartan herri-kanta alemaniar bat zegoela.
5. Gogora *dezala* nire aurkakoak nire asmoak betetzen *dituzten* horietakoa naizela.
6. Horrelako jarrera beroa egin eta hain jaki goxoak eskainiz *gero*, nola geratuko da, ba, zurera etorri *gabe!*
7. Zuek, eredu eta ispilu izan *beharrean*, lotsagarri agertzen zarete denon aurrean.
8. Aita aurrean egon *ezean*, neba-arrebek berehala *ekiten* zioten borrokari (borroka egiteari).
9. *Nahiago dut* hamaika urte genitueneko begirada xaloa oraingo etsipenezkoa *baino*.
10. Mikelek *aberatsarena* egiten du lagunena aurrean.

(Ordezko galderak)

1. Seme-alabak bideratu nahi izanagatik nork bere bidea hartu du gure aholkuak *aintzakotzat* hartu gabe.
2. Guk egindakoaren ondoren afaritxo bat *bederen* ordain dezatela.
3. Aholkurik eskatu *nahiko/nahi* izango banu, nik eskarmentua duenarengana joko *nuke*.
4. Jendea zutik eta txaloka jartzerainokoa izan zen atzo entzun genuen kontzertua.
5. Aitorrek, hori jakitean, hainbesteko/halako poza (hain poz handia) hartu zuen, *non* saltoka eta algaraka hasi zitzaigun (baitzitzraigun).
6. Zazpi edo zortzi urtekoa *nintzela* itzuli zen ene osaba Terralbara.
(OHARRA: «Zazpi edo zortzi urtekoa *nintzela* ene osaba Terralbara itzuli zen» gaizki dago galdegaiagatik).
7. *Etor* dadila P. Lewis abentura berriekin!
8. Esan ez diren hitzek *osatzen dituzte* isiltasun guztiak.

9. Eramaten nizkion fruitu, gazta eta arrain errearen *truke* ahuntz-esnea eta ahate-arraultzeak ematen zizkidan.
10. Orrialde haiek liburu bat osatzeko *adina ez zirenez*, testua luzatu egin behar zuela zioen.

SINONIMOAK

1. *aztura*: ohitura, ekandu, usadio...
2. *gomutaz gomuta*: oroitzapenez oroitzapen, gogorapenez gogorapen, oroipenez oroipen...
3. *zur eta lur*: harrituta, txundituta, aho zabalik...
4. *garbitu*: hil, akabatu...
5. *asabak*: arbasoak, aitalehenak, aitagoiak...
6. *ezari-ezarian*: pixkanaka-pixkanaka, poliki-poliki, emeki-emeki, apurka-apurka...
7. *iziotu*: piztu (biztu), irazeki, eratxeki, izeki...
8. *larreetarantz*: belardietarantz, zelaietarantz, landetarantz...
9. *jadetsi*: lortu, erdietsi...
10. *erruz*: asko, anitz, oso, arras, eurrez...

(Ordezko galderak)

1. *ausikiak*: horzkadak, haginkadak...
2. *horditurik*: mozkorturik, edanda, mozkorrik...
3. *abaildurik*: nekaturik, unaturik, akiturik...
4. *aiurri*: izaera, jite, nortasun...
5. *begitartean*: aurpegian, bisaian, musuan...
6. *izkiriatzen*: idazten, eskribitzen...
7. *muino*: mendiska, gain, tontor...
8. *bekaitzez*: inbidiaz, ondamuz, hegigoz...
9. *eralgi*: gastatu...
10. *ondoezik*: gaisorik, makal, makalik, eri...

IRAKURMENA

1d	2b	3a	4c	5d
6d	7c	8a	9b	10b

3.2.4. 1996/5/4

AHOZKOAREN ULERMENA I

EUSKAL KAZETARITZAK URREZKO AROA BIZI DU GARAIK HORRELA LAGUNDUTA

ARGIA.– Euskarazko kazetaritzan 1834tik 1959ra doan tartean ateratako aldizkari, egutegi eta almanakeak aztertu dituzu.

JAVIER DIAZ.– Euskal kazetaritza zer zen aztertu nahi nuen, oso eremu ezezaguna baita. Kazetaritza oso mesprezatuia izan da beti eta, beraz, jendearen arabera literaturaren historia egiteak merezi zuen, baina ez kazetaritzarena. Lan hau abiapuntua da eta espero dut ondorengoek azterketa horretan gehiago sakontzea.

A.– Zein bitxikeria aurkitu dituzu garai hartako kazetaritzan?

J.D.– Aldizkari amerikarrak, esaterako. Euskaraz idatziak daude baina eredu periodistiko amerikarrak. Los Angelesko *Eskualdun Gazeta* eta Kaliforniako *Eskual Herria* izenekoak azpimarra daitezke. Aldizkari hauek benetan onak ziren, oso informatiboak; nolabait esatearren, Pulitzer ereduaren jarraitzaileak. Azkena, gainera, %100 euskaraz argitaratzen zen.

A.– Bereziki harritu zaituen daturik?

J.D.– Garai hartan euskarazko komiki bat argitaratu zela jakiteak. Euskal Herrian izan den euskara hutsezko lehenengo komikia. 1927an argitaratu zen, *Txistu* izenez. Ez dakit nortzuk jarri zuten martxan. Itxura batean, Madrilgo arkitektura ikasle batzuek marrazkiak bidali eta ideia azaldu zuten. Ez dut, hala ere, sekula ikusi eta ez dakit gordetzen den ere.

A.– Euskara ideologia mailako tresnatzat hartua al zen?

J.D.– Karlista eta liberalen arteko lehian, esaterako, euskaldunenak karlistak zirelakoan nengoen. Euskarazko kazetaritza, baina, Donostiako liberalen astekari batekin hasi zen. Liberalak hirietan zeuden eta karlistak, berriz, herrietan. Herrietako apaiza karlista izan ohi zen eta pulpitutik botatzen zuen mezua. Liberalek beste hedabide bat behar, eta prentsan aurkitu zuten.

A.– Euskal Herrian argitaratzen ziren aldizkarien artean merezi al du baten batek aparteko aipamenik?

J.D.– *Eskualdunak* Iparraldean. Kazetaritzari dagokionez, eredu sortu zuen. Hegoaldean, ostera, *Argia* zegoen, oraingo ARGIArekin zerikusirik ez zuena. 1921ean hasi eta gerra arte iraun zuen. Profesionalak zeuden bertan. Eredu periodistikoa sortu zuten: argazkien erabilera ona, inprenta ere oso ona zuten. Haiek ipini zuten euskarazko kazetaritza modernitate bidean. Gainera, kaputxi-noekin batera laikoak ere baziren lanean.

A.– Herrialderik emankorrena?

J.D.– Gipuzkoa. Lapurdi ere bai. Iparraldeko egoera, nolana ere, oso ezberdina zen. Hegoaldean bazen indar politikoa, abertzaletasuna, euskaldunen eite guztiak biltzeko modukoa. Komunistek ere euskaraz idazten zuten eta sozialistek ere bai, Eibarren... Iparraldea, baina, Frantziako Administrazioaren menpe zegoen eta, ondorioz, arazoak zituzten argitaratzerakoan. *Eskualduna* emankorra izan zen arren, pentsamolde aldetik kontserbadorea zen oso: naziekin aliatu eta Espainiako gerran frankisten alde jarri ziren.

A.– Gainontzeko herrialdeetan zer gertatzen zen?

J.D.– Bizkaian bazen foko bat. Zornotzan apaizen elkarte bat sortu zen: Jangoi-kozale Vazkune. Aldizkari batzuk argitaratu zituzten, erabat erlijiozkoak. Bizkaian bertan jeltkideen aldizkari zenbait argitaratu zituzten eta batzuk euskara hutsean daude, *Euzko* esaterako. Hauek darabilten eredu linguistikoa, hala ere, ulertezina da. Araban eta Nafarroan egoera kaskarragoa zen.

A.– Aldizkari zenbait elebidunak ziren. Nola funtzionatzen zuen elebitasun horrek?

J.D.– Era ezberdinean. Euskararen portzentaia aski txikia zuten batzuek, gehixeago erabiltzen zutenak baziren... Euskarazko prentsan beti egon da militantismoa eta militantismo horren arabera doa portzentaia. Zenbaitetan %10 besterik ez zen eta, gainera, beti ondo geratzeko asmoz erabilia. Elebidunen kasuan, informazio nagusia erdaraz doa beti. Kontuan hartu behar da, bestalde, garai hartako prentsa iritzizkoa ere bazela.

Maite Artola
Argia, 1995-III-26/ 1.523. zka. (moldatua)

AHOZKOAREN ULERMENA II

INGURUAZ DUGUN ERANTZUNKIZUNA DA NIRE ARTEAREN KEZKA NAGUSIA

ARGIA.– Euskal Herrian zehar bira bat egin zenuen bere garaian, eta 'Euskaradun arte unibertsala' liburua kaleratu jarraian. Ordutik hona, Estatu Batuetan eta Alemanian egon zara, eta orain Japoniara zoaz. Gure mundu txikitik, Euskal Herritik, mundu handira egin duzun salto horrek zer ekarri ditu?

MIKEL ANJEL LERTXUNDI.– Euskal kulturaren ingurua, geografia bezala, ez da handia, jende piloa gabiltza arte munduan, eta denentzat lekurik ez dago. Leku batean bere sustraiak ondo egokitu ezin dituen beste batera jo behar duen zuhaitzaren modura ikusten dut nire burua. Gure kulturak ere, biziko bada, mundura atera behar ditu adarrak, bere nortasun guztiarekin.

Lekua behar nuen, nire burua eta artea indartzeko beste kulturak ezagutu, eta era berean nire lanak ezagutarazi. Kultura bat beste edozeinen tamainan jartzeko mundu txikitik handira eman behar da pausoa.

A.– Egurra, harria eta burdina dira nagusi zure lanetan. Zerk eraman zaitu material horiek elkarrekin txertatzera?

M.A.L.– Bizi izateko oreka behar dugu, bai gizakiak, bai naturak. Euskal Herrian indar bereziz agertzen zaizkigun elementu hauek elkartuz eskultura orekatua lortu ahal dudala ikusten dut, eta gauza orekatua ondo sartzen denez, ulertzeko eta maitatzeko errazagoa gerta daitekeela nire artea.

A.– Naturarekiko kezka ageri duzu lanetan.

M.A.L.– Katea batean loturik gaude, batak bestea behar du, hots, naturak gu eta guk natura, eta hori da niretzat nagusia. Nire materialak naturaren zati dira, eta elementu bakoitzak eskatzen duen forman landuz —egurra forma biribiletan, burdina bere indar guztiz eta harria beti oinarri bezala—, naturak laguntzen nauen moduan nik ere bera jendeak maitatzeko bidean ipini dezakedala uste dut, artearen bitartez.

Mundutik espaziora atera naiz orain. Azken batean nire pentsamendua hor dabil: gizona lurlean dago, lurra espazioan, espazioak lurra sortu du eta lurrak gizona; joan-etorri honetan ari naiz, muga nagusioan artean oreka bila.

A.– Zer nola ikusten duzu egun hemen egiten den artea?

M.A.L.– Ondo dago, beste adar kultural batzuk baino indartsuago, agian. Ez dut uste beste edozein lekutakoak baino gutxiago garenik.

A.– Zer kezka artistiko nabaritzen dituzu?

M.A.L.– Gizakiak bere inguruaz duen erantzunkizuna da nire kezka. Munduaren aurrean indartsu atera nahi badugu, hori dena errespetatuz eta maitatuz ihardun behar dugu.

Hemengo kezkak, zoritxarrez, ez dira zuzenenak. Gure kulturagileek nazio indartsuen eraginpean eta ildotik segitzeko azaltzen dituzten jarrerak hemengo kultura irentsi dezakete. Kontsumoaren azpian kultura faltsua garatzen ari da eta gu horren ukitupean gaude eta atera behar dugu, haizeak zer dakarren baino gehiago oinen azpian daukagunari begiratzuz.

J. J. PETRIKORENA
Argia (moldatua)

ENTZUTEKO ULERMENA

1d	2c	3d	4c	5d
6c	7b	8a	9d	10d

ESALDIAK BERRIDATZI

1. Zorrak kitatzeko milioi bana *pezeta* jarri behar izan genuen.
2. Xabierri (gu) eskolatik etxera bere kotxean *ekar* gaitzala eskatu diogu.
3. Ez daukagu tresna hauek erabiltzen *nork* irakatsi(rik).
4. *Hori* pena handia hartu duena hori jakin duenean! (*duela ez.*)
5. Bilera amaitzen dutenerako, kexak prestatuta izan behar ditugu.
6. Dena ondo egitekotan hobe (zu) alde batera uzten *bazaitugu*.
7. Zure gurasoak nireen *aldean* modernoak dira.
8. Mikelek ez du Aitorrek *adinako* trebetasunik.
9. Azkenean, ez dugu zuek itsasora eramaterik izan/eduki.
10. *Baietz* berriz ere etxeko lanak egin gabe etorri!

SINONIMOAK

1. *galtzarbeak*: besapeak...
2. *indargea*: ahula, eskasa, motela...
3. *estakururen*: aitzakiaren...
4. *eleketan*: hizketan, berbetan, berriketan, solasean...
5. *ostendurik*: ezkutaturik, gorderik...
6. *inarrosten*: astintzen...
7. *iraungi*: itzali, amatatu, desagertu...
8. *elkorrean*: lehorrean, idorrean, antzuan, agorrean...
9. *lipar*: une, momentu, ereti...
10. *arras*: erabat, zeharo, guztiz, osoro...

IRAKURMENA

1d	2b	3a	4d	5c
6c	7b	8b	9b	10b

AHOZKOAREN ULERMENA I

RUPER ORDORIKA

LORTU DUT BURUAN NUEN SONORITATEA

Ruper Ordorikak *So'ik so'* izenburuko lan berria aurkeztu zuen atzo Bilbon. *Nuevos Medios* disketxearekin eta *Emak Bakia Phonogauzak*-en lankidetzarekin argitaratu du, eta oñatiarrak bakarlari gisa plazaratutako bosgarren lan luzea da. Diskoak hamar kantu bildu ditu, Ruperrek azken bi urteotan eginak, eta tartean Bernardo Atxagaren *Trikuarena* poema dago. Askok duela 10 bat urteko giroetara egindako itzulera intimistatzat joko dute. Ruperrentzat, berriz, aspaldian bilatzen zuen sonoritatea topatzeko balio izan du.

Ruper Ordorikak duela lau hilabete amaitu zuen lan berriaren grabazioa. Harrezkero, uda parte lagun, nahikoa denbora eduki du diskoaren gainean gogoeta egiteko, eta musikari oñatiarra produktuaz oso konbentzitura ageri zaigu. «Oso seguru nago disko honetaz», dio promozio lan nekagarri eta luzeari ekin aurretik emandako solasaldian.

EGUNKARIA.– *Zer dakar lan berriak?*

RUPER ORDORIKA.– Hamar kantu, hamarrak harantzago doazenak. Egia da nire beste diskoetan dauden gauzak hemen ere topa daitezkeela, baina baita harantzago doan zeozer ere badela. Nik mailatan edo estratotan gauzatu izan ditut lanak, eta orain hona iritsita buruan neukan sonoritatea lortu dudala uste dut, edo behintzat, bilaketa horretan hasi. Aspaldian bilatzen nuen zeozer hasi naiz gauzatzen, bai.

EGUNKARIA.– *Ben Monder kitarra jole estatubatuarraren presentzia gailendu egin da, ezta?*

ORDORIKA.– Kointzidentzia handia gertatu zen. Nik Estatu Batuetan ezagutu eta argi eta garbi neukan nire disko honetarako Benen partaidetza nahi nuela, eta izugarri poztu nintzen iazko abenduan jakin nuenean Gasteiza jotzera etorri behar zuela. Benek bat-batekotasun edo inprobisazio maila handiz, bere onera ekarri zuen dena, nolabait. Nik kutxa grabatu eta nire ahots batzuen gainean kitarrak jo zituen. Honek oinarria eman zigun, eta martxoan grabatu genuen gainontzekoa, baina bistakoa da Ben Monderren lengoaiak zerikusi handia daukala lan berrian dagoenarekin. Bat-batekotasun kontua zen neurri handian.

EGUNKARIA.– *Nondik datorkio zure azken lanari So'ik so' izen berezi hori?*

ORDORIKA.– *So'ik so' ibiltzea, Oñati aldean esaten duten gisara, sororik soro ibiltzea, nor bere kasa edo hortik zehar ibiltzen dena izendatzeko erabiltzen da.*

LUIS KARLOS GARCIA

Egunkaria, 1995eko irailaren 20a (moldaturik)

AHOZKOAREN ULERMENA II

EGUNKARIA.– *Hitz egiguzu orain Mugalariak taldeaz.*

ORDORIKA.– *Bai, Mugalariak berez, Angel Celada kutxan, Jose Gereñuk Gere baxuan eta Nando de la Casa perkusioan eta teklatueta dira. Hauez gainera Jabi Antoñana ariko da zuzeneko emanaldietan.*

EGUNKARIA.– *Zertan dira Mugalariok? Talde horrek ikaragarritzko espektatibak zituela zenioen.*

ORDORIKA.– *Zuzenean oso gauza politak egin izan ditugu, baina egunerokotasunak baditu bere mugak. Dena den nik, nolabait, oinarrizko gauzak atzera topatzeko beharra neukan orain, askoz ere nire barrurago joanez, eta horretan taldearekiko eztabaida, harremana oso garrantzitsua gertatu da. Ze, disko hau gauzatzeko saiatu gara kantuen alde jokatzeko, kantuen barrualdera joaten; «kantuen alde ez dagoenak ez du interesik», nolabait. Eta, horregatik, ildo horretako debatean taldean ibilita, oso kontzertu politak egin ditugu, apenas apaingarririk gabe.*

EGUNKARIA.– *Ez da posible diskoaren garaian materiala egin, jo eta gero grabatzea zen formula, oraingoan ez bezala.*

ORDORIKA.– *Hala da. Disko berriko kanta gehienak nik etxean landu eta musikariei azken orduan erakutsi dizkiet, ahalik eta freskoen jo zezaten. Jakina, debatea aurretik eginda zegoen —kantuen alde jokatu— eta gero inprobisazioari ekin zitzaion, nahiz eta azkenean oso disko biribildua geratu den, hain zuzen ere, musikari onak baitira.*

Bestalde, egia da prozedura oso bestelakoa izan dela oraingoan. Kitarrak lehenik grabatzeak, adibidez, neurri handian markatzen du bidea bakarkakotan; izan ere, honek aurrerantzean fruitu gehiago ematea espero dut. Bestela, kantuen egituraren aldetik saiatu naiz, gauza konplexuak ere badiren arren, ximpletasuna nagusi izaten.

EGUNKARIA.– *Azkenaldion zure alde akustikoa —Hiru Truku— dezente «astindu» duzu. Nola eragin du alde akustikoak orain dakarzun alde rockeroan?*

ORDORIKA.– *Ausartuko naiz esaten disko berriak pauso bat eman duela harantzago, hots, ez dut lan honetan akustiko-rockero banaketa hori sumatzen. Izan ere, tinbrikaren aldetik-eta harantzago doa eta pauso bat barrurago eman du. Aspaldian bilatzen nuen hori. Esaterako, nahiz eta kantu batzuk akustikoarekin egon, nekez jar daiteke sonoritate hori estiloan. Nik oso batera sentitzen ditut bi aldeak; txanpon bereko bi aldeak direla uste dut.*

LUIS KARLOS GARCIA

Egunkaria, 1995eko irailaren 20a (moldaturik)

ENTZUTEKO ULERMENA

1c	2d	3b	4c	5b
6c	7a	8c	9b	10a

ESALDIAK BERRIDATZI

1. Jon igandean ezkondu zen, baina astelehenera arte ez genuen izan horren *berri*.
2. Lagunek atzo galdetu zidaten gaurko afarirako (ea) ardo dexenterik ekar nezakeen.
3. Liburu horren euskal bertsiola zorioneko itzultzaile horrek egina *duzu*.
4. (Ni zuei) aspergarri gerta ez *nakizuen* hementxe emango dut amaitutzat idazlantxo hau.
5. Aizan neska, ez zekinat hori dena ordaintzeko lain izango dugunentz.
6. Huskeria bat eman zioten urtebetetzeko oparitzat.
7. *Nahiz eta* EAEn ekonomia %4 haziko den (hazi), langabezia ez da %14tik jaitsiko.
8. Oraindik korrikalari horrek uste baino gehiago *falta du* munduko errekorra ontzeko.
9. Haurrak amarekin euskaraz eta aitarekin arabieraz *mintzatzen dira*.
10. *Ez dut uste* tabernak ordu txikietan irekita egotea egokia denik.

SINONIMOAK

1. *zaluki*: bizkor, arin...
2. *antza*: dirudienez, nonbait, itxuraz...
3. *diosalari*: agurrari...
4. *tajuzko*: itxurazko, ganorazko...
5. *ezbairik*: zalantzarik, dudarik...
6. *Zinez*: Benetan, Egiatan/Egiaz...
7. *halabeharraren*: patuaren, destinoaren...
8. *geriza*: babesa...
9. *eriren*: gaisoren...
10. *pairaezina*: jasanezina, eramanezina...

IRAKURMENA

1d	2c	3c	4a	5b
6c	7c	8d	9b	10b

3.2.6. 1996/9/28

AHOZKOAREN ULERMENA I

ANDONI SAGARNA: «ALDATZEAK EGONEZINA DAKAR, EZ ALDATZEAK HAN-DIAGOA»

Informatikak gizartera ekarri dituen eta ekarriko dituen aldaketez hitz egin dugu Andoni Sagarnarekin. Informatikan aditua, ingeniaria eta hizkuntzalari-tzan makina bat lan egindakoa da Andoni.

HABE.— *Iraultza berehala dator gurera. Lurrazpian hasiak dira beira-zuntzeko haria sartzen. Estatu Batuetan, besteak beste, telelanerako —etxean lan egin, bulegoko ordenadoreari lotuta— aukera eman du horrek. Gizartean aldaketak ere ekarriko ditu horrek...*

ANDONI SAGARNA.— Horretaz asko hitz egin da. Nik ez dakit hainbestearaino gertatzen den benetan. Badirudi telelana egiteko aukera duen askok ez duela telelana aukeratzen, lantegira joatea erabakitzen duela. Zergatik? John Naisbitt-ek, prospektiba arloan aditua bera, 1980ko hamarkadako prentsa amerikarraren azterketa egin zuen, eta hamar ondorioetatik bat hauxe da: teknologia aurreratua erabiltzeak gizatasuna galtzeko joera ekar dezakeela, baina gizartea, arrisku hori ikustean, gizatasuna berreskuratzen lagunduko duten joera batzuk maitatzen hasten dela. Estatu Batuetakoa duzu teknologia aurreratua duen gizatasunik gabeko gizartearen adibidea. Badirudi orain urte batzuetatik hona jendeak gehiago estimatzen dituela esku-lanak, folklorea... beren sustraiak bilatu nahi dituzte.

Telelanean, nor bere etxean baldin badago, bakarrik, harremanik gabe, kafe-orduan kontu-kontari aritzeko modurik gabe... jendeak ez du hori nahi.

H.— *Talde-lanerako ere aukerarik ez.*

A.S.— Teknologia asko aurreratzen bada, izango da horretarako aukera. Bideo-konferentzia guztiz arrunta bihurtzen denean, nire ordenadorean tekla bat sakatuz, etxetik 500 kilometrotara dagoen laguna edo lankidea azaltzen bazait, talde-lanerako arazorik ez da izango. Aldaketa handia dator. Hori bistan da.

H.— *Teknologia hauek, ordea, badirudi indibidualismoa dakartela.*

A.S.— Edo ez. Bideokonferentziaren bidez, askoz harreman gehiago izateko aukera izango dugu. Telefonoarekin alderatuko dugu. Berez, badirudi telefonoa edukita ez dagoela jendearekin elkartu beharrik, indibidualismoa handi deza-keela. Baina ez da horrela gertatzen. Telefonoak lagundu egin du harremanetan, eta telefonotik bideokonferentziara ez dago alde handirik. Irudia ere badeu, besterik ez.

HABE aldizkaria, 242. zenbakia, 1994ko azaroa

AHOZKOAREN ULERMENA II

HABE.– Informatikaren lasterketa honetan euskarak ba al du aurrera egite-rik? Datu-biltokirik gehienek hizkuntza erabiliak aukeratuko dituzte lanerako, hari bitarteko telebistek ere beste hainbeste... Euskara ez ote da galtzaile izango?

ANDONI SAGARNA.– Europako Elkartearen orain arte oztopo antzeko zerbait bezala hartu izan da Europak hizkuntzan eta kulturen daukan aniztasuna. Holandar batek greko batekin komunikatu behar duenean eragozpena da aniztasun hori. Dena den, orain beste era batean ari dira ikusten aniztasunarena, besteak beste Jugoslaviako auziak belarriak tente jarri dizkielako. Herrien nortasuna eta izaera errespetatzen ez direnean, lehentxeago edo geroxeago, lehertu egiten dira. Sobietar Batasun ohian ere beste hainbeste gertatu da. Halako nortasun bat dagoen lekuan horrek aurrera egiteko bidea izan behar du. Azkenean beti hala gertatzen da, etika errentagarria dela. Badirudi inperialismo gogor horiek joanak direla edo pasatzen ari direla.

Europar esaten ari dira teknologiararen aurrerapenak hizkuntza eta kulturen arteko orekara iristeko tresna izan behar dutela. Esaten ari gara holandarrari holandesez hitz egiten utzi behar diogula, eta grekoari grekeraz. Nola konpondu arazo hori? Zergatik ez dugu amesten sistema bat holandarrak telefonoz holandesez hitz egiten duenean, grekoak grekeraz entzuteko bidea emango duena, eta alderantziz? Zer izango litzateke hori? Aldibereko kalitatezko itzulpen automatiko ahotsezkoa. Gaur egun ezinezkoa da. Itzulpen automatikoa badago, baina horrelakorik ez.

Honako hau esana daukate: *Zergatik ez dugu epe bat jartzen, 50 urte, esate baterako, helburu horretara iristeko? Zer behar da horretarako?*

Hasteko ahotsaren sintesia eta analisisa konbinatu behar dira. Horra iristeko lan handia dago, baina badirudi bide hori hartu nahi dela, politika industrial eta kulturala horra bideratuz. Eta hori ez dugu euskaldunok asmatu.

Bide horretan arrisku ikaragarriak daude euskararentzat. Begira, Etxepareren esaera hartan, *Euskara jalgi hadi plazara* hartan, zer esaten da?

Esaten ari da ehun urte lehenago asmatu zen sistema teknologikoa, Gutenberg-ena artean euskaraz erabili gabe zegoela, eta bazela garaia norbait liburuak egiten hasteko.

Gaur egun, ehun urteko atzerapenik ezin da onartu, ezta hogeikoa ere, eta laster urtebetekoa ere ez. Oso arriskutsua izango litzateke euskara aurrerapen horietatik kanpo gelditzea.

HABE aldizkaria, 242. zenbakia, 1994ko azaroa (moldaturik)

ENTZUTEKO ULERMENA

1d	2a	3b	4b	5b
6c	7a	8c	9b	10c

ESALDIAK BERRIDATZI

1. Urrutira joan *barik* (ere) egun ederrak *goza* ditzakezu.
2. *Nolako* gorputzaldia halako (halakoa zuen) umorea zuen aitoñak azken hila beteetan.
3. Hiru urte luze *behar* izan zituzten eraikin erraldoia amaitzeko.
4. Goiza argitu *orduko ekin* genion bizileku berriko bideari.
5. Sendagileak esan zionetik bere burua zaintzeko, zer jan eta zer edan ere ez *dakiela* dabil.
6. Beste zenbait kiroletan ez *bezala*, rugbyan indarra da ezaugarri nagusia. Rugbyan ez *bezala*, zenbait kiroletan indarra ez da ezaugarri nagusia.
7. Eskubiaz *bezain* ongi ematen *omen* dio baloiari ezkeraz ere.
(**Oharra:** *diotenez* + *omen* gaizki)
8. *Baliteke* norberaren handinahikeriak *sortzea* gure gaur egungo egonezina.
(**Oharra:** *baliteke* + *beharbada* gaizki)
9. Zuei horrelakorik gertatuko *balitzaizue*, ez zenukete atarramendu onik aterako, eskarmentu urria *duzue-eta*.
10. Ez omen dago gizaki zoriontsuagorik osasuna, maitasuna eta dirua dituen *baino*.

SINONIMOAK

1. *lohi*: zikin...
2. *galgarria*: hondagarria, hondamendia, kaltegarria...
3. *erantzunkizuna*: ardura...
4. *lausenguka*: losintxaka, laudorioka...
5. *ebasle*: lapur, ohoin...
6. *ezinbestekoak*: beharrezkoak, nahitaezkoak...
7. *makal*: ahul, motel, indarge, maxkal...
8. *txilioka*: garrasika, oihuka, irrintzika, uluka...
9. *lagatzen*: uzten...
10. *andanaren*: mordoaren, pil(o)aren, taldearen...

IRAKURMENA

1d	2c	3b	4c	5b
6d	7d	8b	9d	10a

EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

1. Glotodidaktika-lanak

a) Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak

- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner (1)*.
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J.A. Mujika (2)*.
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi (3)*.
- HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
- HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz - I. Olaziregi (15)*.
- BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia (18)*.
- BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia (22)*.
- BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. *J.A. Letamendia (29)*.
- TREBATZEN. OHOKO GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. *M. Sainz (23)*.
- EUSKALKIZ EUSKALKI. *R.M. Pagola (19)*.
- EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. *J.M. Etxebarria. J.A. Mujika (31)*.
- OINARRIZKO HITZAK. EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. *I. Olaziregi (34)*.

b) Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika

- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. *I.M. de Lezea - Kukubiltxo (6)*
- HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *I.M. de Lezea (9)*.
- ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. *I.M. de Lezea (14)*
- IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriondo (10)*.
- KONTU KONTARI. *L. Iriondo (20)*.
- AMONAREN IPUINAK. *E. Genua (12)*.
- IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada (13)*.
- JOLASEAN. *I. Urbieta (11)*.
- MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbieta (21)*.

c) Gaitasun-agiriak

- EUSKALTZAINDIK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
- EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA. (7).
- IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK. 1994ko AZTERKETAK (42).
- EGA. 1995-96ko AZTERKETAK (46).
- IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK. 1995eko AZTERKETAK (44).

d) Ebaluazioak eta hizkuntz testak

- EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA.(lau hizkuntzatan). *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra* (HUIS - HPIN).
- EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. (lau hizkuntzatan). *J. Sierra - I. Olaziregi* (33).
- EIFE 3. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) *J. Sierra - I. Olaziregi* (36).
- HINE. HIZKUNTZA IDATZIAREN NEURKETA ESKOLAN. (euskaraz eta gaztelaniaz). *J. Sierra - I.Olaziregi* (38).
- GALBAHE E1 HIZKUNTZ TESTA (B eta D erduetako OHoko 2. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (26).
- GALBAHE E2 HIZKUNTZ TESTA (B eta D erduetako OHoko 5. mailarako). *I Olaziregi - J. Sierra* (25).
- GALBAHE C1 y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testak OHoko 2. eta 5. mailerako). *J. Sierra - I. Olaziregi* (27).
- ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA (A erduko OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (28).
- PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D erduetako eskolaurre-amaierarako). *I. Olaziregi - J. Sierra.* (30).
- EUSKARA PROBAK. Irakurmena eta idazmena (OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (37).
- PRUEBAS DE LENGUA. Comprensión lectora y expresión escrita (8.º de EGB). *J. Sierra - I. Olaziregi* (39).

2. Hizkuntz Prestakuntza

- BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKLINABIDEA ETA ADITZA. *A. Arejita -J.M. Irazola - J. Uriarte* (1).
- EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. *J.M. Irazola* (2).
- BIZKAIERAZKO JOSKERA. *A. Arejita -J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte* (4).
- HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOKO HIZTEGIA. *I. Olaziregi - J.M. Berasategi - M. Zalbide* (5).

3. Zabalkunde-lanak

a) *Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)*

- HEZKUNTZA SOFTWAREAREN BILDUMA 1995. *P. Mendizabal- I.Olabarria- M. Zalbide (41).*
- IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1994. *J. Aizpurua- B. Basterretxea- I. Olabarria-M. Zalbide (38).*
- IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1994. *P. Mendizabal - I. Olabarria- M. Zalbide (39).*

b) *Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)*

- IRALE. 1996-97ko AURKEZPEN-TXOSTENA.

c) *Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)*

- ESKOLA-ANTZERKIA. *Askoren artean (18).*
- ESKOLA ANTZERKIA 2. *Askoren artean (30).*
- ESKOLA ANTZERKIA 3. *Askoren artean (31).*
- ESKOLA ANTZERKIA 4. *Askoren artean (40).*
- ESKOLA ANTZERKIA 5. *Askoren artean (42).*
- ESKOLA HIZTUN BILA. *B. Basterretxea etab. (28).*
- SAGASTIBERRI. URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA 1996
- EUSKAL GIROTZE EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. *Askoren artean (16).*
- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK. *Askoren artean (34).*
- IKASTETXEEN ERROTULAZIOA. *C. Lobo - I. Artola - J.M. Berasategi (37).*

d) *Bestelakoak*

- EUSKAL IRAKASKUNTZA: 10 URTE. *M. Zalbide etab. (24).*

OHARRA: Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.

EGA: 1995 eta 1996ko azterketak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, bere gain hartua duen EGAREN arduraren barruan, agiri-emankizun horretarako prestatzen dituen azterketa-materialak argitaratzeari ekin zion hasieratik beretik. Material horiek plazaratzean, emandako pausoen testigantza zuzena eskaintzeaz gainera, EGARA aurkezteko ikasten ari direnentzat tresna egokia bihur zitezen ere lortu nahi izan da. Asmo horri jarraituz, oraingo honetan zazpigarren alea ematen da argitara. Urte biko bilketa-formulari eutsiz, 1995. eta 1996. urteetako azterketak bildu dira hemen. Liburuarekin batean saltzen da urte horietako Atariko Proba desberdinen entzuteko ulermeneko zatiak jasotzen dituen zinta.

Urtean bitan burutzen dira EGAKO deialdiak. Hezkuntza Ordezkaritzetan, Bilbon, Donostian eta Gasteizen, eman dezake izena urte hartan gutxienez hamazazpi urte betetzen dituen edozeinek.

